




OSALAN
Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
*Instituto Vasco de Seguridad
y Salud Laborales*



[Eskuliburua]

08

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA HEGAZTI GRIPEAREN AURREAN



P.S.N.: 20,00 €



Justizia, Lan eta
Gizarte Segurantzza Saila

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Departamento de Justicia,
Empleo y Seguridad Social

[LIZENTZIAK]

Argitalpena: 1.a, 2008ko urtarrila

Ale-kopurua: 1.500 ale

© OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea,
Eusko Jauriaritzaren Erakunde Autonomiaduna

Internet: www.osalan.net

Argitaratzailea: OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea,
Dinamita bide, z/g • 48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)

Egileak: Ignacio M^a. Azkoaga Bengoetxea
Iñigo Olaciregui Garbizu
Mikel Uña Gorospe

Azalaren diseinua: Infotres S.L. eta Jaione ugalde

Fotokonposizioa: Infotres S.L.

Portuetxe, 83-1.a, 19. bulegoa (Igara Auzoa). 20018 – Donostia/San Sebastián

Inprimaketa: Imprenta Sacal

ISBN: 978-84-95859-38-9

Dep. legal: VI-55/08

[**EGILEAK**]

Ignacio Azkoaga Bengoetxea

Iñigo Olaciregui Garbizu

Mikel Uña Gorospe

[**LAGUNTZAILEAK**]

Xabier Dominguez Garcia de Andoin

Ramón Verastegui Cobian

OSALAN

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales

ZERBITZU NAGUSIAK

Dinamita bidea, z/g
48903 Gurutzeta-Barakaldo BIZKAIA
Tel.: 94 403 21 90
Faxa: 94 403 21 00

LURRALDE ZENTROAK

Urrundi kalea, 18
01013 Vitoria-Gasteiz ARABA
Tel.: 945 01 68 00
Faxa: 945 01 68 01

Dinamita bidea, z/g
48903 Gurutzeta-Barakaldo BIZKAIA
Tel.: 94 403 21 68
Faxa: 94 403 21 07

Maldatxo Bidea, z/g
20012 Donostia-San Sebastián GIPUZKOA
Tel.: 943 02 32 50
Faxa: 943 02 32 51

www.osalan.net

[AURKEZPENA]

Hegazti-gripearen gaur egungo egoera epidemiologikoa, Alerta Pandemikoaren aldiaren 3. faseari dagokiola ezarri du Osasunaren Munduko Erakundeak (OME), honela definitu duen faseari, alegia: *"Giza infekzioa gripe-birusaren azpimota berri batekin, baina pertsona batetik bestera transmititzen ez dena, edo asko jota, kontaktu hurbil bati transmititzeko kasu arraroetan baino ez"*.

OMEren gomendioei jarraiki, "Euskadin Gripe Pandemia baten aurrean Jarduteko Plana" (EGPJP) ezarri du Eusko Jaurlaritzak. Jakina denez, gizakiarengan oso infekzio-kasu gutxi eman dira, eta eman direnetan, eremu berberetan bizi izan dira abereak eta gizakiak elkarrekin, eta beraz, gaixotasuna hegaztiak zuzenean gizakiari kutsatzen diola ondoriozta daiteke.

Euskadin, kutsapen-kasurik ematekotan, hegaztiak, lanean eraginpean dauden langileei kutsatzea litzateke gerta litekeena eta, ondoren, azken honek, biztanleria orokorrari. Horrexegatik, pandemia-egoera saihesteko, arriskua murrizteko prebentzio-neurriak ezartzea, higiena, osasunaren zaintza eta lanean eraginpean dauden langileei prestakuntza eta informazioa helaraztea litzateke biderik egokiena.

Ekainaren 27ko 10/1997 Legeak aldatu zuen, OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde sortzeko izan zen abenduaren 21eko 7/1993 Legean ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko aginteei, laneko ingurumenak berez dituen arriskuen arrazoiak jatorrian ezabatu eta, posible denean, arriskuen arrazoiak jatorrian gutxitzeko asmotan, ingurumen eta osasunaren arloari buruz ezarritako dituzten arauak kudeatzea da OSALANen helburua.

Lanlekuan, hegaztiak gaixotzen dituen eta gizakiek ere harrapa dezaketen hegazti-gripearen birusa egoteak, arrisku biologiko baten eraginpean jartzen ditu langileak, eta ondorioz, lanean arrisku biologikoen eraginpean egoteari loturiko arriskuen aurrean langileak babesteari buruzko 664/1997 EDan ezarritako zereginak bete beharko ditu enpresaburuak.

Bereziki, laneko arriskuen prebentzio (LAP) arloan diharduten teknikari eta osasun-langileei dago zuzenduta Eskuliburu hau. Dena den, enpresaburu, langile, enpresaburu eta herri-administrazioen ordezkariak ere erabilgarri izan daiteke. Izan ere, hegazti-gripearen birusaren arriskupean egon daitezkeen jardueren titularrak sentikortzeaz gain, arazoaren egungo egoera eta aipatutako birusaren eraginpean egoteari aurrea hartzeko betekizunak gogoraraztea, arrisku hori ebaluatzeko jarraibideak bideratzea eta, prebentzio-neurriak hartzeko orientabideak ematea ere badu helburu.

Barakaldo, 2008ko urtarrila
Ignacio Murguía Mañas
Osalango Zuzendari Nagusia

[AURKIBIDEA]

1. Hegazti-gripea	11
1.1 Eskuliburuaren sarrera	12
1.2 Hegazti-gripeari buruzko hainbat galdera eta erantzun	13
1.3 Aurrekari historikoa. Egungoaren nazioarte-mailako hedapena	21
1.4 Egungo egoera. Aldekoak eta kontrakoak. Egungo al da pandemia saihesterik?	22
2. Hegazti-gripea eta lan-ingurunea	23
2.1 Hegazti-gripeaz kutsatzeko arriskua duten jarduerak	24
2.2 Lan-ingurunea: kutsatu eta zabaltzeko litekeen lehenengo urratsa	25
2.3 Hegaztien bitartez kutsatzea	26
2.4 Hegaztien hondakin, gorpuzki eta deiezkzioez kutsatzea	28
2.5 Arriskupeko sektoreak/jarduerak/taldeak/egitekoak	29
3. Enpresaburuaren LAPeko betebeharrak legalak	39
3.1 LAP legean barne hartutako enpresaburuak eta langileak	40
3.2 Arrisku biologikoko eraginpeko arloan aplika daitezkeen araudia	40
3.3 LAP arloan enpresaburuak dituen betebeharrak orokorrak	42
3.4 Arrisku biologikoaren eraginpeko arloan, enpresaburuak berariaz bete beharreko zereginak	43
3.4.1 Langileei kontsulta egitea eta langileen partehartzea	44
3.4.2 Arriskuak identifikatu eta ebaluatzea. Metodologia-proposamena	45
3.4.3 Nahitaezko agiriak	55
3.4.4 Lan- eta osasun-arloko aginteei jakinaraztea	55
3.4.5 Langileei bideratu beharreko informazioa eta prestakuntza	57
4. Arriskuaren eragina murrizteko neurriak	61
4.1 Hegazti-ustategietan arriskua murriztea	63
4.2 Natur ingurunean diharduten langileak dituzten enpresetan arriskua murriztea	67
4.3 Abereak eta/edo abere-produktuak eta -hondakinak garraiatzen dituzten enpresetan arriskua murriztea	69
4.4 Hiltegiak	71
4.5 Aireko Garraioa	71
4.6 Itsas Garraioa	73
5. Osasun-arloko zaintza-neurriak	77
5.1 Abereek sintomarik duten zaintza	78
5.2 Langileek sintomarik duten zaintza	78
I. eranskina "Balizko kasua" hegaztiengan: Emergentziazko neurriak	88
II. eranskina "Balizko kasua" gizakiengan: Emergentziazko neurriak	95
III. eranskina Hegazti-ustategi berri eta beste instalazio batzuen diseinuari buruzko LAP arloko betekizunak	107
Informazio Iturriak	135

[ADI!]

Hegazti-gripearen eraginpeko arriskuan dauden langileek garatu ohi dituzten jarduerak, segurtasun-baldintza egokienetan garatzea lortu nahi da Eskuliburu honekin.


Hasiera batean, baldintza hauek birusak kutsatu gabeko, baina edozein momentutan kutsa daitekeen lan-ingurune batean aplikatzen direla suposatzen da.

Gogorazi nahi dugu, Eskuliburu honetan, lanlekuan itxuraz normalak diren baldintzez ari garela beti, kasu susmagarririk gabekoak, alegia.

Birusaren eraginaren "kasu susmagarri" bat antzematekotan, Eskuliburu honen amaiera aldean deskribatzen diren emergentziazko neurriak aplikatu beharko lirateke

animalia > langilea kutsatzea saihestea da helburu nagusia, horretako, laneko arrisquen prebentzioko neurriak areagotuko direlarik.

Alerta pandemikoaren 3. faseko aldirako erabiliko dira Eskuliburu honetan jasotako jarduerak (ikus 97 or.) eta, bereziki, EGPJPak ezarritako 1., 2. eta 3. helburuetako.



1. Hegazti-gripea

1.1 Eskuliburuaren sarrera

OMEk hegazti influenzaren birus (aurrerantzean, "hegazti-gripea") arras patogenoak sor dezakeen pandemiaren inguruan emandako osasun-informazioaren arabera, animaliak gizakia kutsa dezake airez hegazti-gripea eragiten duen birusarekin, eta oraingoz, giltzapetutako hegazti infektatuez izandako gertuko kontaktu luzeetan eta errepikatuetan baino ez da eman, horien arnasketa-aparatuko jario edo gorozkiekiko kontaktuaren ondorioz, hain zuzen.

Eskuliburu honetan eskaintzen den babesa, hegazti-gripearen eraginpean dauden langileetara mugatzen da, horien jarduera profesionala dela-eta, gorako aipatutako kontaktu-motak, hots, abereak gizakia birusarekin kutsatzeko arriskua erakusten dutenak, ezinbestez izan behar dituztelako.

Kutsadura ahalbide dezaketen baldintzak zeintzuk izango liratekeen sakonago aztertu nahian, egoera Euskadin lekutzekotan, hegazti hauek bizileku dituztenen bi egoera orokor berezi beharko lirateke:

- Aske bizi diren hegaztiak, bertakoak edo pasekoak.
- Giltzapean hazitako hegaztiak, edozein dela horien helburua, bai hegazti-ustiategietakoen aprobetxamendu ezberdinetarakoak, ehiza birpopulatzekoak, zein hegazti-bilduma edo zooetarakoak.

Lehen taldeko hegaztiakiko kontaktua, ez da hain estu, luze eta errepikatua; basozainak izan litezke, ohiko ibilbideetan hildako hegaztiak aurkitzean eraginpean egongo zitezkeelako. Mendizale edo ehiztarien salaketarik ere izan daiteke, infektatuta egoteko aukera izanda, jaso behar baitituzte.

Kasu hauetan, eskuen bitartez baino ezin da kutsatutako hegaztiekin kontakturik izan edo, hildako bat lurrian ikusi ezean, oinetakoekin, zapaltzean. Dena dela, kutsatutako eskuen eta begi, sudur eta ahoko mukosen arteko kontaktuaren bitartez helduko litzateke germen patogenoa langilearen organismora. Egoera hau, basozainengan ez ezik, hegaztiarekin eta/edo horren hondakin edo erraiekin kontaktua izan dezaketen profesional guztiengan eman daiteke, hala nola: laborategiko analistengan, hegaztia suntsitzera eramaten duten garraiolariengan eta suntsitzeaz arduratuko langileengan.

Helburu ezberdinekin giltzapetutako hegaztien kasuan, arazo ezberdina da eta langile gehiago egon daitezke egoera kutsagarrietan. Izan ere, hegaztiak hartzen dituzten eremuetara ikuskatzera, arrautzak jasotzera, garbitzera, jaten ematera edo edozertarako hegaztiak maneiatzera sartu behar izaten diren langileak, esaterako, oso gertutik eta luze egon daitezke hegaztien gorozkiekin kontaktuan. Izan ere, orduak iraun ditzaketen eragiketak daude, eta egunean zehar eta, egunero, behin edo bitan errepikatuzekotan, aurreko atalean kutsatzeko adierazitako arriskua baino handiagoa ekarriko luke, ezbairik gabe.

Honelako hegazti-ustiategietan, eraginpean egon daitezkeen langile-talde ezberdinak daude. Horietako batzuen arriskua handiagoa da. Hau da, abeletxeko abereekin zuzenago jarduten dena, arrisku handiago izango du, birusaren eraginpean egoteko. Arrisku txikiagoa izango dute haztegi edo abeletxera, jarduera osagarriak egitera baino hurbiltzen ez direnek, hau da, pentsua eramatera doazenek, garbitu edo desinfektatzen dutenek, hildako abereak jasotzen dituztenek, administrazio langileek, albaitariak, administrazioaren ikuskariek, eta abarrek.

Abereak gizakia hegazti-gripearekin kutsatzea saihesteko egin da Eskuliburu hau, eta beraz, ez da pandemiaren egoera kontuan hartzen, horrelako batean, birusa aldatu, eta gizakien artean azkar-azkar hedatuko bailitzateke. Egoera horretako jarraibideak, lan-arloaren mugatik baino haratago doaz. Beraz, profesionalki eta lanlekuan hegazti-gripearen birusak kutsatzeko arrisku biologiko pean dauden langileak babestea du xede Eskuliburu honek.

Zentzu honetan, "pandemia-alertaren 3. faseko" egoerari dagozkion jarduerak jasotzen ditu Eskuliburu honek.

(Ikusi, OMEren arabera faseen sailkapena, 97 orrian)

Gure ingurunerik hurbilenean, abereak gizakia kutsatzeko aukera gehien hartzen dituen lekua izatean datza lanlekuan eraginpean dauden langileen inguruan aurrea hartzearen arrazoia. Izan ere, arrisku handiena bertan dago, gorago aipatu legez, arriskua beste edozein egoeratan baino handiagoa da, edo behintzat, orain arte hegazti-gripea gizakiengana nola heldu den kontuan hartzen badugu

Bestalde, eta gure lan-araudiak ezartzen duenaren arabera, langileek lanpostuan segurtasun- eta osasun-baldintza batzuk izatea bermatu behar du enpresaburuak. Hegazti-gripearen birusa arrisku biologikoen eraginpean egon daitezkeen langileak babesteko araudiaren aplikazio-eremuan katalogatuta dagoela kontuan hartzen badugu, arrisku horren menpe egon daitezkeen langileak hartzen dituzten enpresaburuak, kooperatiben eta administrazio publikoen esku egongo da litekeen pandemiari aurrea hartzeko bete beharreko eginkizun nagusia.

1.2 Hegazti-gripeari buruzko hainbat galdera eta erantzun

Zer da gripea?

Influenzaren birusak edo gripearen birusak eragindako gaixotasun infekziosoa da gripea. Egia esan, familia oso bat da birus hau, Orthomyxoviridae familia deritzona, eta hiru motatan sailkatuta dago: bat, bi espeziek osatzen dute Influenzabirusa, hau da, A eta B motako influen-zabisusek, pertsonengan patologiak sortzen dituztenak, alegia; eta beste biak (gizakiak askoz gutxiago kutsatzen dituztenak), C birusak eta Dhori eta Thogoto deritzenek –akainek transmititzen dutena- osatutakoak.

A motakoak dira gehien aztertu direnak, gizakiaren gripearen edo, agerraldi larriagoen kasu gehien arduradunak baitira. Gainera, beste ugaztun eta hegazti batzuei ere eragiten die, txe-

rrien, zaldien eta indioilar, ahate eta oiloen (hegazti-gripea) gripearen eragile baitira. Azaleko bi antigeno (Ag) ezberdinen arabera bi azpimotatan daude banatuta: hemaglutinina (H) eta neuraminidasa (N). Hemaglutinin 16 azpimota –H1etik H16ra- identifikatu dira, eta neuranimidasen 9 azpimota –N1etik N9ra-. Horietatik, H1 eta H3 bitarteko hemaglutininek eta N1 eta N2 neuraminidasek sortu dituzte gizakien arteko epidemiak eta pandemiak

H eta N antigenodun B eta C birusetako barne-aldaketak ez dira hainbeste ematen eta, gainera, ez ohi dituzte epidemiarik eragiten.

Andui ezberdinek, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME, WHO ingelesez erabilitako izenaren lehen letrak dira: World Health Organization) izendapen-sistemaren arabera izendatzen dira; hiru zati ditu:

- Dagokion letra larriaz, mota deskribatzen da (A, B edo C);
- Anduia, jatorri geografikoa, anduiaren zenbakia, eta aurkitu zeneko urtearen arabera deskribatzen da;
- Eta, A mota birusetan, azpimota deskribatzen da (H eta N).

Sarrera labur honekin amaitzeko, bi ideia erantsi nahi ditugu:

- Gripearen birusak, aldakortasun biologikoko kasu bakarrak direla, etengabe aldatzen baitira horien azaleko antigenoak;
- Eta, AgH-aren aurrean sortzen dituzten antigorputzek, immunitatearen eragile nagusiak direla, eta hori dela-eta aldatzen dira urtero txertaketa-kanpinetako txer-toen konposizioa.

Epidemiaren katea-Gordailua-Iturria-Transmisioa

Gordailu edo habitat natural batek hartzen duen agente eragile bera da, edozein gaixotasun kutsakorren abiapuntua, bertan baititu bizirik irauteko baldintzarik egokienak. Gordailu horretatik ostalariarengana heltzen da, hainbat transmisio-mekanismoren ondorioz, eta azkenean, gaixotasun sortzen du, errazen dituen ostalariengan.

A mota gripe-birusaren kasu berezietan, animalia-espezie ezberdinek egin dezakete gordailuarena, basatiek –hegazti urtarrek (anatiek, kaioek), fokek eta baleek- zein etxeok –txerriek, zaldiek, oiloaren familiakoek-, eta gainera, birus-andui ezberdinek gizakiarengandik igaro ondoren egin dezakete. Besterik gabe eman dira infekzioak basa-hegaztiengan, eta digestio-sistematik kanporatzen dute birusa (barreiatzen lagunduz). Antigeno-mota ugari birusak instalatu dira basa-anatidetan, giza infekzioak sor ditzaketen aldagaiak barne

Ostalaria helmuga duen infekzio-agentea daukan pertsona, abere, objektu edo substantzia da infekzio-iturria. Behin-behineko habitat bat ere izan daiteke agente horren gordailu, ugaltzeko baldintzak eskaintzen diola.

Giza espeziea eragiten duen gripe-birusa transmititzeko mekanismoa zuzenean igarotzen da agente-eramaile edo gaixoarengandik kutsatzeko arrisku gehien duten pertsonengana, hitz egin edo eztula eta doministiku egitekorakoan igortzen diren aerosol txikien (10 µm-tik beherako diametrokoak) bitartez. Birusaren erreplikazio azkarra, jariakinetako kontzentrazio altua, infekzio-dosi txikia eta eztularengatik (klinikan azaltzen ohi dena) transmititzen hain da azkar eta erraz gripea¹. Luzeago bizi dira giro lehor eta hotzetan, tanten nukleoetan egon ohi diren birusak (zenbat eta txikiagoak orduan eta infekziosoagoak). Ezaguna da, gainera, esku, objektu eta pertsonen arteko kontaktuen bidez ere transmititzen dela.

Giza osasunaren gaineko ondorioak – Infektaberatasun faktoreak

1-3 egun bitartekoa da inkubazio-aldia. Kutsapenaren ondoren, arnasketa-epitelioko zeluletara atxikitzen da birusa, eta bereziki, goiko eta bitarteko arnasbideetakoetara. Bertan errepikatu eta, ordu gutxi batzutan beste arnasketa-zelula batzuetara barreiatzen da. Oso sintoma eta seinale arrunt eta ohikoak (sukarra, zefaleak, artromialgiak, etab.) ematen badira ere, ez da oso ondo ezagutzen hauen patogenia, salbuespenetan baino ez delako gripearen birusa arnasketa-aparatutik kanpo detektatu. Hiru talde handitan sailka daitezke seinaleak, eta horiek banaka edo elkarrekin eman daitezke:

- Ezaugarri orokorrak: bat-bateko hasiera, sukar-sentsazioa, ondoeza, anorexia, zefalea, mialgiak, hotzikarak, etab.
- Arnasketa-ezaugarriak: eztul lehorra, sudur-jario, faringeko mina, etab.
- Begietako ezaugarriak: fotofobia, negar-jarioa, mina begiak mugitzean, etab.

Hona konplikazio adierazgarrienak zeintzuk diren:

- Pneumonia biriko primarioa: ohikoagoa, bihotz-hodietako eta biriketako gaixo kronikoengan eta haurdunengan.
- Pneumonia biriko sekundarioa: aurrekoa baino ohikoagoa, gehienbat edadetuenengan eta aldeztatik biriketako patologiak dituzten gaixoengan ematen da.
- Pneumonia mistoak: birus eta bakterioek eragindakoak.
- Beste konplikazio batzuk: miositisa eta mioglobulinuria, odoljariozko bronkitisa, entzefalitisa, Guillain-Barré-ren Sindromea, la miokarditisa eta perikarditisa.

1) Jakina, gizakiari eragiten dioten gripe-motei gagozkie, aurrerago azalduko dugunez, hegazti-gripeak gizakiengana oso gutxitan transmititzen dela adierazi behar dugularik.

Konplikazioak jasateko arrisku handia duten pertsonak bereziki ahulak dira infekzioaren aurrean (oro har, bat egiten dute azpiko patologiak prebenitzeko txertoaren zergatiakin):

- 65 urtetik gorakoak.
- Gaitz hauek dituzten edozein adinetako pertsonak:
 - Bihotz edo biriketako arnas patologia kronikoak (baita asma ere).
 - Diabetesa, nefropatiak, hemoglobinopatiak eta immunodepresio nabarmenak dituzten .

Gripe arrunta zer den aztertu ondoren, zer da hegazti-gripea?

Duela ehun urte baino gehiago Italian identifikatu eta mundu osoan zehar barreiatuta dagoen eta, hegazti-hazkuntzan galera ekonomiko itzelak sortzen dituen arnasketa-aparatuko gaixotasun infekziosoa da Hegazti Influenza (HI). Hegazti guztiak kutsa daitezkeela uste da, baina espezie batzuk erresistenteagoak (anatidak) dira infekzioarekiko, beste batzuk (oiloren familia-koak) baino. Sintoma ugari sortzen ditu infekzioak eragindako hegaztiengan: diagnostikatzen zaila den infekzio arina, "patogenotasun baxuko hegazti influenza (PBHI)" deritzona nahiz, epidemiak sortu eta oso azkar barreiatzen den kutsapen hilkorra (lehenengo 48 orduetan ustategiko hegazti guztiak akabatu ahal dituen), "patogenotasun altuko hegazti influenza (PAHI)" izeneko.

A motako eta H5 eta H7 azpimotetako influenzabirusak eragin ohi du gripe hori.

Oraingo agerraldia

Guangdongeko (Txina) antzara-ustiategi batean antzeman zen oso patogenoa zen A birusa 1996. urtean, eta H5N1 azpimotatzat jo zen. 1997. urtean zehar, berriz, Hong Kongeko hegazti-ustiategi eta azoketan aurki zen patogenotasun altuko H5N1 birusaren agerraldiak. HIren birusak hegazti eta txerriak bakarrik erasotzen zituela uste zen, baina 1997. urtean, H5N1 anduiak Hong Kongeko 18 pertsonari arnasketa-aparatuko gaixotasun larria eragin zituen, horietatik sei hil zirelarik².

Asiako hego-ekialdean agertu zen 2003. urtearen erdialdean eta orain arte erregistratu den agerraldi handiena eta larriena da. Birus eragilea, H5N1, endemikoa da une honetan herrialde askotan eta ehundaka milioi hegaztiren heriotza edo suntsipena eragin du eta 338 pertsonari erasan die hamabi herrialdetan (batik bat Asian), horietako 208³ hil direlarik.

FAOren⁴ Abere Ekoizpen eta Osasuneko Zuzendaritzak azaldutakoarekin jarraituz, honakoa adierazi da: <<ez da zehazki ezagutzen hegazti-gripearen jatorria zein den, bina infekzioaren biologia orokorraren eta horiek kutsatu eta hedatzeko dagoen arriskuaren faktorearen inguruan ezagutzen denaren arabera, hainbat eremu sakonkiago arakatzeko beharra ondorioztatzen da. Oilategiko hegaztientzat birus larri-larriaren hainbat mota egoteak, gaixotasunaren agenteentzat hegaztien sektorea kokaleku egokia dela adierazten du. Etxeko hegazti-hazkuntza gripe-birus larri-larria (birulentzia) gorde, zabaldu eta mutatzeko gero eta kokagune sarriago gisa azaltzen

2) "H5N1 avian influenza: timeline", WHO-OME, 2005/urria/28: http://www.who.int/csr/disease/avian_influenza/Timeline_28_10a.pdf

3) 2007ko abenduaren 12rako, WHO-OMEk konfirmatutako kasuak.

4) Elikadura eta Nekazaritzako Nazio Batuen Erakundea da FAO, eta paragrafo horiek web orri honetatik hartu dira: http://www.fao.org/ag/againfo/subjects/es/health/diseases-cards/avian_qa.html

da, lehen hegazti urtarregan infekzio arin gisa baino azaltzen ez zena. Arrazoiaren arteko bat, oilategiko hegaztien etxeko produkzioaren izugarritzako hazkuntzan egon daiteke.

Asiako ekialdean eta hego-ekialdean oilategiko 6.000 milioi hegazti daudela kalkulatu da. Abiadura bizian hazten ari diren hiri erraldoietan, espezie hauen kontzentrazio handiak daude. Ustiategi ertain eta handietan ekoizten dira oilategiko hegaztien erdia baino gehiago, horietan, prebentzio- eta babes-neurri zorrotzak behar bezala ezartzen direlarik. Dena den, nekazarien esku dago oraindik ere hegaztien zati handia, eta 200 milioi nekazari txiki dagoela kalkulatu da, horietako bakoitzak, batez beste, 15 hegazti dituela (bereziki, ahateak, oilaskoak, antzarak, indioilarrak eta galeperrak). Asiako ekialde eta erdialdeko ibilbideetatik zehar (Txinako iparralde-tik eta Siberiatik, Asiako hego-ekialde, hegoalde eta mendebaldera doazen migrazio-ibilbide eza-gunak) migratzen diren hegazti urtarrek, sasoiaren, etxeko hegazti-sistemetan gripearen birusa transmititzean, oilategiko hegaztiak infektatzen dituzten birusak areagotu egiten dira, eta honela, birusen eskualde-banaketa ezaugarri geoespazialen azalpena agerian utzi.

Hala ere, birus-mota batzuen hedapen azkarrak, hegaztien azpisektorean bertan berariazko barreiatze-mekanismoak sortarazten ditu, hala nola: espezie hauen lekualdatzea edo garraioa, infektatutako materialak dauden lekuetan. Nabarmenenak, hegazti bizien merkaturatzean dauden arriskuak dira eta, iraganean, arrisku kritikotzat hartu eta kontrol-guneak ezarri dira horietan. Honela, erraz asko azal daiteke etxeko hegazti-hazkuntzan birusak zirkulatzeko duen erraztasuna. Argitzeke dago oraindik ekoizpen intentsiboko unitateetan eta unitateen artean barreiatzeko mekanismoa, prebentzio-maila altuen arabera funtzionatu beharko bailukete unitate horiek (bio-bazterketa), eta hegazti biziez gain, beste batzuk izan bailitezke sartzeko moduak. Oilategiko hegaztien industria-kontzentrazio handiko eremuak infektatzekotan, era harrigarrian zabal daiteke infekzio hori unitateetan, eta horietan sortutako birus-kopuru itzelek erraz erasan ditzakete beste unitate batzuk, pertsonak eta ingurumena. Aipatutako transmisio-zikloa, guztiz hipotetikoa, honela laburbil daiteke: "aireko-ibilbideetatik, errepide eta aparteko bideetara" igarotzen da birusa. >>

Nola kutsatzen da hegazti-gripea? Zeintzuk dira sintomak?

Abereen arteko kutsatzeak

Hegaztiengan birusa listuan, mukian eta zirinean aurkitzen da. Kutsakortasun kasuan, infektatutako hegaztien jariatzen horiekin -edo kutsaturiko azalarekin- ukipenean jartzean ematen da. Oso patogenoa den birusak abereen ehunetan, gorozkietan eta uretan bizirik iraun dezake epealdi batean, eta hori dela-eta erraz kutsa daitezke basa-hegaztiak (ahateak, beltzargak, karioak, ...) aintzira, urmael eta abarretan. Zuzeneko kutsapen-mota honetaz gain, kutsatutako elikaduraren (pentsu-ura), ekipoen eta arroparen bitartez ere heda daitezkeelako oinarritutako susmoa dago. Gainera, apurtu eta kutsatutako arrautzek, inkubazio-plantetako txitatxoak kutxa ditzaketela ere uste da.

Albaitari-klinika

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak, beste erakunde batzuekin elkarlanean, "Hegazti-ustiategietako arduradun eta eremu-albaitarientzako gidaliburua" deritzonean, inkubazio-aldia 3-5 egunekoa dela adierazten da, eta honako sintoma hauek ezartzen ditu foko susmagarri bat diagnostikatzeko:

- Depresio larria, jateko gogorik eza.
- Arrautza gutxiago ekoiztea.
- Aurpegiko edema; gangar eta kokotsa hantuak eta zianotikoak.
- Barruko mintzetako azalean hemorragia patekialak.
- Bat-bateko heriotzak (%100era hel daiteke helkortasun tasa)

Bat-bateko heriotza-kasuetan izan ezik, honako hauek dira oiloek izaten dituzten sintomak:

- Muskulaturaren kongestio larria.
- Deshidratazioa.
- Larruazalpeko edema bai buruan, bai eta saman ere.
- Arnasa- eta aho-sekrezioak.
- Konjuntibaren kongestio gogorra, batzuetan petekia eta guzti.
- Mukosaren gehiegizko izerditzea trakeako lumenean, edo trakeitis hemorragikoa larria.
- Petekiak: esterno barruan, gantz serosoan eta sabeleko gantzean eta gorputz-barrunbean.
- Giltzurrunetako kongestio larria; batzuetan, hodixketan uratometaketak sortzen dira.
- Hemorragiak eta obarioen endekapena.
- Hemorragiak probentrikuluko mukosaren azalean, arandoiarekin lotzen den unean bereziki.
- Hemorragiak eta erosioak arandoiaren mukosan.
- Hemorragia-fokuak hesteetako mukosaren ehun linfoideetan.

Uztailaren 27ko APA 2442/2006 Aginduko 7. artikuluan, "Detekzio-sistema goiztiarrak" deritzonean, honako hau ezartzen da: oilategiko hegaztiak eta giltzapeko beste hegazti batzuk hazten dituzten ustiategietako titularrek, edo beste edozein jabe hazlek edo horietako langileek, abere-osasuneko aginte eskudunei lehenbailehen jakinarazi behar dizkie fokuaren susmoa adieraz dezaketene seinalerik bada, hots:

- Pentsu- eta ur-kontsumoa %20tik gora jaitsi bada.
- Bi egun jarraituetan, errute-kopurua %5 baino gehiago jaitsi bada.
- Aste batean hegaztien %3a baino gehiago hil bada.
- Hegazti-gripearen susmoa eragin dezakeen beste edozein seinale kliniko edo hil ondoko lesio.

Abere eta gizakien artean kutsatzea (jauzia)

H5N1 birusak, normalean, ez die pertsoneri erasaten. Izan ere, 1997. urtera arte ezinezkoa zelako ustea zegoen. Hala ere, pertsona gutxi batzuetan diagnostiko⁵ hori egiaztatu eta, kasu bakoitzari buruzko berezitasunak aztertu direnez (gehienak landa-eremuetan eman dira, hegaztien –eta bere jariakin-gorozkien- eta pertsonen arteko kontaktua oso estua den lekuetan, alegia), arnasketa bidezkoa da zientzia-erkidegoak proposatu eta onartu duen transmisio-mekanismoa. Dena den, litekeena da kasuren batean infekzioa pertsonatik pertsonara⁶ kutsatu izana.

Zuzeneko ukipenaren bitartez edo birusa daukan tantak arnasteagatik eman daiteke animalien eta gizakien arteko kutsadura. Beraz, eskuak, begietako mukosak eta arnasbideak babestea da birusak giza gorputzean sartzeko izan dezakeen oztopo nagusia.

Orain arte egin diren ikerketen arabera, hegazti gripearen birusa arnasaren bidez bakarrik kutsatzen da, baina ez infektaturiko hegaztia jateagatik. Gainera, birus honek ez ditu jasaten tenperatura altuak eta, ondorioz, hegaztia kuzinatzean suntsitu egiten da. Ondorioz, bidezkoa litzateke honakoa baieztatzea: *birusa ez dela prestatutako aberekin bitartez kutsatzen*, herrialde endemikoetatik ekarritako produktu gordinen⁷ manipulazioaz eman badaiteke ere.

Hegazti-gripearen klinika gizakiengan

Infekzio iturriaren esposizioan egon ondorengo inkubazio denbora izan liteke 3-5 egunekoa, gehienez 7 egunekoa. Deskribatu diren sintoma batzuk gripe arruntaren ohikoak izan dira (sukarra, eztula, eztarriko hantura, giharretako mina); beste batzuk, begietako infekzioa, pneumonia, arnas gaixotasun larria, eta beste sintoma larriago batzuk. OMEra herrialdeetatik heldutako jakinarazpen eta informazioen arabera, hilkortasun-tasa oso altua da, %50 eta %100 bitartekoa.

Gaur egun, birusak pertsonak erraz erasan ahal dituen aldagaia hartzea da kezkarik handiena, delako hori azkar zabaldu eta pandemiaren hasiera ekarriko bailuke.

Nortzuk erasaten ditu? –Erasaten errazenak direnak

Munduko biztanleen portzentaje altua infektatu ohi dute ibiltzen diren gripearen birusek, sintomak edo birusari loturiko gaixotasunak garatzen dituzten pertsonen kopurua askoz txikiagoa bada ere.

Berriz ere azalduko dugu, konplikazioak jasateko arrisku handia duten pertsonak bereziki ahulak direla infekzioaren aurrean (oro har, bat egiten dute azpiko patologiak prebenitzeko txertoaren zergatiakin): 65 urtetik gorakoak; bihotz edo biriketako arnas patologia kronikoak (baita asma ere), diabetesa, nefropatiak, hemoglobinopatiak eta immunodepresio nabarmenak dituzten edozein adinetako pertsonak.

5) Bakar-bakarrik, lehen aipatutako OMEren txostenak jasotzen dira, laborategian egiaztatutako diagnostiko eta kasuak.

6) Ikusi dokumentu berria: "H5N1 avian influenza: timeline", WHO-OME, 2005/urria/28.
http://www.who.int/csr/disease/avian_influenza/Timeline_28_10a.pdf

7) Gripe Pandemia baten aurrean Prestatu eta Erantzuna Emateko Plan Nazionalaren Egunerapena, 2006ko abendua, 26. or.

Hala eta guztiz ere, H5N1 birusaren oraingo agerraldiak, haur eta nerabe osasuntsuei ere eragiten omen die, egun gutxi batzuetan, pneumoniek eta organo askoren huts egiteak heriotza ekarri. Nolanahi ere, milioika hegazti erasan baditu ere, gogoratu behar da ehunka pertsona baino ez dituela kutsatu.

Ba al dago tratamendurik? Senda daiteke?

Gaur egun, oraindik ez dago osasun-agintariak onartu eta/edo aholkatutako txertorik⁸. Hala ere, badira, txertorik eraginkorrenak zeintzuk diren frogatu ikertzen eta entsegu klinikoak egiten ari diren laborategiak. Beste helburu honekin ere ari dira lanean: formulazio ezberdinek behar den antigeno-kopurua gutxiagotzerik egongo litzatekeen ezartzea, honela, txertoaren industria-ekoizpena areagotu egingo zelako.

Birus pandemikoaren aurka ahalik eta zehatzen erasaten duen txertoa behar da, eta ondorioz, birusa pandemia gisa agertu arte, ez litzateke txertoa eskala handian ekoiztuko, eta orain arte ez da horrelakorik gertatu: Oso txikia da oraingo birusa gizakiak kutsatzeko duen ahalmena; azaltzen bada, pandemia eragingo duen birusa ez da orain ezagutzen duguna izango, eta horrexegatik ez dago oraindik behin-behineko txertorik.

Bien bitartean, birusen aurkako sendagaiak erabiltzen dira babesteko. Badirudi, neuramini-dasa inhibitzen duten bi sendagaik, oseltamivir (merkatuan, Tamiflu) eta zanamivir (merkatuan, Relenza) deritzenek, gaixotasunaren larritasuna eta luzapena murrizten dutela, baina horren eraginkortasuna baldintzatuta dago, hau da, sintomen hasieraren ondoko lehen 48-72 orduetan hartu behar dira. Beraz, ezinbestekoa da gaixotasuna lehenbailehen detektatzea. Badago, gainera, birusen aurkako beste sendagai batzuk erabiltzerik ere, esaterako: amantadina eta rimantadina, betiere, Osasun Agintaritzak ezartzen duen protokoloa kontuan hartuta.

Egindako hainbat azterlanen arabera, gainera, prebenitzeko, profilaxi moduan, ere erabil daitezke birusen aurkako sendagai horiek gaixotasun azaldu baino lehen. Eta horiek guztiak, kontuan izan beharko dira. Aitzitik, birusak erresistentziak garatzea ahalik eta gehien atzeratzeko (asko erabiltzekotan, baliteke birusak horien aurkako erresistentziak garatzea eta, administrazioa aldatu edo terapia konbinatuak erabili behar izatea), ezinbesteko duten kasuetan baino ez lirateke prebentzio moduan erabili behar.

1.3 Aurrekari historikoak. Egungoaren nazioarte-mailako hedapena

Hainbat gripe-pandemia eman ziren XX. mendean zehar. Ziur aski, 1918koa, "espainiar gripea" izen desegokia hartu zuena izan zen larriena eta ezagunena. Hasierako agerraldiaren inguruan hainbat hipotesi badaude ere, I. Mundu Gerraren azken gudaldietara, Europara noiz ekarriko zain, kuarteleratuta zeuden amerikar soldaduen artean lehen kasuak eman zirela onartu ohi da. Egungo ikerketek, moldatutako birusa izan zitekeelako susmoa ekarri dute.

8) Laneko adinerako -18 urtetik 65era bitartekoa- H5N1 birusaren aurkako "eraginkortasun mugatua" duen txerto bat lortu dela dirudi, baina ez OMEK ezta beste aginte eskudunek ere, ez dute horri buruzko iritzirik azaldu. (Ikusi, 2006/03/30ean J.J. Treanor-ek eta beste batzuek argitaratutako artikulua: "Safety and Immunogenicity of an Inactivated Subvirion Influenza A (H5N1) Vaccine", The New England Journal of Medicine, 2006; 354: 1343-51).

Kuarteletan eta garraibideetan pilatuta egotearen, arerioak sortutako gaixotasun bat izatearen beldurraren, horregatik zegoen informazio-zentsuraren eta garai hartan zeuden baliabide eta ezagutza ezaren ondorioz, areagotu egin zen agerraldia, 1918. urtean, ehun milaka amerikar soldadu Frantzian lurreratu ostean, Europara osora modu harrigarrian hedatu zena.

Pandemia Espainiara heldu zenean jakinarazi eta "izendatu" zen, gerran esku hartzen ez zuen herrialdea zelako eta informazioaren zentsurarik ez zegoelako. Hamar milioika pertsona hil ziren pandemia hark jota, soldaduak aurrena, eta biztanle zibilak ondoren.

Delako pandemia hori duela ia 90 urte gertatu zenez, gizartearengan galdu egin da "oroimen historikoa" eta, izan zituen ondorio larriek ez dute gogoan iraun; hala ere, birusaren "oroimen genetikoak" bere horretan mantendu da, munduko biztanle gehienengan baitago, H1N1 birus haren aurka babestuz. Beranduago, hainbat pandemia eta agerraldi eman ziren, baina ez ziren aipatutakoa bezain larriak izan. Orain arte, historian zehar, 3 eta 40 urte bitartekoa izan da bi pandemien artean iragandako denbora; 39 igaro dira, dagoeneko, azkenetik, baina hurrengo noiz gertatuko den jakitea zaila da, hala epidemiologia, nola matematikaren ikuspuntutik.

Azken urteotan, nahiko azkar eten diren zenbat agerraldi eman dira, eta hegaztien artean heriotza asko sortu badute ere, 1918. urtean baino askoz giza gutxiago hil da. Agerraldi gehienak Asian (Txina, Vietnam, Tailandia, etab.) hasi eta zabaldu dira, baita H5N1 birusaren baten bat.

Hala ere, oraingo agerraldiak, H5N1 birusak, urarekiko erresistentzia handiagoa eta urtean luzeago bizi ahal duela ematen du, eta horregatik hiltzen ditu basa-hegazti gehiago eta, ugaztunak (katuak, txerriak, ...) erraztasunez infektatzeko gai ere da. Mutazioen bat gertatuko zen, baina zorionez, ez du lortu gizakiarengana eraginkortasunez heltzeko ahalmenik eskuratu, eta lortuko duen ere ez daki inork.

Edozein momentutan transmititzeko gaitasuna eskuratuko ote duen da egungo kezka handiena. Bi erataria gerta liteke:

- Giza birusaren eta hegaztienaren artean elkarri infektatu, eta material genetikoa elkartrukatuko balitz.
- Moldatzeko helburuarekin, pixkanakako mutazio-prozesu baten bitartez.

Lehenengo kasuan zabalkuntza ikaragarria izango zen, eta bigarreanean, berriz, babes-neurriak aurkitzeko epea egongo litzateke.

1.4 Egungo egoera: Aldekoak eta kontrakoak. Egongo al da pandemia saihesterik?

Argi dago egungo egoerak ez duela 1918koarekin zerikusirik. Izan ere, nahikoa da esatearekin, Historian lehen aldiz izan daitekeela, egiazki gaixotasuna eman *baino lehen*, horren kontrako borrokaren plangintza egiten ari dela. Medikuntza, zientzia eta genetikari buruzko ezagutzei, dagoen sendagai mordoari, osasun-asistentziako sareen hedapenari, nazioarteko koordinazioari, eta abarri esker, arazoaren aurka arrakastaz jardungo dela berma daiteke.

Nolanahi ere, kontrakorik ere badago: merkataritzaren globalizazioaren ondorioz, gero eta pertsona, animalia eta produktu gehiago lekualdatzen dira, pobrezia-multzo handiak daude eta Hirugarren Munduan ez dago osasun-asistentziarik, hegaztien legez kanpoko merkataritza, inola kontrolatu ezin diren hegazti migratzaileen bitartez eman daitekeen transmisioa, gaixotasuna zabaltzeko arriskua areagotu eta pandemia bihurtu dezaketen faktoreak dira.

Azken batez, emango litzateke? Gripearen birusaren aldakortasuna dela-eta, inork ez daki ziur. OMEk, haatik, neurri egokiak fite hartzen badira, ekiditerik legokeela uste du.

Gizakiaren eta birusaren gordailuen, hau da, infektatutako hegaztien, arteko kontaktua ahalik eta gehien murriztean datza lehentasun nagusia eta babes-modurik garrantzitsuen. Hegazti-gripearen agerraldiak azkar antzemanaz eta kontrol-neurriak ezarriz, infektatutako hegaztiak suntsituz eta horiek osasunerako erabiliz, lortuko da.

Dauden ebidentzia guztien arabera, hegaztien artean H5N1 bezalako oso birus patogenoa hedatzen denean, pertsonak kutsatzeko arriskua handiagoa da. Lehen aipatutako elkarren arteko litekeen infekzio horren ondorioz infektatutako gizaki-kopuruak gora egitean, birusa aldatzeko eta pandemia bat zabaltzeko arriskua areagotu egiten da.

Eskuliburu honen helburua da, dagokien lanbide-jarduera dela-eta, eta hegaztiekin zein, gertatuko balitz, infektatutako pertsonekin kontaktuan egoteagatik, hegazti-gripearen birusaren eraginpean egon daitezkeen langile-taldeak zeintzuk diren gogoraraztea.

2. Hegazti-gripena eta lan-ingurunea



Hegaztiak zein, gertatzekotan, infektatutako pertsonetik beren lanbide-jardueran kontaktuan egotearen ondorioz, hegazti-gripearen birusaren eraginpean egon daitezkeen langile-taldeak zeintzuk diren kontzientzia da Eskuliburuko kapitulu honen helburua.

LAParen eremuan oinarritutako Eskuliburu honek, profesionalki arrisku biologiko baten eraginpean dagoen langiletzat jotzen du, hartzen diren prebentzio-neurriak neurri, lan-ingurune batean egonik, jarduna (etengabekoa) dela-eta edo halaberrez agente biologiko arriskutsu batekin kontaktuan egon daitekeena.

Osasun Publikoaren Zuzendaritzak hartzea erabaki zuen ECDCaren protokoloaren arabera, eragin ondoko birusen kontrakoak ematea dela-eta, eraginpeko langiletzat hartzen dira ez bakarrik material arriskutsuarekin kontaktuan dagoena, baizik eta beren neurrien hesia apurtzen direnean ere.

Azken definizio hau, eskuliburu honek eremu duen LAPari aplikatuko balitz, LAParen 15 artikuluan jasotako prebentzio-ekintzaren Printzipioa urratuko litzateke.

2.1 Hegazti-gripeaz kutsatzeko arriskua duten jarduerak

Hainbat dira, hegaztiak kontaktuan estuagoa izatearen ondorioz, lan-lekuan langileek, duten lanbidea izateagatik, hegazti-gripea bereganatzeko arrisku handiagoa duten jarduerak.

Hasiera batean, edozein hegazti izan daiteke birusaren eramailea eta beste hegazti batzuk kutsa ditzake, are gehiago, baita beste animalia batzuk eta gizakia bera ere. Beraz, askatasunean bizi diren hegaztiak zein, helburu ezberdinekin giltzaperatuta daudenak, aztertu egin behar dira, lanlekuan horiekiko kontaktua duten langileak kutsa ez daitezen.

Askatasunean bizi diren hegaztiak dagokienez, hegaztien gorpuak jasotzeaz arduratzen diren herri-administrazioetako langileak dira, profesionalki eraginpean daudenak. Giltzapean, zoo, hegazti-bilduma nahiz hegazti-etxeetan bizi diren hegaztiak kutsa daitezkeenak, berriz, horietan hegaztiak kontaktuan zuzena duten langileak izango dira, abeletxeetako langileak, zein kanpoko profesionalak, besteak beste, albatariak. Bi taldeetatik, giltzapeko hegaztiak lan egiten dutenek dute arrisku handiagoa. Kontaktua horren arrisku-maila, garatzen duten jardueraren arabera jakin eta, kutsatzeak prebenitzeko diseinu-neurriak har daitezke.

Hegazti eta beste Abere Ustiategiarentzako Lan Hitzarmen Kolektiboa erregistroan inskribatu eta argitaratzeko, Laneko Zuzendaritza Nagusiaren 2004ko maiatzaren 6ko EBAZPENA (2004/06/16ko 145. BOE) erabil daiteke, Eskuliburu honek jasotzen duen lan-inguruneko konplexutasunari buruz zerbait jakiteko. Horretan, ondorengoak jasotzen dira hegazti-ustiategiarentzako jarduerak gisa:

1. Bertako zein kanpoko inkubagailuak erabilita, txita jario berriak saltzeko, ugalketa-lanetan dihardutenak, ustiategiaren tamaina edozein dela.

2. Definitutako arraza eta gurutzaketako hegaztien hazkuntzan eta ustiaketan diharduten abeletxeak, eta txitak eta hazitarakoak inkubatzeko horietako arrautza-ekoizpenaren helburu beste abeletxe edo hegaztien landa-ustiategiak hornitu eta populatzea bada.
3. Agenteak erabiliz inkubatzeko edo beste edozein merkataritza-eragiketa arrunte-tarako arrautza ugalkorrek saltzen dituztenak.
4. Beren instalazioetan jaiotako txiten, komisioren truke zein bere kasa, arrautza ugalkorren erosi edo saltzen dituzten inkubazio-areto industrialak.
5. Arrautzak ekoiztu, sailkatu edo eraldatzen edo txitak hazten dituzten pabiloi edo lokaletako ustiapenak.
6. Edozein espezietaiko hegaztiak hazi, aurrerakoak hazi, ugaltu edo gizentzen dituzten ustiategiak, beste Hitzarmen Kolektibo baten menpe ez badaude. Hitzarmen honetan hegaztiei buruz egiten diren aipamenak, kontuan izan behar dira beste edozein motatako abere-ustiapenerako.

Horrenbeste jarduera-mota ezberdin egotean datza, oso patgenoa den birusaren bitartez hegazti-influenzaren kutsapena prebenitzera zuzendutako alderdi eraginkorrek ezartzerakoan, irizpide bakarrak zehazteko dagoen zailtasuna. Dena den, instalazioen diseinuari buruzko hainbat jarraibide orokor, eta horien berezitasun batzuk jasotzen dira Eskuliburu honetan, hegazti-influenzaren garapena eta hedapena prebenitzeko.

Hegazti-etxeetan garatzen diren jarduerak eta, askatasunean bizi diren hegaztiekin kontaktua izan dezaketen langileak ez ezik, laborategiko jarduerak ere izan behar dira kontuan, hildako hegaztiekiko eta horien hondakinekiko nolabaiteko ukipena eskatzen baitute. Hegazti-ustiategiez gain, ez da ahaztu behar gaixotasunaren zabalkuntza prebenitu eta/edo kontrola dezaketen beste instalazio batzuk badirela, eta horren adibidea, analisi-laborategietan dugu.

Era berean, kontuan izan behar da osasun-langileak, H5N1 birusak kutsatutako pertsonak artatzeko beharra dela-eta, kontaktu-mailaren arabera, erraz samar kutsa daitezkeela. Horrexegatik, gizakiengan gaixotasuna diagnostikatzen eta/edo gaixoak sendatzeko berariazko tratamendu terapeutikoa ematen duten bitartean, osasuneko Arreta Zentroetako eremuak kontuan hartzea komeni da. Nolanahi ere, ez da ahaztu behar kutsatzeko litekeen lehenengo aukera-maila abeletxetakoa dela.

OMEk gaixotasuna hartzeari buruz ezarritako irizpidearen arabera, gaixotasunarekin kutsatzeko arriskuaren eragina handiagoa edo txikiagoa izango da, funtsean, hegaztiekin, horien hondakinekin, gorozkiekin edo analisisetarako laginekin izaten den kontaktu-mailaren arabera. Gainera, infektatutako pertsonekin eta horien irazpenekin osasun-langileek duten kontaktu-maila ere izan beharko da kontutan, eta gertatzekotan, baita hileta-zerbitzuetako langileek dutena ere.

2.2 Lan-ingurunea: kutsatu eta zabaltzeko litekeen lehenengo urratsa

Zuzen-zuzena da gutxien garatutako herrialdeetan "hegaztia › biztanleria orokorra" kutsapena, pertsonak abereekin batera bizi direlako, elkarrekin lo eginez eta baita iturri bereko ura edanez ere. Zuzeneko kontaktua da, estu-estua, luzea eta ohikoa. Lehen mundua deritzoneko herrialdeetan, gurea esaterako, zailagoa izango da kutsapena zuzenean ematea, eta litekeena da, kutsapena kate honen arabera izatea: "hegaztia › eraginpeko langileak › biztanleria orokorra". Dena den, ez dira ahaztu behar, gaixotasuna izateko arriskua edo pandemia garatze-prozesuan duten herrialdeetara bidaiatzen direnak. Negozio-bidaia izatekotan, lanbidean gaixotasunaren eraginpean dauden langiletzat hartu beharko dira horiek.

Gure eremuan, nahiko urria da hegazti-sektorea, eta dagoena abere-ustategietan garatzen da; abeletxe txikiak zabalduago eta sakabanatuago daude, eta horietan, Euskadiko ia baserri guztietan gertatzen den bezalaxe, familiaren kontsumorako, edo eskala txikian ustiatzeko hegaztiak hazten dira.

Profesionalki eraginpean dauden langileak izango dira, honako hauetan lan egiten duten guztiak: hegaztiak hazi, elikatu, artatu, hil eta merkaturatzeko prestatzen dituztenak, kontsumitu edo inkubatzeko arrautzak bezalako produktuekin kontaktu zuzenean daudenak eta, maneiatu beharreko abereen gorozki, hondakin eta gorpuzkiekin, suntsitzeko zein aprobetxatzeko, kontaktua dutenak.

Lanlekuan hegaztiekin zuzeneko kontaktua duten langile-talde hauetan gain, badira eraginpean egon daitezkeen beste batzuk ere, kontaktua hain zuzena eta jarraitua ez bada ere, hau da, hegazti-ustategiarekin eta giltzapetutako hegaztien zaintzarekin zerikusia duten jarduerak garatzera abeletxe, zoo eta hegazti-bildumetara joaten diren langileak. Horiek, oro har, pentsua eramatera, garbitu eta desinfektatzera, albaitari-jardueretara, hegaztiak, arrautzak edo, hiltegia eta/edo errausketa-instalazioa izatekotan, azken produktua garraiatzera joaten diren langileak izaten dira.

Gainera, aberea kutsatuta dagoen ala ez, eta azken batez, kutsatzekotan eraginpeko langileek bereganatutako birusaren mutazioa egiaztatzeko, laborategietan analisiak egiten dituzte langileak ere eraginpean daude. Horiek, halaber, gainerako langileak, senitartekoak eta, eritasuna diagnostikatu eta tratatzeko prestatutako Osasuneko Arreta Zentroetan gaixoturiko langileekin kontaktua izango duten osasun-langileak ere kutsa ditzakete.

3. fasearen ondoko faseetara helduko balitz, gaixotasunaren fokuak izan ditzaketen herrialdeetara hegazkinez bidaiatzen diren langileak ere kontuan izan beharko dira kutsatzeko duten aukeragatik eta, aldi berean, hegaldiko langileak zein aireportuetako langile laguntzaileak (bagaia eta bidaiarien muga-kontrolak egiten dituzten poliziak barne) kutsa ditzaketelako.

2.3 Hegaztien bitartez kutsatzea

Une honetan, gaixotutako hegazti migratzaileen edo askatasunean daudenak kutsatuz biderra daiteke gaixotasunaren sarrera-iturri nagusia, oilategietan edo hegazti-etxeetan dauden hegaztiak kutsa ditzaketelako.

Abereak birusa bereganatzen badu, horren edozein hondakinetan egon daiteke, hau da: gorozkietan, lumetan, edontzietako uretan, arrautzetan, haragian, etab. Hegaztien, horien azpi-produktuen, hondakinen edo zaborretan edo hegaztien eremua garbitu eta desinfektatzeko uren bitartez irten daiteke birusa abeltxetik, eta transmisio-bektoreak, besteak beste, intsektuak, karraskariak edo etxeko abereak izan daitezke.

Gaixotasuna gero eta gehiago kutsatzen ari dela kontuan izan beharko du prebentzio zientifiko eta teknikoak, gaixotasuna kutsatzea saihesteko. Lehenengo urratsa, hegazti-ustiategietan eta oilategietan dauden hegaztiak kutsatzea galaraztea izango da. Hegaztiak hartzen dituzten instalazioetan oinarriko neurri teknikoak diseinatzea eta abeletxeko hegaztien eta basatien arteko kontaktua eskatzen ditu prebentzio horrek. Horretarako, ustiategi edo oilategian hegaztiak hartzen dituen eremuak, kanpoko hegaztiak edo beren deiekzioak hegazti-ustiategira, zoorra edo hegazti-bildumara ez sartzeko moduan diseinatuko dira. Beraz, instalazioek, aletegiekin, eta ur-biltegiekin itxita egon beharko dute, kanpo hegaztiak bertaraterik izan ez dezaten. Oro har, abeletxean infektatutako materialak, abereak edo pertsonak sartzeari galaraz dezakeen edozein neurri.

Bigarren maila, hegazti bat kutsatu ondoren, gaixotasuna besteen artean hedatzearena izango da. Oso zaila da galarazten, eta horrexegatik, birusa hegaztiengandik eraginpean dauden langileengana ez heltzeko neurriak hartzea izango da bigarren urratsa. Zentzu honetan, eta lantokian eraginpean dauden langileengan kutsadura prebenitzeko, eta gaixotasuna azkar detektatzeko baliabideak daudela uste izanda, ustiagetiaren diseinuak honakoa ahalbidetuko du: hegaztiengana heltzen den elikadura eta edaria automatikoki eta dosietan heltzea beti, eta oilategiaren kanpoaldetik, horretarako diseinatutako behatxulo edo hermetikoki itxitako leihoen bidez barrualdea zaintzerik egon dadila.

Bigarren maila honetan hegaztiak zuzeneko kontaktua prebenitzeaz gain, produktuekiko galarazi behar da, hau da, gaixotasunaren eramaile izan daitezkeen arrautza, hondakin eta gorozkiekikoa. Horretarako, elementu horiekin ukipenik izan gabe garbitzea litzateke prebentzio-neurririk egokiena. Izan ere, gaixotasunaren fokua egiaztatzekotan, kanpoaldetik erabat isolatutako eta hegaztiak hiltzeko elementuez hornitutako konfinamendu-eremua egon beharko bailitzateke. Gune hori, aldizka oilategia hustu, garbitu eta desinfektatzeko modu alternatibotzat erabili ahal izango litzateke.

Hirugarren urratsa, hegazti-eremura eta horiekin, horien hondakinekin eta/edo gorozkiekin kontaktuan sartzekotan kutsa daitezkeen, gaixotasuna beregana dezaketean eta horren eramaile izan daitezkeen hegazti-eremuaren kanpoko bektoreena da. Beraz, etxeko abereei zein basabereei, karraskariei eta intsektuei pabiloi barrura sartzeari galaraziko dien kontrol-diseinua izango da.

Laugarren maila eraginpean dauden langileei dagokie. Ustiategi, laborategi edo gaixotasunak kutsatuta daudelako susmopeko gaixoak artatzeko osasun-unitateetako aretoetan, beste pertsona batzuk kutsatzeko eta gaixotasuna beste gizaki batzuen artean zabaltzeko aukerak murriztuko dituzten neurriak ezarri beharko dira. Zentzu honetan, hildako zein bizirik dauden abereak, azpiproduktuak, hondakinak, gorozkia, etab. daudelako birusak kutsatuta egotea egon daitekeen eremuak, presio negatiboa ezarri beharko da, birusa kutsatuta egon daitekeen lekuaren kanpoaldean zehar barreia ez dadin.

Hegazti-ustiategietan eta analisi-laborategietan, birusak kutsatuta egon daitezkeen eremuak, bizirik dauden edo hildako abereak, horien azpiproduktuak, hondakin, deiekzio eta abar hartzen dituztenak dira.

Dena dela, hegazti-ustiategiak eta arlo honetan espezializatutako analisi-laborategiek edo Osasuneko Arreta Zentroek, honako hauek izan behar dituzte: zigitatuak izatea ahalbidetzen duten instalazioak, jarduketa-eremuetara sartzeko bitarteko gelak (esklusak), azken hauek kaleko jantziak uzteko, garbitzeko eta laneko jantziak eta norbera babesteko ekipamenduak jantzeko lekuak dituztela; era berean, laneko jantziak eta ekipamendu berrerabilgarriak jasotzeko instalazioak edo edukinontziak, enpresak horiek garbitu edo desinfekta ditzan. Era berean, erabilera bakarreko norberaren babeserako ekipo guztiak eta erabilera bakarreko higiene-elementuak, ziurtasunez eta kutsatzeko infekzio-iturri izan gabe, jaso edo suntsitzeko aukera egon behar du.

Hegaztiak garbitu eta desinfektatzeko erabilitako ura, zein ibilgailuen gurpilak eta oinetakoak garbitzeko putzuak eta langileak bere burua garbitzeko ura, isuri baino lehen, bildu eta tratatu egin beharko da, birusa ezabatzea edo deuseztatzea lortzeko indarrean dagoen araudi aplikagarriaren arabera⁹.

2.4 Hegaztien hondakin, gorpuzki eta deiekzioez kutsatzea

Elikadura ematean, garbitu eta desinfektatzerakoan eta bestelako jardueretan, diseinuak ustiategiko kanpo-langileek hegaztiekin harremanik ez izatea ahalbidetzen badu, hegaztien azpiproduktuekin, hau da, luma, arrautza eta ontziraturako hegaztiki gordinarekin kontakturik ez izatea lortu beharko da.

Mugatutako eremuak ezarri beharko dira ustiategiaren sarreran, kanpoko ibilgailuek eta langileek, hegaztiekin, eta horien hondakin, gorpuzki eta gorozkiekin kontakturik izan ez dezaten.

Gainera, fokuaren susmoa izendatu eta/edo egiaztatzen denerako, ustiategirako sarbidea prezintatzea, eta bakar-bakarrik espresuki baimendutako langileei sartzen uztea ahalbidetuko duen diseinua izango du delako horrek.

Laborategiak diseinatzerakoan, infekzio-fokuaren susmo edo egiaztapenerako eskatutako prebentzio-neurriak izan beharko dira kontuan. Hegazti jakinetan (basatiak ala hegazti-ustiategietakoak izan) birusaren presentzia detektatu edo ez dagoela egiaztatzeko analisi-laborategietako langileak babesteko, laborategi horietako instalazioek, lanbidea dela-eta gaixotasunarekin

9) Ikusi. Abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen uztailaren 6ko 141/2004 Dekretua (irailaren 3ko 169. EHAA).

kutsatzeko eraginpean dauden langileek ez kutsatzeko moduko diseinu-neurriak izan beharko dituzte¹⁰.

Kaleko jantziak eta lanekoak uzteko aparteko aldagelak, dutxak eta higiene pertsonalerako baliabideak izango dira lanlekuan eraginpean dauden beharginentzat. Gainera, horiek jasotzeko sistema berezituak izango dira, bata, laneko arropa eta berriro erabil daitezkeen babes pertsonaleko ekipoak, hurrengo batean erabili baino lehen enpresak garbitu eta desinfektatu beharko dituenak, eramateko, eta bestea, erabili eta botatzeko babes pertsonaleko ekipoak eta higienemateriala suntsitzeko eremura hermetikoki eta kutsatzeko arriskurik gabe eramatea ahalbidetuko duena

Hala eta guztiz ere, instalazioen diseinuak ez ditu ukipen-modu oro galaraziko, eta ondorioz, diseinu-neurriekin batera, ez kutsatzeko higiene eta babes pertsonaleko prebentzio-neurri guztiak hartu beharko dira.

2.5 Arriskupeko sektoreak/jarduerak/taldeak/egitekoak

Lanlekuan eraginpean dauden langileei, oso patogenoa den birusak hegazti-influentzia nola kutsa dezakeen era erraz eta sistematikoan jakinarazi ahal izateko, hasiera batean, sailkapen global bat egin daiteke, langile oro bi taldetan banatuz:

Lanbidea dela-eta, zuzeneko eraginpean dauden langileak

Lanbidea dela-eta, lanlekuan kutsatutako edo Autonomia Erkidegotik hurbileko foku aktibotzat adierazita egoteagatik kutsatuta egon daitezkeen hegaztiekin eta horien hondakin, gorozki eta azpiproduktuekin kontaktu zuzena duten profesionalak hartzen dira, kutsatzeko arriskuaren zuzeneko eraginpean dauden langiletzat. Hegazti-ustiategietako fase guztietan eta jarduera guztietan aritzen diren langileak dira: inkubazioan, gizentzean, errunaldietan, hiltegian. Jarduera hauen barruan, gainera, ekintza-taldeak eta arrisku-taldeak daude

Arrautzen kasuan, esaterako, jarduera-talde ezberdinetakoak dira hazteko erabiltzen diren arrautzak eta, gizakien kontsumorako, abeletzeko azpiproduktu gisa saltzen direnak.

Abereak akabatzeke eremuetan, bestetik, langile batzuek abereak konfinamendu-lekutik hiltzera eramaten edo eramana razten dituzte, beste batzuek, hiltzeko prestatzen dituzte hegaztiak, beste batzuek, hil egiten dituzte, besteek lumatu, erraiak kendu eta hegaztiak garbitzen dituzte, azkenean, produktua banatzeko, hegaztikiak prestatu, ontziratatu eta biltegitratuz

Talde honen barruan, hegaztiak gordetzen edo gorde dituzten lokalak garbitu eta desinfektatzen dituzten langileak barne hartu behar dira, eta baita hegaztien deiekzioen ondorioz sortzen den gorozkia jasotzen duten langileak ere.

10) Hegazti-gripearen birusa detektatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan egiaztatuta dagoen laborategia NEIKER da.

Era berean, ezin dira ahaztu, ederrak edo arraroak izateagatik zooetan edo hegazti-bildumetan erakusteko hegaztiak hartzen dituzten lekuetan jarduten diren langileak ere. Edo, hegaztiak zaindu, elikatu edo garbitzen dituztenak.

Dena dela, abeletxeetako laborategietan edo beste laborategi batzuetan lan egiten duten, edo abeletxeetan bertan edo euren kontsultan hegaztiak artatzen dituzten albaitariek ere, lanlekuan gaixotasuna harrapatzeko arriskupean dauden langileak dira.

Hegaztiengan gaixotasuna diagnostikatzen baino jarduten ez diren laborategietako langileek kontaktu zuen eta jarraitua dute, hau da, laginak prestatu, manipulatu eta aztertzeko hegaztiekin eta horiek deiekzioekin zuzeneko kontaktua dutenek, eta baita, laginekin kontaktuan dauden langileek ere.

Deskribatutako jardueri loturiko eginkizunak egiten betetzen dituzten langile guztiak kutsatzeko arriskuaren zuzeneko eraginpean daudela hartzen da, bai hegaztiekin, beren gorozkiekin, azpiproduktuekin eta/edo hondakinekin zuzeneko kontaktua dutelako. Dena dela, kontaktuak irauten duenaren arabera, edo jarduera zenbatetan egiten den kontuan hartuta, kutsatzeko arrisku-aukera handiagoa edo txikiagoa izango da.

Azkenik, H5N1 birusak infektatutako pertsonekin, dagokien lanbide-jardueragatik, kontaktu zuzena duten osasun-langileak ere talde honen barruan hartu behar dira. Hala ere, eragin-egoeraren ondoko birusaren aurkakoak ematerakoan, babes-neurrien (NBEak) eraginkortasuna bermatu ezin denean ematen da egoera hau.

Lanbidea dela-eta, zeharkako eraginpean dauden langileak

Lanbidea dela-eta, jarduera profesionala garatzerakoan kontaktu zuzena eta jarraitua izateagatik, kutsatzeko arriskuaren eraginpean dauden azaldutako langileez gain, beren ogibidea kontaktua eskatzen ez duten jarduera-talde baten barruan garatzen delako, badira animaliekin, beren deiekzioekin, beren hondakinekin eta/edo azpiproduktuekin zeharkako kontaktua eskatzen duten hainbat jarduera eta/edo lanbide.

Adibidez, hegazti-ustiategiarekin zerikusirik duen jardueraren bat garatzen duten langileak, hala nola: ustiategirako hegaztiak garraiatzen dituztenak edo pentsua, garbitzeko materiala edo beste edozein hornigai ekartzen dituztenak.

Talde honen barruan, gainera, ustiategian administrazio-lanetan dihardutenak edo instalazioen mantentze-lanetan aritzen direnak leudeke. Hau da, instalazio elektrikoak, aireztatze, bero-kuntza edo aire girotuko instalazioen mantentze-lanetan jarduten direnak, pentsua ekartzen, ustiategiko langileek jaso ondoren, gorozkia eramaten duten langileak, etab.

Hegaztiekin, beren hondakinekin edo aztertu beharreko laginekin kontakturik izan behar ez duten laborategiko langileak, hots, administrazio-lanetan, aparatuak aztertzen edo instalazioen mantentze-lanetan, eta abarretan aritzen diren langileak ere, zeharkako eraginpean dauden langiletzat jo behar dira.

Kasu honetan ere, aurrekoan bezalaxe, hegaztien hondarrak har ditzaketen lekuetatik gertu zenbatetan eta zenbat denbora egoten diren kontuan izango da, gaixotasunarekin kutsatzeko arriskua handiagoa ala txikiagoa den ezartzerakoan.

Hegazti-ustiategietako langileak

Kapitulu honen hasieran aipatutako Ebazpenaren [Sektorearen hitzarmen kolektiboa] 32. artikuluan aipatzen diren lanbide-kategorietan oinarritzen bagara, lau talderen arabera sailkatuta daude langileak: Teknikariak, enplegatuak, mendekoak eta beharginak. Kontuan izan EAEko hegazti-ustiategi gehienak txikiak direnez, ohikoena langile laguntzailerik ez izatea dela.

a) Langile tituludunak

TEKNIKARIEN talde barruan, goi-mailako zein erdi-mailako edozein teknikarik hegaztiekin kontaktu zuzena izan badezake ere, laborategiko langileak, teknikariak zein laguntzaileak, izango dira hegaztiekin, beren hondakinekin edo deiekzioekin kontaturik zuzenena izango dutenak. Gainerako teknikari guztiek, oso noizbehinka izan dezakete kontaktu zuzena, eta izatekotan, oso denbora-tarte laburretan.

b) Administrazioko langileak eta saltzaileak

Zeharkako kontaktua izaten dute, oro har, ADMINISTRAZIOKO LANGILEAK. Hala ere, gerta daiteke euren jarduerak garatzerakoan bulegoetan kutsatzeko dagoen arrisku-maila baino handiagoa duten eremuetara joan behar izatea, besteak beste, pisatzerakoan, pisuak jasotzerakoan edo izakinak egiaztatzerakoan. Zenbaitetan, laburrak eta ohikoak izanda ere, baliteke zuzeneko kontaktu-egoeretan aurkitzea.

SALTZAILAEN taldean, erosketa edo salmenten Ordezkarik edo Agenteek, hau da, agindutako salerosketak egiteaz arduratzen direnek edo horretan ezagutza praktikoak dituzten langileek, hegaztiekiko zuzeneko kontaktuak izan ditzakete, baina laburrak eta noizean behin.

Enpresaren bezeroei produktuak banatu eta eramatea dute jarduera nagusi banatzaileek eta, egiten dituzten eskariak jaso eta eskudirutan kobratu edo ordaindu behar diren salmentak likidatzeaz arduratzen direnek ere, izaten duten noizbehinkako, epe laburreko eta zuzeneko kontakturik hegaztiekin. Gainera, esleitutako ibilgailua kargatu eta deskargatzeaz ere arduratuko da, gidaria izan ahal delarik, eta beraz, mantendu, garbitu eta itxura ona izateaz arduratuko da.

Banatzailearen Laguntzaileek, lehenengo horren aginduak bete eta laguntza ematen diote. Gerta daiteke, enpresako beste jarduera batzuetan aritu behar izatea. Beharginen Laguntzaileen antzekoak izango dira. Banatzaileek zein Banatzaile Laguntzaileek hegaztiekiko zuzeneko kontaktuak izan ditzakete, baina laburrak eta noizean behin.

c) Menpeko langileak

MENPEKO LANGILEEN taldearen barruan, biltegietako eskariak zerbitzatzeaz, merkantziak jaso eta, biltegiratuta izorra ez daitezen eta erraz hartu ahal izateko, behar bezala banatzeaz

arduratuko da, eta gainera, jardunaldian zehar eman diren mugimenduak liburu eta fitxetan jasotzeaz eta hornidurak eskatzeaz. Langile hauek hegaztiekin eta beren hondakinekin kontaktu zuzena izan dezakete, baina, kontaktuak laburrak eta estuak izan, eta noizean behin emango dira.

Biltegiko langileak, bestalde, Biltegezainaren aginduak bete eta beren jardueretan laguntzen dietenak ere, antzeko egoeran daude.

Pisulariek edo Baskulariek, hau da, egunean zehar agindutako pisualdiak egiteaz eta horietan gertaturikoak liburu eta parteetan erregistratzeaz baino arduratzen ez diren langileek, aldizka, hegaztiekin eta/edo beren hondakin edo gorozkiekin kontaktua izan dezakete, baina oso epe laburrez eta ez oso estuki.

Gaueko Zaindari edo Jagoleak, industria eta merkataritzako zinpeko Jagolearen titulua izan gabe, ordena gordetzeaz eta zaintzeaz baino ez dira arduratzen, eta bereziki, ustategietan arrotzik sar ez dadin zaintzen dute. Horiek, izan dezakete txandaren batean hegaztiekiko kontakturik, baina, oso noizbehinka, epe laburrekoa eta azalekoa izaten da, ihes egin duen hegaztiren bat harrapatu behar ez badute, behintzat.

Atezainek, goi-mailako aginteen aginduak betetz, fabrika edo bulegoetarako sarbideak zaintzen dituzte, hau da, zaintza- eta jagole-lanetan aritzen dira. Hegaztiekin izan dezaketen kontaktua noizbehinkakoa, epe laburrekoa eta urrutikoa izaten da.

Ordenantzak, enkarguak egiteaz, prentsako edo bestelako dokumentuak kopiatzeaz, edo departamentu ezberdinetakoek agin diezazkieketen mandatuak burutzeaz, gutunak jaso eta banatzeaz eta antzeko lan arruntetaz arduratzen diren mendekoak dira.

Garbitzaileak, oro har, higie-lanetatik eta bulegoak hartzen dituzten lokalak garbitu eta zaintzeaz arduratzen diren langileak dira. Giltzapetutako hegaztien eremuak garbitu eta desinfektatzen ez dituzten langile hauek, hegaztiekin izan dezaketen kontaktua noizbehinkakoa, epe laburrekoa eta urrutikoa izaten da.

d) Langileak

LANGILEEN talde honetan, hiru azpitalde daude: zuzeneko eskulana burutzen duten langileena; hainbat ofizioetako langileena; eta garraioko langileena.

ZUZENEKO ESKULANEKO langileak dira: Enpresaburuak edo Arduradunak aginduta, dago-kion edozein funtzio betetzen dituztenak. Espezialista, goi-mailako aginte baten aginduak betetz, bere sekzioko hainbat eragiketa betetzen dituen langilea da, eta besteak beste, inkubazioa, hazkuntza, zaintza, elikadura, edaria, hautaketa, betiere, espezializazio-mailaren arabera. Laguntzailea ere, goi-mailako aginte baten aginduak betetz, bere sekzioko hainbat eragiketa betetzen dituen langilea da, baina honek, batik bat, esfortzu fisikoa eskatzen dituztenak burutzen ditu: garraiobideak kargatu eta deskargatu, pisatu eta lokalak eta lanabesak zaindu eta garbitzea.

Profesionalki talde honetan barne hartzen diren langileak dira kutsatzeko arrisku handiena dutenak, hegaztiekin, beren hondakinekin eta gorozkiekin izaten duten kontaktua jarraitua, luzea eta estua izaten delako.

e) Hainbat ofizioetako langileak

HAINBAT OFIZIETAKO langileek, hau da, Ofizioetako Ofizialek, lanbidea ikasi ondoren burutzen duten euren jarduna eta honelako ogibide klasikoak betetze dituzte: Mekanikariak, Argiketariak, Igeltseroak, Zurginak, Iturginak, Latorrigileak, etab. Lanbide hauetako langileak ere egon daitezke gaixotasuna bereganatzeko arriskupean, hegaztiekin, beren hondakinekin eta deiekzioekin kontaktua izan dezaketelako. Dena den, eraginpean noizbehinka egoten badira ere, gerta daiteke hegaztiakiko, beren hondakinekiko eta deiekzioekiko kontaktua epe luzez ematea eta estua izatea.

f) Garraioa

GARRAIOKO langileak bi taldetan banatzen dira: enpresako ibilgailuak gidatzen dituzten ofizialak eta ibilgailu-gidarien laguntzaileak. Lehenengoak, ibilgailuak zaindu eta mantentzen dituzte, eta baita, horietako zamaketa-lanak zuzendu eta burutzen lagundu ere. Bigarrenak, Laguntzaileak, ibilgailuaren gidariaren agindupean jarduten dira eta, ibilgailua zaindu eta mantentzearekin eta zamaketa-lanekin zerikusirik duten jarduerak burutzen dituzte.

Gidariak zein laguntzaileek hegaztiakiko, beren hondakinekiko eta deiekzioekiko kontaktua izan dezakete, eta bereziki, zamaketa-lanetan eta ibilgailuak garbitzean.

Hegazti eta beste Abere Ustiategietarako lan-hitzarmen kolektiboa arautzen duen aipatutako Ebazpenaren 34. artikuluan langileek betekizunak ezartzen dira, eta horiek gogoan izatea komeni da:

- Lana, errendimendu-maila arrunt eta zuzenaz burutzea.
- Hegaztiak, instalazioak, lanabesak, erremintak eta emandako lan-jantziak zaintzea.
- Istripuak prebenitzeko babes-neurri pertsonalak eta kolektiboak erabiltzea.
- Banakako eta taldeko erreklamazioetan, bitartekaritza- eta jurisdikzio-prozedurak errespetatzea.
- Hitzarmen honetako 3. eranskinean, lan-absentismoa murrizteko ezarritako arauak betetzea.

Gainera, langileen haustek, faltak eta zigorrak ezartzen dituen III. eranskin horretan, langileentzat eta lankideentzat segurtasun- eta osasun-neurriak ez betetzeagatik istripu-arriskua edo, instalazioetan edo merkantzietan matxura- zein sute-arriskua ekar dezakeen zerbitzu-egintzako arduragabekeria, falta larritzat hartzen da..

Amaitzeko, sektoreko langileen etengabeko prestakuntza sustatu eta bultzatzeko konpromisoa ezartzen da IV. eranskinean. Zentzu honetan gogorarazi behar da, ustiategiko edo abeletxe-

ko titularrak, langileak lanean agente biologikoen eraginpean egotearekin zerikusirik duten arriskuen aurka babesteko 664/1997 Errege Dekretuak ezartzen duen prestakuntza eta informazioa helarazteko duen betebeharra.

Instalazioak

Abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen, uztailaren 6ko 141/2000 DEKRETUAN (irailaren 3ko 169. EHAA).

Abereen azpiproduktuak jaso, garraiatu, biltegitatu, maneiatu, eraldatu erabili edo suntsitzeak gizakien edo abereentzat arriskurik izan ez dezaten, jarduera horiek guztiak, Euskal Autonomia Erkidegoan sortzen diren eta gizakiek jateko ez diren animalia-jatorriko azpiproduktuei eta sukalde-hondakinei buruzko, uztailaren 5eko 139/2005 Dekretuan (2005eko irailaren 19ko 178. EHAA) ezarritakoa betez burutuko dira.

Eskakizun hauetaz gain, kontuan izan behar da gaur egun hegazti-ustiategietan aplikatzen den teknologia gero eta hobea dela, eta honelako instalazio hauek aipa daitezke:

- Emari txiki eta handiko aireztapen-sistemak, giroa kontrolatzeko mikroprozesadoreak, aireztatzeko osagaiak.
- Kontrol automatikodun leihoak, motorreduktoreak, poleak, ...
- Berokuntza eta ur beroko sistema elektrikoak.
- Lurrunketa-panelen bidezko hozkuntza, presio handi eta txikiko langarreztapen-pitak.
- Janontzi-sistema automatikoak, kiribileko garraioa, kateko garraio automatikoa.
- Pentsua garraiatzeko motorreduktoreak.
- Aletegietarako ekipamendua eta osagaiak.
- Txitentzako edontzi-sistema automatikoak, gizentzeko oilaskoentzako janontziak, janontzi-zerrenda osoak, janontzien osagaiak.
- Alarmak eta larrialdietako sistemak.

Osasun-zentroak baimendu ahal izateko, berriz, zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioak baimentzeari buruzko, otsailaren 21eko 31/2006 DEKRETUAN (martxoaren 15eko 52. EHAA), ezarritakoa bete beharko dute.

Ustiategi bakoitzeko arriskuak ebaluatu ahal izateko, hegazti-ustiategietan datuak biltzea proposatzen du OSALANek, horretarako honako fitxa hau erabiliko delarik:

DATUAK JASO ETA EGIAZTATZEKO FITXA PRAKTIKOA	
BISITAREN DATUAK	Bisita zenb.
Teknikaria:	Eguna:

1.- ENPRESAREN DATUAK			
Izen soziala:		EJSN-93:	
I.F.Z.:	K.K.K.:	Laneko istripuen mutualitate zenb.:	
Posta elektronikoa:	Telefonoa:	Faxa:	
Enpresako arduraduna (izena eta kargua):			

2.- LANTOKIAREN DATUAK			
Sozialatearen helbidea:		Posta-kodea:	
Herria:		Telefonoa:	
Posta elektronikoa:		Faxa:	
Lantokiaren helbidea:		Posta-kodea:	
Herria:		Telefonoa:	
Posta elektronikoa:		Faxa:	
Ustiategiko langileak/egoiliarak:			
Finkoak:	Aldi batekoak:	Autonomoak:	Egoiliarak:

3.- PREBENTZIOAREN ANTOLAKETA EREDUAK			
<input type="checkbox"/> Enpresaburua arduratzen da	LAP Prestakuntza:	<input type="checkbox"/> BAI	<input type="checkbox"/> O <input type="checkbox"/> B <input type="checkbox"/> G <input type="checkbox"/> EZ
<input type="checkbox"/> Izendatutako langileak Kop.:	LAP Prestakuntza:	<input type="checkbox"/> BAI	<input type="checkbox"/> O <input type="checkbox"/> B <input type="checkbox"/> G <input type="checkbox"/> EZ
<input type="checkbox"/> Prebentzio-zerbitzu propioa:	<input type="checkbox"/> Segurtasuna	<input type="checkbox"/> Higienea	<input type="checkbox"/> Ergonomia eta Psikosoziologia <input type="checkbox"/> Osasun zaintza
<input type="checkbox"/> Kanpoko prebentzio-zerbitzua	Izena:		
Espezialitateak:	<input type="checkbox"/> Segurtasuna	<input type="checkbox"/> Higienea	<input type="checkbox"/> Ergonomia eta Psikosoziologia <input type="checkbox"/> Osasun Zaintza

4.- PREBENTZIOAREN BESTE ALDERDI BATZUK			
Arriskuaren Ebaluaketa (A.E.) buruz:		<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	(LAPLaren 16.2. eta 20. art., 31/1997 EDko II. kap. eta 864/1997 EDko 4. art.)
AEn aipatzen da oso patologiko den hegazti-influenzaren inguruko arriskuaren prebentzioa		<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	
Oso patogeno den birusagatiko hegazti-influenzaren kasu susmagarrietan esku hartuko duten langileen zerrenda:		<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	
Langile hauek honetarako serotipoko gatasun mailakoa dute: <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ			
Prebentziko Ordezkaririk	Kop.:	LAP Prestakuntza	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ Kop.:
Langileen prestakuntza, higienerako neurri bikoitzetarako:		<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	(LAPLaren 18. eta 19. art., 654/1997 EDko 12. art.)
Langileen prestakuntza, NBEei eta horien erabilerari buruz:		<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	(LAPLaren 18. eta 19. art., 654/1997 EDko 12. art.)
Langileen prestakuntza, hegazti-gripearen faktore bat susmatzekotan: <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ (LAPLaren 18. eta 19. art., 654/1997 EDko 12. art.)			

5.- DAUDEN ERREGISTRO LIBURUAK

<input type="checkbox"/>	Hegaztien sarrera eta irteeren erregistroa
<input type="checkbox"/>	Abeletzeko langileek beste hegazti-ustiategi batzuetara egindako bisiten erregistroa
<input type="checkbox"/>	Ustiategian izandako bisiten erregistroa (Eguna, Datu pertsonalak, ibilgailuaren matrikula, bisitararen arrazoa)
<input type="checkbox"/>	Tratamenduen erregistroa
<input type="checkbox"/>	Osasun kontrolen erregistroa
<input type="checkbox"/>	Garbiketa eta desinf. erregistroa
<input type="checkbox"/>	Elikagaien sarreraren erregistroa
<input type="checkbox"/>	Abeletzekoaren kudeaketa erregistroa (abeletzeko lotoak)
<input type="checkbox"/>	Hildako abereen eta horien desagormentzaren inguruko erregistroa
<input type="checkbox"/>	Simaur eta zirinen jomugaren erregistroa

6.- INSTALAZIOAREN KOKAPENA

Gerluean dagoen hegazti-ustiategira dagoen distantzia:	<input type="checkbox"/> < 500 m	<input type="checkbox"/> 500-3000 m	<input type="checkbox"/> 3-10 km
Inguruetan hegazti urlar eta migratzaileen kontzentrazio-eremuak daude:	<input type="checkbox"/> BAI	<input type="checkbox"/> EZ	

7.- USTIATEGIAREN DATUAK ETA OHARRAK

Hegazti espezieak: <input type="checkbox"/> Oiloa <input type="checkbox"/> Indioilarra <input type="checkbox"/> Ahatea <input type="checkbox"/> Ostruka <input type="checkbox"/> Zinegetikoak <input type="checkbox"/> Apaingarriak <input type="checkbox"/> Besteak:	
Beste espezie batzuk usiategiko abereen artean; Txerriak: _____ Besteak: _____	
Ustiategi-mota: <input type="checkbox"/> Hautespina <input type="checkbox"/> Ugaltzekoak <input type="checkbox"/> Hazkuntza <input type="checkbox"/> Arrautzatarakoak <input type="checkbox"/> Gizentzekoak <input type="checkbox"/> Ziklo itxia	
Ustiategi-eredua: <input type="checkbox"/> Multzoka <input type="checkbox"/> Bilduma <input type="checkbox"/> Kanpoko parkeak	
Instalazioak	Ezaugarriak
Etxebizitza	
Abere-pabiloiak	
Oilategiak	
Biltegiak	
Simaurtegiak	
Minda-putzuak	
Ur-biltegiak	
Aletegiak	
Abeletzeko makinak	Ezaugarriak
Edontzi eta janontzi automatikoak	
Moko-ebakigailuak	
Arrautza eta beste produktuen biltzaile	
Ontzikiratzekoak	
Ohantze-automatikoak	
Beste batzuk	

Nekazaritzako makinak	Ezaugarriak
Traktorea	
Minda-andela	
Hondeamakina	
Beste lanbes batzuk	

Garraiobideak	Ezaugarriak
Barrukoak	
Kanpokoak	

8. - HIGIENKO ZERBITZUAK ETA NEURRIAK *(664/1997 EDko 6. eta 7. artikulua)*

Ustiatetikoa komun eta aldagaitan daude: Aldagela Komuna eta garbigela
 Dutsa Edateko ur korrontea Xaboa Erabilera bakarrekoh lehor-materialak

Langileen beste jantzi batzuk eta kutsatuta egon daitezkeen jantzi eta ekipak bereizirik gordetzeko aukera

Lan-jantziak enpresan bertan garbitzen dira edo behar bezala informatutako beste enpresa batean

Lehen sorospentarako botila. Oharrak:

9. - NORBERA BABESTEKO EKIPAMENDUAK (NBEak) *(664/1997 EDko 6. eta 7. artikulua)*

NBEen behar besteko stocka. (10 egunetarako) Oharrak:

Amas-babesleak (FFP2 edo 3). Oharrak:

Lan-jantzia (mota: 5 edo 7). Oharrak:

Eskularru estanko eta gogorak. Oharrak:

Botak. Oharrak:

Betaurrekoak. Oharrak:

Beste batzuk: Oharrak:

10. - USTIATEGIARI BURUZKO BIOSEGURTASUN DATUAK

Itxiltura al dago ustiategiaren inguruan? BAI EZ Oharrak:

Ibia al dago ibilgailuen sarrera kontrolatzeko? BAI EZ Oharrak:

Putzua edo arkoa al dago ibilgailuak desinfektatzeko? BAI EZ Oharrak:

Oinak garbitzeko putzua al dago? BAI EZ Oharrak:

Pertsonek desinfektatzeko beste sistemaren bat al dago? BAI EZ Oharrak:

Pentsu-kamioak ustiategiaren eremuan sartzea beharrezkoa da? BAI EZ Oharrak:


Leihotetan txorien aurkako chuna al dago? BAI EZ Oharrak:

Pabiloi bakoitzean jantzi eta oinetako ezberdinak erabiltzen dira? BAI EZ Oharrak:

Kanpoko kokatutako ur-biltegiak beste hegazti batzuen kontaktutik babestuta daude? BAI EZ Oharrak:

11.- JARDUERAK ETA HEGAZTI, PRODUKTU, AZPIPRODUKTU ETA HONDAKINEKIKO KONTAKTU MAILA						
(*) Kontaktu mailari buruzko oharra						
1	Zuzena, iraunkorra eta ohikoa					
2	Zuzena, laburra eta ohikoa					
3	Zuzena, iraunkorra eta noizbehinkakoa					
4	Zuzena, laburra eta noizbehinkakoa					
5	Zeharkakoa, laburra eta ohikoa					
GARBIKETA ETA DESINFEKZIOA					KONTAKTU MAILA (*)	
	1	2	3	4	5	
HEGAZTIEN ERABILERA					KONTAKTU MAILA (*)	
	1	2	3	4	5	
HEGAZTIEN PRODUKTUEN ERABILERA					KONTAKTU MAILA (*)	
	1	2	3	4	5	
AZPIPRODUKTU ETA HONDAKINEN ERABILERA ETA DESTINOA					KONTAKTU MAILA (*)	
	1	2	3	4	5	

3. Enpresaburuaren LAPeko betebehar legalak



Eskuliburu honetako kapitulu honen helburua, arrisku biologikopean dauden langileen segurtasuna eta osasuna babesteko, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiak enpresaburuari ezartzen dizkion betebeharrak gogoraztea da. Betebehar horiek aztertu baino lehen, laneko arriskuen prebentzioari buruzko legearen (LAPL) aplikazio-eremuan dauden enpresaburuak eta langileak ezartzea, eta Espainia eta Europa mailan dagoen araudiaren laburpena egitea komeni da.

3.1 LAP legean barne hartutako enpresaburuak eta langileak

Langileek laneko segurtasun- eta osasun-arloan *behar bezalako babes* izateko duten *esku-bidearen ingurukoak* arautzen ditu, funtsean, legeak eta, horren ondorioz, enpresaburuak langileak laneko arriskuen aurrean babesteko duen betebeharra. Honela, langileez eta enpresaburuez aritzean, horien arabera ulertu behar dira, eta gainera, bi araubide ezberdinen arabera, hau da: batetik, izaera administratibo eta estatutuen arabera duten langile zibilena eta horiek lanleku duten Herri Administrazioarena, eta bestetik, kooperatibetako bazkideena eta horiek lanleku duten elkarte kooperatiboena.

Honako bi talde hauek ezarri ahal dira, hildako zein bizirik dauden hegaztiekin eta, bereziki, horien deiekzioekin eta hondakinekin kontaktua izate eskatzen duten lan-eremuetan jarduteagatik, hegazti-influenzak ekar ditzakeen arriskuen menpe dauden langileen artean:

- Lehena, hegaztien eta eratorrien hazkuntza-jardueran *zuzenean* esku hartzen duten profesionalena, hala nola: hegazti-ustiategi edo abeletxe batean behar egiten duten langileak.
- Bigarrena, jarduera nagusiaren inguruan, *zeharka* betetzen diren lanetaz arduratzen den langileena, esaterako: hornigaietz arduratzen diren langileak, hegaztiak, arrautzak eta hondakinak garraiatzen dituztenak, hegaztiekin zerikusirik duten profesionalak (uztai-jartzaileak, sexu-bereizleak, ...), albaitariak eta laborategietako langileak, ikuskatzaileak, etab.

Infektatutako pertsonekin kontaktua duten langileak, aurreko kapituluan aipatutako langile-kolektiboak lirateke.

3.2 Arrisku biologikoko eraginpeko arloan aplika daitekeen araudia Europako araudia

a) Lantokian agente biologikoen eraginpean egoteari buruzko orokorra

Kontseiluaren 90/679/CEE Zuzentaraua, 1990eko azaroaren 26koa, lantokian agente biologikoen eraginpean egoteari loturiko arriskuen aurka langileak babesteari buruzkoa. Agente biologikoen eraginpean egoteari loturiko arriskuen aurka langileak babesteari buruzko maiatzaren 12ko 664/1997 Errege Dekretuaren bitartez ezarri zen espainiar estatuaren ordenamendu juridikoan zuzentarau hau.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren irailaren 18ko 2000/54/CEE Zuzentaraua, lantokian agente biologikoen eraginpean egoteari loturiko arriskuen aurka langileak babesteari buruzkoa. Zuzentaru honetako 21. artikulua bitarteko, aurreko paragrafoan aipatutako zuzentaru, Kontseiluaren 1990eko azaroaren 26ko 90/679/CEE, indargabetu zen. Indarrean dagoen zuzentaru hori ez da espainiar ordenamendu juridikoan ezarri.

b) Hegazti-gripeari buruzkoa

Kontseiluaren 92/40/CEE Zuzentaru, 1992ko maiatzaren 19koa, hegazti-influenzaren aurkako erkidegoaren neurriak ezartzeko dena. Zuzentaru honen bitartez, hegazti-influenzaren hedapenaren ondorioz, abereen osasuna eta nekazaritza-sektorean izan daitezkeen ondorioak babestu nahi dira.

Kontseiluaren 2005/94/CEE Zuzentaru, 2005eko abenduaren 20koa, hegazti-influenzaren aurkako erkidegoaren neurriei buruzkoa eta 92/40/CEE Zuzentaru indargabetzeko dena. Zuzentaru hau, 2007ko uztailaren 1a baino lehen ezarri beharko dute euren ordenamendu juridikoetan Estatu kideek.

Espainiako araudia

LAPari (31/1995 Legea eta bere aldaketak: 39/1997 ED, 171/2004 ED, etab.) buruzko araudirik ezagunenaz gain, honako hauek izan behar dira kontuan:

a) Lantokian agente biologikoen eraginpean egoteari buruzko orokorra:

664/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 12koa, agente biologikoen eraginpean egoteari loturiko arriskuen aurka langileak babesteari buruzkoa.

b) Hegazti-gripearen aurkako neurriei buruzkoa:

1025/1993 Errege Dekretua, ekainaren 25koa, 92/40/CEE Zuzentaru bereganatuz, hegazti-influenzaren aurkako erkidegoaren neurriak ezartzeko dena.

APA 2442/2006 Agindua, uztailaren 27koa, hegazti-influenzaren aurkako berariazko neurriak ezartzeko dena.

APA/2556/2006 Agindua, abuztuaren 3koa, hegazti-influenzaren aurkako berariazko neurriak ezartzen dituen uztailaren 27ko APA/2442/2006 Agindua aldatzen duena.

Euskadiko araudia

84/1993 Dekretua, martxoaren 30koa, Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroa sortu eta arautzen duena.

444/1994 Dekretua, azaroaren 15koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gune zoologikoen baimenari, erregistroari eta kontrolari buruzkoa.

141/2004 DEKRETUA, uztailaren 6koa, abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituena.

139/2005 Dekretua, uztailaren 5koa, Euskal Autonomia Erkidegoan sortzen diren eta giza-iek jateko ez diren animalia-jatorriko azpiproduktuei eta sukalde-hondakinei buruzkoa.

Agindua, 2005eko azaroaren 2koa, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan hegazti-gripe izeneko animalien gaixotasunetik babesteko zuhurtasuneko neurriak ezartzekoa.

31/2006 Dekretua, otsailaren 21koa, zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioak baimentzeari buruzkoa.

Agindua, 2006ko martxoaren 20koa, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan hegazti-gripe izeneko animalien gaixotasunetik babesteko kaute-lazko neurri osagarri berriak ezartzekoa.

1112/2006 Foru Agindua (Bizkaia), martxoaren 20koa, hegazti-influenza kontrolatzeko zuhurtziazko neurri osagarriak ezartzeko dena.

81/2006 Dekretua, apirilaren 11koa, gune zoologikoei buruzkoa.

3.3 LAP arloan enpresaburuak dituen betebeharrak orokorrak

Enpresaburuari babesteko dagokion eginbeharra betetz, laneko arriskuei aurrea hartu behar da, enpresan, prebentzio-ekintza ezarriz eta langileen segurtasuna eta osasuna babesteko beharrezkoak diren neurriak hartuz. Horretarako, prebentzio-plana burutu, arriskuak ebaluatu, langileei informazioa, kontsulta eta partehartzea bideratu eta prestakuntza eskaini, larrialdietan eta berehalako arrisku larriaren jarduteko modua ezarri eta osasun zaindu behar du, eta hori guztia, LAPari buruzko araudian aurreikusitako prebentzio-antolaketa eratuz

Lege honetan ez dira bakarrik ezartzen enpresaburuak prebentzioko eginkizuna betetzeko egin behar duena, prebentzio-ekintza zein printzipioen arabera ezarri behar dena ere adierazten da, hala nola: arriskuak saihestea; ekidin ezin diren arriskuak ebaluatzea; arriskua bere sorburuan etetea; lanpostuen kontzeptua nola eratua dagoen ikusirik, lana pertsona bakoitzari egokitzea, eta, taldeak, lan metodoan eta produkziokoak hautatzerakoan, lana aspergarria eta errepikakorra izan ez dadin begiratzea, eta, osasunean izan dezakeen eragina ahalik eta txikiena izango den modua egitea; bilakaera tekniko aintzakotzat hartzea; lan arriskutsuaren ordean, arrisku txikiagoa edo arriskurik ez duena ezartzea; prebentzio-planak egitea, teknika, lanaren antolaketa, lan baldintzak, gizarte harremanak eta ingurugiro faktoreen eragina ahal den erarik koherenteenean biltzen saiatuz; babes kolektiboa bakoitzaren babesaren gainetik jartzeko neurriak hartzea.

Bestalde, lanleku berean langileak dituzten enpresaburuaren artean lankidetzaren egon behar du, 171/2004 EDk garatutako LAParen 24. artikulua ezarritakoaren arabera. Zeregin hori, gainera, lanleku horretan jarduten diren langile autonomoek ere bete beharko dute.

Jorratzen ari garenari aplikatuz, garraio, garbiketa, pentsu-horniketa, eta hegazti-ustiategiaren inguruko zerbitzuetako enpresaburuek, ustiategiaren enpresaburu titularrarengandik, lantokiaren berezko arriskuei buruzko informazioa (jarduerak hasi baino lehen, nahikoa eta idatziz) jaso beharko dute, kanpoko langile horien segurtasuna eta osasuna eraginkortasunez babesteko.

Era berean, larrialdiren bat ematen denean ezarri behar diren neurrien inguruko jarraibideak jakinarazi beharko dizkie beste enpresaburuei, eta horien artean, hegazti-influenzaren fokua izatekotan, birusa beste eremu batzuetara hedatzea saihesteko hartu beharreko funtsezko higie-ne-neurriak.

Beraz, beste enpresaburu baten jabetzako lantokian jarduten diren enpresaburuek jasotako informazioa kontuan izan eta, dagokien arriskuen ebaluazioan eta prebentzio-ekintzaren plan-gintzan txertatu beharko dute. Lantokiko enpresaburu titularrak kontratatuta horretan jarduten diren enpresaburuek, euren langileei helarazi beharko diete jasotako informazioa.

3.4 Arrisku biologikoaren eraginpeko arloan, enpresaburuek berriaz bete beharreko zereginak

Agente biologikoen eraginpean egoteari loturiko arriskuen aurka langileak babesteari buruzko maiatzaren 12ko 664/1997 Errege Dekretuko II. Kapituluan zehaztu eta, Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalak argitaratutako Gidaliburu Teknikoan azaltzen dira.

Laburbilduta, honako hauek dira enpresaburuaren zereginak:

- Kontsulta eta partehartzea gauzatzea.
- Arriskuak identifikatu eta ebaluatzea: arriskuak ezabatzeko eta murrizteko hartu behar diren neurriak.
- Higie-ne-neurriak hartzea.
- Langileen osasuna zaintzea.
- Prebentzio-ekintza dokumentu batean jasotzea.
- Lan-arloko aginteei jakinaraztea.
- Agintari eskudunei honen berri ematea.
- Langileei informazioa eta prestakuntza bideratzea.

Eskuliburu honetan zehaztasun handiagoz eta aparteko kapitulu jorratuko dira prebentzio-neurriak. Hori dela-eta, honako kapitulu honetan gorago aipatutako gainerako betebeharrak baino ez dira aintzat hartuko.

3.4.1 Langileei kontsulta egitea eta langileen partehartzea

Aparteko garrantzia dauka lan-arloan langileei kontsulta egitea eta horien partehartzea, eta bereziki, laneko arriskuen prebentzioaren ingurukoan. Lan-harremanak ezartzeko modu berri honi, aipamen berezia eskaintzen zaio LAPlan.

Profesionalki hegazti-gripearen birusaren arriskupeko eraginpean egon daitezkeen langileen segurtasunerako eta osasunerako arriskuek, oraindik arreta handiagoa eskatzen dute, ahal bada behintzat, enpresaburuak egin behar dituenenei buruzko erabakiak hartu baino lehen, langileei eta, egotekotan, ordezkariari dagokion kontsulta egin beharko dielako.

LAPLaren 33. artikulua arabera, enpresaburuak galdeketa egingo die langileei, behar adinako aurrerapenez, hartu beharreko erabaki hauen inguruan:

- Lanaren plangintza eta antolamendua, teknologia berriak sartzea eta, ekipoak aukeratzearen ondorioz horiek langileen segurtasun eta osasunerako izan ditzaketen ondorioei buruzko oro, laneko baldintzak aukeratzea eta moldatzea eta, laneko ingurumen-faktoreen eragina.
- Enpresan osasuna babesteko eta laneko arriskuei aurrea hartzeko egiten diren jarduerak antolatu eta lantzea eta, jarduera horietaz arduratuko diren langileak izendatzea, edo kanpoko prebentzio-zerbitzu batera joko den erabakitzea.
- Larrialdietarako neurrien ardura izango duten langileak aukeratzea.
- Legeak agintzen dituen informazio eta dokumentazio prozedurak zehaztea.
- Prebentzioaren gaian behar den prestakuntzaren proiektua eta antolamendua.
- Langileen segurtasunean eta osasunean eragina izan dezaken edozein ekintza.

Enpresan prebentzioa antolatzeko erabili behar den eredia antolatzerakoan, hegazti-gripearen birusa 3. eta 4. taldeko agente biologikotzat hartzekotan, kontuan izan behar da, hegazti-ustategietako jarduerak Prebentzio Zerbitzuetako Erregelamenduaren I. Eranskinean katalogatuko beharko liratekeela eta enpresaburuak *berak ezingo lukeela, bakarrik, prebentzio-ekintza garatu.*

3.4.2 Arriskuak identifikatu eta ebaluatzea. Metodologia-proposamena.

Lantokian agente biologikoen eraginpean egoteak izan ditzakeen arrisku bat edo gehiago identifikatu ondoren, ekidin ezin direnei buruz izan ezik, horien izaera, arrisku-maila eta langileak horien eraginpean zenbat denbora eman behar duten ezarri eta ebaluatu egin behar direla xedatzen du aipatutako 664/1997 ED horrek, 4. artikuluan.

Arriskuen ebaluazioa aldizka egingo da, eta langileak agente biologikoen eraginpeko egoeraren baldintzak aldatzen diren bakoitzean eta, langile batengan, lantokian agente biologikoen era-

ginpean egotearen ondorioz sortutako infekzio edo gaixotasun susmagarri bat detektatzen denean.

Agente biologikoen eraginpean egotearen ondoriozko arriskuen identifikazioan eta ebaluazioan, elkarren segidako bi etapatan egin daitezkeen azterketak eta jarduerak burutu beharko dira:

- a) Arrisku biologikoen identifikazio teorikoa, hau da, ondorengo hauen inguruan dagoen informazio zientifikoa biltzea: eraginaren iturriak, gordailuak, litezkeen azterlan epidemiologikoak, birulentzia-maila (gutxienezko infekzio-dosia (GID) adierazita, hots, infekzioa sortzeko behar den agente biologikoaren kopuru txikiena), zabaltzeko erraztasun-maila, infekzioen larritasun-maila eta, aurrea hartzeko edo sendatzeko behin-behineko tratamenduak.

Irizpide hauetan oinarritu da Errege Dekretuko II. Eranskinean agente biologikoei buruz jasotako den sailkapena, eta beraz, erreferentziatzat hartzea gomendatzen da.

- b) Arriskupeko lanpostuen eta eraginpeko langileen ebaluazioa. Langileen banakako ezaugarrien eragina izan behar da kontuan, eta beraz, zaila da lanpostuak talde "homogeneoak" baliran ebaluatzea, eta ez litzateke inoiz ere egin behar.

Agenteen sailkapenak infekzio-arriskua baino ez duenez kontuan hartzen, eta ebaluazioak ondorioaren osotasuna kontuan hartu behar duenez, aintzat izan behar dira horien arriskuari erants dakizkiokeen ondorio immuno-alergikoak eta toxikoak:

- Transmisio-bideak ezagutzea: aerosolak, zuzeneko eta zeharkako kontaktua, lesioak, bektoreak, bitarteko ostalariak ...
- Sarbideak: arnasketa- eta digestio-aparatua, azala eta mukosak, zauriak, bide parenterala, ...
- Maneiatzen den materialean egon behar den agentearen bolumena edo kontzentrazioa.
- Epidemiologia-datuak: agentearen presentzia eta hedapen-maila, infekzioen maiztasuna, biztanleen immunizazioa. Horrekin zuzenean loturik, lantokian detektatu diren gaixotasunak, edo gaixotasun horiek gaixotasun profesionalen zerrendan (1995/1978 ED, Gizarte Segurantzaren Sistemako Gaixotasun Profesionalen koa-droa onartzeko dena) jasotakoak.
- Laneko giro-baldintzetan agenteak bizirauteko duen erresistentzia (erradiazio ultramorea, lehorketa, ...).
- Erresistentzia anitzeko anduiak egoteko aukera.
- Desinfektatzeko aukera.
- Ezaugarri pertsonalen eta, aurretiazko patologiengatik, sendagaiak hartzeagatik,

immunitate-aparatuko nahasteengatik eta haurdun edo edoskitzen egoteagatik eman daitekeen egoera biologikoaren ondorioz, bereziki sentiberak diren langileen arrisku erantsia.

Ezer baino lehen adierazi behar da, Gaixotasun Profesionaltzat hartuta dagoela, lantokian hegazti-gripearen birusaren eraginpean egoteagatik langileek beregana dezaketen gaixotasuna.

Izan ere, 1299/2006 EDan ezarritakoaren arabera, patologia hau "profesionaltzat" jo genezake, "agente biologikoek eragindako gaixotasun profesionalak" izeneko 3 taldean, eta zehazki honako hauetan:

3B01: "*Abereen edo horien produktuen eta gorpuen bitartez gizakiari kutsatutako gaixotasun infekziosoak edo parasitoek eragindakoak*", honako jarduera hauek barne hartzen dituela: Nekazariak, Abeltzainak, Abere-hiltzaileak, Larruginak, Zurratzaileak, Albaitariak, Larruzko jantzien diseinugileak, Abereen hondakinak manipulatu, kargatu, deskargatu, garraiatu eta erabiltze lanak, Artzainak, Osasun-langileak, Laborategietako langileak, Abereak zaindu, bildu, hazi eta garraiatzeko langileak, Landa-inguruneko langileak, Harakinak, Hegazti-hazleak, Abere-dendetako langileak, Arriskutsua izan daitekeen ingurunean zauritzeko arriskua duten lanak, Gizaki edo abereen gorozkiak manipulatzeko lanak, Bordariak, Ehiza-esparruko zaindariak, Baso-langileak, Landa-langileak, Arroztietako segalariak, Txerrizainak, Estolderietako langileak (arratoiak), Behizainak, Zaldihaziendetako langileak, Natura-zaindariak, Ordena publikoko langileak, Animalien gorozkiak manipulatzea edo horiekin kontaktua izatea eskatzen duten lanak, hala nola: abeltzainak, albaitariak, abere-dendetako langileak.

3A01: "*Infekzio-arriskua egiaztatuta duten prebentzio, osasun-zaintza eta jardueretan lan egiten duten langileengan sortutako gaixotasun infekziosoak (664/1997 EDko I. taldean barne hartutako mikroorganismoak izan ezik)*", honako jarduera hauek barne hartzen dituela: Erakunde itxietako osasun-langileak eta laguntzaileak, langile ez-sanitarioak, Asistentzia edo gaixoak zaintzeko zentroetako langileak, hala erakunde itxietakoak nola etxez etxetakoak, Ikerketa eta analisi klinikoetako laborategietako langileak, Giza odola atera, manipulatu edo erabiltzeko lanak, Odontologoak, Sorospen-langileak, Espetxeetako langileak, Ordena publikoko langileak¹¹.

Orthomyxoviridae taldeko A, B eta C motako influenza-birusa, 664/1997 EDko "Agente biologikoen Sailkapena" izeneko II. eranskinean, 2. taldean sailkatuta dago.

Bestalde, Zuzentarauaren transposizioaren ondoren garatutako gertaerak (H5N1 birusa barreiatzeak, beste espezie batzuetara mugatutako jauziak, gizakiengan lehen kasuak...) adierazten du, aipatutako birusa dagoeneko ez datorrela bat 664/1997 EDan jasotako definizio batekin ere, izan ere, ED horretako sailkapen-zerrenda ez da oraindik eguneratu. Une hauetan, birusa ez dator bat 2. taldearekin, aitzitik, 2., 3. eta 4. taldeetako definizioen elementuekin dator bat: gaixotasun larria eragin dezake, kolektibitatean barreiatzeko arriskua txikia da eta oraindik ez dago tratamendu eraginkorrik.

11) Jakina, aurreko zerrendan aipatutako jarduera guztiek ez dute zertan hegazti-gripearen litekeen infekzioarekin zerikusirik izan.

Hala ere, Zuzentarauak, sailkapen-zerrendak eguneratu bitartean, egoera hauek arintzeko tresna bat dauka. Horrela, Zuzentarauaren 18.4. artikularen arabera, " (...) ebaluatu beharreneko agente biologikoa 2. artikuluko D) hizkian definitutako talderen batetan argi eta garbi sailkatzerik ez badago, ondo-ondoko arrisku-mailako taldean sailkatu beharko da."

Eskura ez dauden gutxienezko buruzko legeria denez, arriskuen ebaluatzailearen betebeharrak, gaur egun, H5N1 birusa "3. taldean" sailkatzea dela, eta gainera, etorkizunean 4. taldera bilakatzeko aukerak dituela.

Bigarren etapan, lanpostuen eta eraginpeko langileen ebaluazioa egin beharko litzateke, eta beraz, honako hauek barne hartuko lituzkeen azterlan sakona egin:

- Lanpostuaren deskribapena.
- Ohiko prozesuan zein istripu bat gertatzen denean, infektatutako materiala barreiatzeko dagoen aukera.
- Sarbideak: zaurien bitartez, kutsatutako isurkarien zipriztinekiko kontaktuan, aerosolak inhalatuz...
- Eraginpeko egoeraren maiztasuna.
- Antolamenduaren eta lan-prozeduren inguruko faktoreak.
- Langileak, hasiera batean duen prestakuntzaren zein dagokion lanpostuari buruz jasotakoaren arabera, litezkeen arriskuez dakiena.
- Prebentzio-neurriak ezartzeko aukera, eta horien aplikazioaren jarraipena egitea.
- Lanpostuko agente biologikoa identifikatzea edo horren nondik norakoak jakiterik dagoenean, eragin-egoeren zenbaterainokoa ebaluatzeko aukera.

Arriskua ustekabeko mikroorganismoen eraginpeko (dagokigun hau bezalaxe) jardueretan ematen denean, zailagoa izango da arriskuen ebaluazioa egitea, gorago aipatutako puntuak aukera bihurtuko baitira.

c) Ebaluazio-metodoak

Agente biologikoen eraginpean egoteari loturiko arriskuak ebaluatu eta prebenitzeko LSHINaren Gidaliburu Teknikoko 3. eranskinean ("Lantokietako agente biologikoak identifikatu eta ebaluatzea"), horiek identifikatu eta ebaluatzeko irizpideak adierazten dira.

Honelako kasuetan, identifikazioaren prozeduran, agente biologikoen eragina mailakako (globaletatik banakakoetara) adierazleak aztertuz burutu beharko litzatekeela proposatzen du.

Adierazle ezberdinen artean, honako hauek aipatzen dira: "Talde Adierazleak" (IGR), agente biologikoen eta/edo horien produktu eratorrien talde homogeen gisara, eta "Banakako Adierazleak" (IIN), agente biologiko zehatzen inguruan arazo bereziak aurkitu, eta ahal denean, espezieak banaka ikertzerik badago, hala nola: *Pseudomona aeruginosa*.

Honekin batera taula bat azaltzen da, horretan, adibide gisa, hainbat lan-jarduera eta parametro neurtuko direla. Aipatutako jardueren artean, Abereen maneiatzaileena azaltzen da. Hegazti-gripearen birusa aipatzen ez bada ere, IGR baten (*Orthomyxoviridae* taldeko A, B eta C motako influenza) aurrean gaudela esan daiteke, eta/edo IIN (Gaixotasunak eragiten dituzten patogenoak) kasu baten aurrean).

Dena dela, agente biologikoei loturiko arriskuak ebaluatzeko proposatutako azterketak egiteko, alde aurretik, horien laginak hartu beharko direla adierazten da, langin horiek, bioaerosol gisa zuzenean aztertu edo, agente biologikoen metabolito edo azaleko kutsatzaile moduan ikertzeko, baldin eta azken hauetatik aztertu beharreko biologia-zama globala adierazgarria bada.

Jarraian, agente biologikoak neurtzeko hiru aukera azaltzen dira:

- Agente-kopurua guztira eta/edo landu daitezkeen mikroorganismo-kopurua agerian jarriko dituzten metodoak.
- Agente biologikoetako zelula-elementuak agerian jartzen dituzten metodoak.
- Metabolito primarioak zein sekundarioak zenbatzen dituzten metodoak.

Nolanahi ere, egun, proposatutako metodologia horrek mugak dituela adierazten aipatutako Gidan, agente kimikoekin gertatzen den ez bezala, dosi-ondorioa/bioaerosolen erantzuna arteko harremanak modu fidagarrian ezartzeko *behar beste datu ez dagoelako*, eta beraz, ezinezkoa da, agente kimikoen ildoari jarraituz (VLA, TLV), ingurumen-balioen mugak ezartzea).

d) Ebaluatzeko metodologia-proposamena

LSHINaren Gidaliburuko metodologia aplikatzeko ezinbestekoa izango zen kontzentrazioa-kutsapena lotzen dituen parametroa ez dagoenez, helburuekin bat etorritz, nahikoa konfiantzazko emaitzak lortzea ahalbide dezaketen ebaluazio-arauak emango dira Eskuliburu honetan. Nolanahi ere, kontuan izan behar da, arau horien xedea, une honetan, eta osasun- eta zientzia-informazioan oinarrituz, abereak gizakia kutsatzea ustez galarazten duten prebentzio- eta higie-ne-neurriak hartzeko irizpideak ematea dela.

Indarrean dagoen araudiari, hots, LAPL eta agente biologikoei buruzko EDari jarraiki, prebentzio-neurriak (murriztekoak eta higie-ne-neurriak) hartzeko plangintza bat egin beharko du enpresaburuak), zentzuzko epe batean, egoera susmagarri bati, edo fokua egiaztatzekotan, aurre egiterik izan dezan.

Ondorengo proposamen hau prestatu da, prebentzio-jarduerez arduratzen diren teknikari eskudunentzat tresna izan dadin.

Batetik, LAParen 4. artikuluan arrisku-ebaluazioaz emandako definizioa hartzen da erreferentzia gisara ("*Arrisku bat larritasunaren ikuspuntutik baloratzeko, kaltea gertatzeko probabilitatea eta kaltearen ondorioak baloratu behar dira*") eta, bestetik, kaltea gertatzeko aukera eta ondorioen tamainari buruz LSHINaren Eskuliburuan emandako izendapenak erabiliko dira: Jasanezina (JE), Garrantzitsua (G), Neurrikoa (N), Jasangarria (JG), eta Garrantzirik gabea (GG)

Abereak birusa duen ala ez ziurtasunez ez jakitea da hasierako arazoa, abereengan gaixotasunak inkubatzen ematen duen denbora dela-eta, ezin delako inoiz, aldezturik, hegazti gaxorik ez dagoenik suposatu eta, beraz, arriskurik ez dagoenik.

Dena den, beti izango dira kontuan ondorengoak bezalako *faktoreak*:

- Lanean eraginpean dauden langile guztien berezko ezaugarriak.
- Hegaztien osasun-egoera, gaixotasun hau dela-eta.
- Hegaztiekin lan egiten duten langileen ukipen-maila.
- Hegazti-ustategian hartu diren prebentzio- eta higiene-neurriak.

Langileak kutsatua izateko duen aukera-mailari dagokionez, langileen Osasun Zaintzaz arduratzen den lan-medikuak ezarri beharko du, eta epidemiologia-datuetan oinarriturik, hegaztiekin eta horien hondakinekin jarduteko zein langile diren gai/ez gai, eta aldi baterako edo behin betiko erabakia den.

Arriskua ebaluatzean kontuan izan beharreko faktoreak

Hegaztiekin kontaktuan *lan egiteko gai diren* eraginpeko langileei aplikatuko zaizkie, atal honetan proposatzen diren hegazti-gripearen birusaren eragina ebaluatzeko jarraibideak:

- Hegaztien osasun-egoera, gaixotasuna dela-eta.
- Hegaztiekin lan egiten duten langileen ukipen-maila.
- Hegazti-ustategian hartu diren prebentzio- eta higiene-neurriak.

Hegaztien *osasun-egoeran*, berriz, ez da baztertu behar, hegazti-gripearen birusarekin kutsatzeko edo kutsatuta egoteko aukera. Litezkeen bi egoera aintzat hartzen dira:

- Fokuaren susmoa edo egiaztapena.
- Fokurik eza.

Eskura dagoen albitari-agiri teknikoetan adierazten den bezalaxe, hil edo bizirik dauden hegaztietan agertzen diren hainbat seinaleren eta/edo hegaztien portaeraren arabera baloratu ahal izango da birusaren susmoa dagoen ala ez.

17. orrialdean jasotako baldintzarik, zein fokua egiaztatzen duten beste batzuk, eman ezean, fokurik ez dagoela ulertu ahal izango da.

Langileen hegaztielikiko kontaktu-mailari dagokionez, eta langileek garatutako jardueraren arabera, bost ukipen-maila hartuko dira kontuan:

- 1) Zuzena, iraunkorra eta ohikoa.
- 2) Zuzena, laburra eta ohikoa.
- 3) Zuzena, iraunkorra eta noizbehinkakoa.
- 4) Zuzena, laburra eta noizbehinkakoa.
- 5) Zeharkakoa, laburra eta ohikoa.

Langileek garatzen duten jardueraren arabera izango da ukipen-mailek koadro horretan izango duten kokapena. Adibidez, haztegi barruan, elikatzen, arrautzak jasotzen, garbitzen eta abarretan jarduten diren langileak, lehenengo taldean kokatuko dira, eta hegaztiekin zuzenean behar egiten ez duten administrazio langileak, berriz, bosgarrenean.

Lantokian eraginpean dauden langile guztien jardunaren berri izatea, arriskuen ebaluazioa egiten duen teknikariaren ardurapekoa izango da, eta zuzenean jarduera horiek aztertu ondoren, langile bakoitza proposatutako zein taldetan kokatuta dagoen ezartzea. Jardueran edo infekzioaren fokuekiko ukipen-mailan aldaketarik egon den kontuan izan beharko da, eta ondorioz, sailkapenak aldatu. Zalantzarik izatekotan, eragin-egoerarik okerreanean sailkatuko da.

Azkenik, birusarekin kutsatzeko arrisku-egoeran gogoan izan behar den hirugarren faktorea, *prebentzio- eta higiene-neurriak hartuta dauden ala ez aztertzea* izango da. Neurri horiek honako hauek izan daitezke:

- 1) Pertsonentzako higiene-neurriak: ura, xaboa, erabili eta botatzeko (erabilera bakarreko) paperezko toailak eta hondakinetarako edukiontziak.
- 2) Banakako prebentzio-neurriak (NBEak): maskara egokiak, berriro erabiltzekoak eta erabilera bakarrekoak; lan-jantziak, berriro erabiltzekoak eta erabilera bakarrekoak; berriro erabiltzeko eta erabilera bakarreko txanoak eta eskularruak; botak edo bota-estalkiak, etab.
- 3) Fokuaren susmoa ematekotan, izendatutako langileak.
- 4) Ibilgailu eta oinetakoetarako higiene-neurriak: gurpilak eta oinetakoak garbitzeko putzuak.
- 5) Instalazioetako prebentzio-neurriak: bitarteko ganbera edo eskusa, aldagelak, jantziarako edukiontziak, NBEetarako edukiontziak, erabilera bakarreko NBEak botatzeko edukiontziak.

- 6) Prebentzio-neurriak, higiezenkoak zein banakako babesekoak, betetzen direla etengabe egiaztatuko duen arduraduna izatea.

Kasu bereziak (1):

- *Diagnostikoko laborategiak ez diren osasun- eta albitari-establezimenduak.*

Diagnostikoko laborategiak ez diren osasun- eta albitari-establezimenduen kasuan, horietan garatzen diren jardueren datxezkien arriskuekin izan beharko da kontu berezia eta, batez ere, gizakiengan eta animaliengan nahiz horiengan jatorri duten materialetan agente biologikorik dagoen susmoarekin, eta egotekotan, gerta litezkeenekin.

Eraginpeko langileen segurtasuna eta osasun-babes egokia bermatzeko behar beste neurri hartuko dira zerbitzu horietan. Neurri horiek, besteak beste, honako hauek ondorengo hauek barne hartu beharko dituzte:

1. Deskutsatzeko eta desinfektatzeko prozedura egokiak zehaztea, eta
2. Kutsatutako hondakinak arriskurik gabe maneiatu eta suntsitzea ahalbidetuko duten prozedurak ezartzea.

Bestalde, 3. edo 4. taldeko agente biologikoen batek kutsatuta egotearen susmoagatik edo kutsatuta daudelako hartzen dituzten gaixo edo abereen isolamendu-zerbitzuetan, 664/1997 EDko IV. eranskinaren A zutabean azaltzen diren euspen-neurrien artekoak aukeratuko dira, infekzio-arriskua ahalik eta gehien murrizteko.

Kasu bereziak (2):

Industria-prozeduretan, laborategietan eta abereen lokaletan aplikagarriak diren neurri bereziak.

1. Laborategietan, diagnostiko eta ikerketa laborategietan barne, eta 2., 3. edo 4. taldeko agente biologikoekin nahita kutsatutako laborategiko abereak zein agente-eramaileak direla susmagarri direnak hartzeko lokaletan, ondorengo ataletan ezarritako neurri egokiak hartuko dira:

- a) Ikertu, garatu, irakatsi edo diagnostikatzeko helburuaren, 2., 3. eta 4. taldeko agente biologikoen maneiatze-lanak hartzen dituzten laborategietan, 664/1997 Errege Dekretu honetako IV. eranskineko euspen-neurriak hartu beharko dira, infekzio-arriskua ahalik eta gehien murrizteko.
- b) 4. artikulua adierazten duen ebaluazioaren emaitzaren arabera, Errege Dekretu honetako IV. eranskineko neurriak hartu beharko dira, arrisku-mailan oinarrituta, agente biologikoak fisikoki eusteko behar den maila ezarri ondoren.

Agente biologiko bat maneiatzea eskatzen duten jarduerak, honela burutuko dira:

- Bakar-bakarrik, 2. taldeko agente biologiko bati dagokion 2. euspen-mailaren araberako lan-eremuetan, gutxienez ere.
- Bakar-bakarrik, 3. taldeko agente biologiko bati dagokion 3. euspen-mailaren araberako lan-eremuetan, gutxienez ere.
- Bakar-bakarrik, 4. taldeko agente biologiko bati dagokion 4. euspen-mailaren araberako lan-eremuetan, gutxienez ere.

2. Gizakia gaixo dezaketen agente biologikoen susmopeko materialak maneiatzen dituzten laborategietan, material horiekin jarduteko, hau da, agentea kultibatu edo kontzentratzeko asmoa ez badago, gutxienez ere, 2. mailako euspen-neurriak ezarri beharko dituzte. Dagokionean, 3. eta 4. maila erabiliko dira, betiere, beharrezkoak direla jakin edo suposatzen denean. Hala ere, hainbatetan, osasun-agintariek ezarritako jarraibideek euspen-maila txikiagoa adierazten badute, ez dira maila horretako neurriak hartu behar izango.

3. Errege Dekretu honetako aurreko Kapituluetan ezarritakoaren kaltetan gabe, 2., 3. eta 4. taldeko agente biologikoak erabiltzen dituzten industria-prozeduretan, ondorengo ataletan ezarritako neurriak hartu beharko dira:

- a) Bigarren paragrafoan, 1. ataleko b) letran, azaldutako euspen-printzipioak, Errege Dekretu honetako V. Eranskinetan azaltzen diren neurri zehatze eta prozedura egokietan oinarrituta aplikatu beharko dira.
- b) 2., 3. eta 4. taldeko agente biologikoak erabiltzeari loturiko arriskuaren ebaluazioaren emaitzaren arabera, lan- eta osasun-aginteez, dagozkien eskumenak betez, agente biologiko horien industria-erabilerarako aplikatu behar diren neurri egokiak erabaki beharko dituzte.

Artikulu honetan arautu diren jarduerak, ebaluazioaren ostean, agente biologikorik ondorioztatzerik izan ez bada, baina aurreikusitako erabilera hutsak langileen osasunerako arriskutsu izan badaitezke, gutxienez ere, 3. euspen-mailako neurriak betetzen diren lokaletan baino ezingo dira burutu.

Ohar osagarriak

Birusa dagoen seinalerik ez izan arren, langileekiko gutxieneko eragin-maila kontuan hartu beharko litzateke badaezpada, momenturen batean birusa detektatu ez eta bertan egon liteke-elako.

Ebaluatzeko metodoei dagokienez, kontuan izan behar da faktore ezagunetan oinarritzen direla, nola ez, baina oraindik birusa transmititzeko gaitasunari eragiten dioten faktore batzuk ezagutzen ez direnez, oraingo ebaluazio-metodoak ezin dira ez zehatzak izan, ezta konfiantza osokoak ere.

Nolanahi ere, aintzakotzat hartu behar da OMEren informazioen arabera oraindik era aberea ▶ gizakia jauzia zaila dela, eta beraz, birusa egoteak ez du esan nahi langilea berehalakoan kutsatuko dela. Hala ere, gertatuz gero, ondorioz hilgarriak dira kasu gehienetan.

Animaliek gaixotasuna dutela egiaztatzen, langileek dagozkien neurriak izango ez balituzte, arriskua "larri eta hur-hurrekotzat" ere har liteke, LAParen Legeak kasu horretarako ezartzen dituen ondorioekin. Gainera, indarrean dagoen legerian jasotako gainerako neurri guztiak hartuko lirateke (hegaztiak akabatu, instalazioak desinfektatu, inkesta epidemiologikoa, ...)

1025/1993 Errege Dekretuaren 9-1 artikuluan, bi eremu jasotzen dira:

- Inguruko 3 kilometroko **Babes-eremu** bat.
- 10 kilometroko erradioan eta aurrekoa barne hartzen duen **Zaintza-eremu** bat.

Ondorengo ebaluazio-koadroa *orientagarria* baino ez da, prebentzio- eta higiene-neurriak hartzeko beharra adieraztea du xede

ARRISKUA EZARTZEA (5 maila, Garrantzirik gabekotik Jasanezinera)**

LANGILEEN HEGAZTIEKIKO ETA HORIEN HONDAKINEKIKO UKIPEN MAILAK	Zuzena iraunkorra eta ohikoa					Zuzena, laburra eta ohikoa					Zuzena iraunkorra eta noizbehinkakoa					Zuzena laburra eta noizbehinkakoa					Zeharkakoa laburra eta ohikoa				
	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5
PREBENTZIO NEURRIEN EGOERA (*)																									
HEGAZTIEN EGOERA																									
Fokuaren susmorik eza	G	N	N	JG	GG	G	N	N	JG	GG	G	N	N	JG	GG	N	N	JG	GG	GG	N	JG	JG	GG	GG
Fokuaren susmoa eta egiaztapena	JE	JE	G	G	N	JE	JE	G	N	N	JE	JE	G	N	N	JE	JE	N	JG	JG	JE	G	G	JG	JG

(*) Prebentzio eta Higiene Neurrien inguruko egoerak:

- 1) Ez dago neurririk, ez banakako higinezkorik ezta aurea hartzekorik.
- 2) Higiene-neurri pertsonalak daude, besterik ez.
- 3) Higiene-neurri pertsonalak eta prebentzio-neurriak daude, besterik ez
- 4) Higiene- eta prebentzio-neurriak daude (fokua egotekotan, langileen zerrenda barne)
- 5) Higiene- eta prebentzio-neurriak eta igiene- eta prebentzio-neurriak betetzen direla zaintzen duen arduna daude.

(**) Arriskuaren balorazioa:

Jasanezina (JE) ■ Garrantzitsua (G) ■ Neurrikoa (N) ■ Jasangarria (JG) ■ Garrantzirik gabea (GG) ■

ARRISKUAREN EBALUAZIOAREN ARABERA HARTU BEHARREKO PREBENTZIO NEURRIAK¹²

1. Fokuaren susmorik ez badago

Ebaluazioaren emaitza Garrantzitsua edo Neurrikoa da, eraginpeko arriskua-mailaren arabera Prebentzio neurriak hartu behar dira, arriskuaren ebaluazioaren emaitza Jasagarria edo Garrantzirik gabekoa izan dadin. Ahalik eta lasterren hartu behar dira neurriak.

2. Fokuaren susmoa badago eta egiaztatzen bada

Ebaluazioaren emaitza Jasanezina balitz, arriskua larri eta berehalakotzat hartu eta lanlekutik alde egin beharko dute langileek.

Ebaluazioaren emaitza Garrantzitsua balitz, eraginpeko arriskua-mailaren arabera Prebentzio neurriak hartu behar dira, arriskuaren ebaluazioaren emaitza Jasangarria izan dadin, eta ezinzkoa izatekotan, Neurrikoa. Berehalaxe hartu behar dira neurriak.

12) Oharra: Bi helburu ditu Eskuliburuan arriskua ebaluatzeko proposatutako metodoa: batetik, enpresaburuak Laneko Arriskuaren Prebentzioari buruzko Legean, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduan eta arrisku biologikoei buruzko 664/1997 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete ahal izateko tresna izatea, eta bestetik, aurea hartzeko, murrizteko eta higiezezko neurriak hartzeko beharra agerian jartzea.

3.4.3 Nahitaezko agiriak

Hegazti-ustategietako eta/edo hegaztiekin ukipena izatea eskatzen duten bestelako jardueretako enpresaburu titularrek, langileak hegazti-gripearen arrisku biologikoaren eraginpean egozteagatik, bete behar dituzten agiriak azalduko da atal honetan.

1. Enpresaburuak, ezer baino lehen, birusaren eraginpean egotearen ondoriozko arriskuen identifikazioa eta ebaluazioa dokumentuetan jaso beharko du. Metodologiarik ezean, eta gorago aipatutako eragozpenekin, lehen, Eskuliburu honetan adierazitako urratsei jarraiki egin ahal izango litzateke ebaluazio orientagarria.

Ebaluazio berri bat egin beharko du, hau da, ondorengo kasuetan oinarritutako dokumentazio berria egitea eskatuko duena:

- Lanlekuan langileak jasan dezaketen agente biologikoen eraginpeko egoeran aldatuak ematen direnean.
- Langileren batengan, agente biologikoen eraginpean egotearen ondorioz sortzearen susmopeko infekzioa edo gaixotasuna detektatzen denean.
- Aldizka.

2. Enpresan 3. eta 4. taldeko agente biologikoen eraginpean egon daitezkeen langileen zerrenda, betetzen duten lan-mota eta zein agente biologikoren eraginpean egon diren adierazi eta, eragin-egoera, istripu eta gertakarien erregistroa jasoko duena.

3. Langileen bakoitzaren osasun-historien erregistroa izatea. LAPlan osasun-zaintzaren inguruan ezarritakoari jarraiki, agente biologikoen eraginpean egotearen ondorioz eman daitezkeen arriskuen arabera lanean, aldizka, egindako osasun-zaintzari buruzko oro jasoko dute historia horiek. Gutxienez ere, hamar urtez gordeko dira osasun-historia horiek, eragin-egoera amaitu ondoren.

4. Azkenik, hegazti-influenzako fokuen susmoa egotekotan, osasun-zaintza berezia eta prestakuntza egokia jaso ondoren, hegaztiak hartzen dituzten eremuetara hegaztiak hiltzera sartzeko eta eremua garbitu eta desinfektatzeko baimendutako langileen zerrenda egin beharko du enpresaburuak. Baimendutako langileek jarduera hori garatzerik izan dezaten, 1025/1993 Errege Dekretuaren 4.2. artikuluari jarraiki, Autonomia Erkidegoko agente eskudunen baimena izan beharko du, horren 2-d artikuluan xedatzen den bezala.

3.4.4 Lan- eta osasun-arloko aginteei jakinaraztea

664/1997 EDko 10. eta 11. artikuluei jarraiki, 2., 3. eta 4. taldeko agente biologikoak erabili baino lehen, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzari, hau da, lan-arloko aginteari, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko Zuzendaritzari edo osasun-arloko aginteari, jakinarazi beharko die enpresaburuak.

Hegazti-haztegi bat ustiatzeak, berez eta nahita, agente biologiko zehatz erabiltzea eskatzen ez badu ere, une honetan eskura dagoen al baitari- eta osasun-informazioa dela-eta eta araudia behin eta berriz aldatzen denez, badago hegaztiekin jardungo diren pertsona fisiko eta juridiko guztiei, lan-arloko aginteari artikuluko horietan ezartzen denaren berri emateko eskatzerik.

Lan-arloko aginteari helarazi beharreko informazioak, honako hauek barne hartuko ditu:

- Enpresaren edo lantokiaren izena eta helbidea.
- Enpresan LAP arloan erantzukizunak dituen/dituzten pertsona edo pertsonen izena eta prestakuntza.
- Arriskuen ebaluazioaren emaitza (honakoak barne hartuko dira: eraginaren izaera, maila eta iraupena, ebaluazio-irizpideak eta prozedurak eta, analisi eta entsegue-tan erabilitako metodoak).
- Agente biologiko mota.
- Aurreikusten diren prebentzio- eta babes-neurriak.

Arriskuen ebaluaziotik, langileen osasunerako arriskuak daudela ondorioztatzen denean, honako hauen berri emango die enpresaburuak lan- eta osasun-arloko aginteei:

- Langileak agente biologikoen eraginpeko zein jardueratan egon den edo egon ahal izan den.
- Eraginpeko langile-kopurua.
- Enpresan prebentzioaren arloko erantzukizunak dituen/dituzten pertsona edo pertsonen izena eta prestakuntza.
- Hartutako prebentzio- eta babes-neurriak, lan-prozedurak eta -metodoak barne..
- Euspen fisikoak huts egitekotan, 3. edo 4. taldeko agente biologikoen eraginaren aurrean langileak babestuko dituen emergentziazko plan bat.

OMEk sustatutako Biosegurtasunari buruzko Eskuliburuan ezarritakoari jarraiki, honako hauek baren hartu beharko ditu Emergentziazko Plan horrek:

- Arriskua ebaluatzeko jarduera-prozedura.
- Ustekabeen eraginpean egotean aplikatuko diren neurriak.
- Eraginpean egondako eta kutsatutako pernoei zuzendutako osasun-tratamendua.
- Agente biologikoak zehatz-mehatz identifikatzea.

- Arrisku- eta babes-eremuak mugatzea.
- Giza baliabideak eta beren eginkizun eta erantzukizunak identifikatzea.
- Eraginpeko pertsonen laguntzeko instalazioen zerrenda.
- Eraginpeko pertsonen garraioa.
- Tratamendua hartzen dutenen zerrenda.
- Emergentziazko egoerentarako materiala izatea eta horren kokalekua: jantzi babesleak, desinfektatzaileak, higiene pertsonaleko zerbitzuak, aldagelak, erabilera bakarreko jantzientarako edukiontziak.

Emergentziazko planaren simulazioak egin behar dira.

Agente biologiko bat askatzea eta gizakiarengan infekzio edo gaixotasun larria eragin dezakeen edozein istripu edo gertakariren berri emango die, berehalakoan, enpresaburuak lan- eta osasun-arloko aginteei. Hegazti-gripearen eraginaren aurrean, fokuen susmoa deklaratu denean egin beharko da, eta, gertatzekotan, hori egiaztatzen edo ezeztatzen denean.

Lanean agente biologikoen eraginpean egoteari eragozten zaizkion gaixotasun- eta heriotza-kasu guztiak jakinarazi beharko zaizkie lan- eta osasun-arloko aginteei.

Enpresak jarduteari uzten badiu, lan-arloko aginteei igorriko zaizkie langileen zerrenda eta horien osasun-historiak. Honek, kopiarik gorde gabe, osasun-agintariei igorriko die, eta horrek, datu horien konfidentzialtasuna bermatuz gordeko ditu.

3.4.5 Langileei bideratu beharreko informazio eta prestakuntza

Langileei eta langileen ordezkariari, ustez, hegazti-gripearen birusaren eraginpean egotearen ondorioei aurrea hartzeko enpresak segurtasun- eta osasun-arloan hartuko duen edozein neurriren berri emateko behar beste neurri hartuko ditu enpresaburuak.

Langileek eta euren ordezkariak, eskura dituen datu guztietan oinarritutako behar beste prestakuntza egoki eta informazio zehatz jasoko dutela bermatu beharko du enpresaburuak, eta bereziki, ondorengo inguruko jarraibideak bideratuko dizkielarik:

- a) Hegazti-gripearen birusaren eraginpean egotearen ondorioz, eman daitezkeen osasun-arriskuak, horien artean, eragin-arrisku handieneko egoerak zeintzuk diren eta, hegazti-gripearen foku baten susmoa antzemateko irizpideak jasoko direla.
- b) Eragin-egoera prebenitzeko kontuan izan beharrekoak.

- c) Higiene-arloko jarraibideak, babesleak eta higiene pertsonaleko, zein bestelako gaiak egoki erabiltzeko modua azalduz.
- d) Banakako babes-jantzi eta –ekipoen erabilera eta erabiltzeko modua, non eta noiz jarri eta kendu behar diren eta, erabilera bakarreko materialak erabili ostean nora bota behar diren gehituz.
- e) Ustekabekorik gertatzekotan eta horiek prebenitzeko langileek hartu beharko dituzten neurriak.

Honakoetan bideratu beharko da prestakuntza:

- Langile bat, agente biologikoekin kontaktuan egotea eskatzen duen lanpostu batean hasten denean.
- Arrisku berriak eta horien bilakaera agertzearen ondorioz, egokitzea beharrekoa denean.
- Aldizka, beharrekoa izatekotan.

Langileen ordezkariak, edo horiek ezean, langileek eskatzen badute, enpresaburuak honako-
ei buruzko informazioa helaraziko die:

- Langileak agente biologikoen eraginpeko zein jardueratan egon den edo egon ahal izan den.
- Eraginpeko langile-kopurua.
- Arriskuen ebaluazioaren emaitza (honakoak barne hartuko dira: eraginaren izaera, maila eta iraupena, ebaluazio-irizpideak eta -prozedurak eta, analisi eta entseguetan erabilitako metodoak).
- Enpresan LAP arloan erantzukizunak dituen/dituzten pertsona edo pertsonen izena eta prestakuntza.
- Hartutako prebentzio- eta babes-neurriak, lan-prozedurak eta –metodoak barne.
- Euspen fisikoak huts egitekotan, 3. edo 4. taldeko agente biologikoen eraginaren aurrean langileak babestuko dituen emergentziazko plan bana.

Enpresaburuak idatzizko jarraibideak emango ditu lanlekuan eta, beharrezkoa balitz, gutxienez ere, ondorengoetan jarraitu behar den prozedura jasoko duten abisuak jarriko ditu:

- a. Agente biologiko bat maneiatzean egin ditzakeen istripu edo gertakari larria ematen denean.

b. 4. taldeko agente biologiko bat maneiatzen bada¹³.


Hegazti-gripearen birusarekin kutsatutako aberean egon daitezkeela ondoriozta dezakeen edozein istripu edo gertakariren berri, berehalaxe emango die enpresaburuak langileei edo ordezkariari, eta baita, egoera horri aurre egiteko hartutako edo hartuko diren neurrien berri ere.

Litekeen agente biologiko bat maneiatzea ekar dezakeen edozein istripu edo gertakari jakinarazi beharko diete langileek hierarkiko goragoko hurrengo postuan dagoenari edo enpresan, LAP arloko erantzukizunak dituen/dituzten pertsona edo pertsonari; dagokigun honetan, hegaztiengan infekzioaren fokua egon daitekeelako susmoa ondoriozta dezaketen sintomak antzematekotan.

3. eta 4. taldeko agente biologikoen eraginpean dauden langileen zerrendan bakoitzari dagokion informazioa zen den jakina ahal izango dute langileek. Zerrenda horretan, honakoak baren hartzen dira: garatzen den jardura-mota, zein agente biologikoren eraginpean egon diren eta horren inguruko eragin-egoera, istripu eta gertakarien erregistroa. Gainera, izenik gabeko edozein informazio kolektibo beregana ahal izango dute langileen ordezkariak edo, horiek ez, langileek eurek.

13) Kontuan izan behar da OMEren 3. fasean dagoen hegazti-gripearen birusa, ez dagoela 4. taldean sailkatuta.

4. Arriskuaren eragina murrizteko neurriak



[1. oharra: Gogorazi nahi dugu, Eskuliburu honetan, itxuraz normalak diren egoeraz ari garela beti, kasu susmagarririk gabekoak, alegia].

[2. oharra: Neurri hauek, ondorengo atalean zehazten diren zaintza-neurriekin batera aplikatu eta mantentzen dira].

[3. oharra: Honako seinale hau erabiliko da, "Kontuz. Arrisku biologikoa" adierazi behar denean]:



Hasieratik adierazi legez, lantoki batean hegazti-gripeak eragindako infekzio-kasu susmagarririk sumatu ez denean ematen den egoeran oinarrituta dago Eskuliburu hau, baina European birusak aurrera doanez, edozein unetan kutsa daitekeen lantokia du xede.

Horregatik, honelako egoera batean, **prebentziozkoa izango da jarrera: zaintza eta gertakariei aurrea hartzea.**

LAPLean aipatutako prebentzio-ekintzaren printzipioei jarraiki, lantokiko eta bertako jardueren diseinuari buruzko babes-neurrien ingurukoa izan beharko luke lehengo eta oinarritzko neurri-multzoak. Dena den, ulertzekoa da, dagoeneko jardunean izanik, neurriak ezartzea premiazko duten lantokietan horiei ekiteko dagoen zailtasuna. Dena dela, III. eranskinean honen inguruko informazioa erantsi da.

Beraz, lanean hegazti-gripeari aurrea hartzeko jarduerak, honako printzipio orokor hauek izango ditu oinarri:

1. Birusa enpresara/enpresatik (hegazti-ustiategia, garraio-enpresa, hiltegia, etab.) nondik sartu/irten daitekeen identifikatzea.
2. Talde-babesa: Sarbide/irtenbide horietako kontrol-neurriak eta higiene-neurri kolektiboak.
3. Banakako babesa: NBEak erabiltzea (horiek erabili eta suntsitzeko jarraibideak barne) eta higiene-neurri pertsonalak.

Arriskuen ebaluazioa (ikusi 54. orrialdetik aurrera proposatutako metodoa) eguneratu eta, prebentzio-neurriak planifikatu eta hartu ondoren ezarri beharko da prebentzio-jarduera hau.


4.1 Hegazti-ustategietako arriskua murriztea

Hegaztiekin, horiek jaten dutenarekin (pentsua, ura), hegazti-produktuekin (hegaztikia, arrautzak, lumak, ...) eta horien hondakinekin (gorozkiak, etzaleku edo ohantzeak, hildako hegaztiak, ...) nolabaiteko kontaktua izatea dakar berarekin hegazti-ustategi bateko jardunak, eta hori guztia, aldez aurretik, horietako elementuren bat edo batzuk birusak kutsatuta dituen jakin gabe.

Ohiko beste gaixotasun batzuk prebenitzeko aplikatuta egon eta ohikoak izan beharko luketen, baina hegazti-gripeak duen arriskuaren aurrean *gogorarazi eta indartu* behar diren oinarrizko neurri batzuk hartzea da helburua.

Bi helburu lortu nahi dira neurriekin: Ustategia ez kutsatzea eta horretan ez kutsatzea

a) Birusaren sarbide/irtenbideak identifikatzea:




Kontuan izan beharreko

|| **sarbideen** zerrenda zehaztu
gabea

- Ibilgailuak: Ustategikoak edo langileenak, albaitaritza edo bestelako ikuskaritza-zerbitzuetakoak, pentsuen eta beste merkantzia batzuen hornitzaileena, instalazio eta zerbitzuen mantentze- eta konponketa-zerbitzuena (ura, argia, telefonoa, makinak, etab.), inguruko ustategietakoak, senitartekoenak eta bisitarienak.
- Erabilitako ekipamenduak: Aldez aurretik erabilitako kaiolak edo bestelako ekipamenduak jarri baino lehen, desinfektatu egin beharko dira.
- Material kontsumigarriak (pentsuak, ura, lastoa, etab.): Hornigaiak baimendutako eta konfiantzazko banatzaileei erosi. Basa-hegaztiekin kontaktua izan ahal izan duen ura saihestu.
- Ustategirako hegaztiak: Saihestu ustategian erabateko osasun-bermea eskaintzen ez duten hegaztirik sartzea, eta bereziki, gaixotasunaren eraginpeko herrialdeetatik ekarritakoak.

- Beste abere batzuk: Jarri eta aztertu ustiategiaren inguruko hesia, kontrolik gabeko beste espezie batzuek sartzerik izan ez dezaten (karraskariak, zakurrak eta katuak, azeriak, basa-hegaztiak, etab.). Ez utzi etxeko eta konpainiako abereei ustiategiaren barrutian sartzen.
- Pertsonak: ustiategiko hegaztiekin zuzenean jardungo diren langileen-kopurua, ezinbesteko-ezinbestekora murriztu, eta galarazi erabat, bisitari edo senitartekoei sartzea.



Kontuan izan beharreko
irtenbideen zerrenda zehaztu gabea

- Ibilgailuak: Ustiategikoak edo langileenak, albaitaritza edo bestelako ikuskaritza-zerbitzuetakoak, pentsuen eta beste merkantzia batzuen hornitzaileena, instalazio eta zerbitzuen mantentze- eta konponketa-zerbitzuena (ura, argia, telefonoa, makinak, etab.), inguruko ustiategietakoak, senitartekoenak eta bisitarienak.
- Erabilitako ekipamenduak: Aldez aurretik erabilitako kaiolak edo bestelako ekipamenduak saldu edo utzi baino lehen, desinfektatu egin beharko dira.
- Hegazti-produktuak (hegaztikia, arrautzak, lumak, ...): ustiategia kutsatuta egon daitekeelako susmoaren ondorengo egunetan, ahal den neurrian, produktu hauen identifikazio eta trazabilitateari buruzko eginkizunak betetzen direla zaindu behar da.
- Zaborrak eta hondakinak: Ustiategiaren funtzionamenduaren ondoriozko berezko hondakinak (txizak, ohantzeetako lastoa, berez hildako hegaztiak, etab.) zein indartutako segurtasun-neurritakoak (eskularruak, maskarak, erabili eta botatzeko arropa, ...) egon daitezke kutsatuta.
- Hegaztiak: Ez atera hegaztirik ustiategitik, hegaztiaren osasun-egoera egokia dela zeharo bermatu gabe.
- Beste abere batzuk: Ez utzi, inola ere, etxe edo konpainiako abereei ustiategitik irteten.
- Pertsonak: Saihestu bisitariak hegazti-ustiategian.

b) Babes-neurri kolektiboak:

Maila honetan, hegaztien gunea eta ustiategiko gainerako lekuak ahalik eta gehien "bereiztean" data babesa.

Egokiena, fisikoki bereiztea litzateke, hau da "esklusa"/"segurtasun-gela" baten bitartez, edo bestela, hegaztien esparrura edo esparrutik sartu eta irteten den oro garbitu eta desinfektatzeko erabiliko litzatekeen bitarteko eremu baten bitartez.

Honako hauek burutuko lirateke esklusa horretan:

- Arropaz aldatzea: bakar-bakarrik hegaztien esparruan lan egiteko erabiliko diren arropa eta oinetakoak erabili behar dira. Armairu ezberdinetan gorde behar da esparru horren barruan eta hortik kanpo erabiltzen den arropa. Barruan erabiltzen den arropen artean botatzen diren elementuak badaude, horiek botatzeko seinaleztatutako edukiontzi estalkidun bat egon beharko da, hau da: eskularruak, txanoak, maskarak, etab. botatzekoak.
- Eskuak eta oinetakoak garbitzea: Garbiketa burutu behar da hegaztien esparrura sartzean zein horretatik irteteen. Eskuak, ur eta xaboi ugariz garbituko dira, eta ondoren, paperez (lehen aipatutako edukiontzira botako dena) lehortu. *Iturria pedalduna izatea gomendatzen da*. Botak, berriz, ur eta lixibaz edo beste desinfektatzaile batez garbitu behar dira; *botak garbitzeko putzua* instalatzea gomendatzen da, hots, oinetakoak garbitu eta desinfektatzeko, botak jantzita sartzeko moduko desinfektatzailedun putzua (desinfektatzailea, gutxienez ere, bi egunez behin aldatuko da).
- *Adi!*: Edozein garbiketatan, presio handiko mahukak ekidingo dira, kutsatutako elementuen sakabanatzea ahalbidetzen baitute.

Ibilgailuei dagokienez, kanpoko ibilgailuak edozein ustategitan sartzeari saihestu behar da. Sarreran aparkatuko dira. Beharrezkoa izatekotan, gurpilak garbitzeko putzua (gurpilak garbitzeko desinfektatzailez hornitutako putzu edo iraganbidea) aurreikusi beharko da.

Langileei gagozkiola, hegaztiak itxita dauden lekuetan beharrezkoak diren langileen zerrenda egin beharko du enpresaburuak. Ahalik eta langile gutxien sartuko dira eremu horietara, ezinbesteko-ezinbestekoak baino ez.

Enpresaburuak honako hauek bermatu beharko ditu, langile horiei dagokienez:

- Bere egitekoak segurtasun osoz garatzea ahalbidetuko dizkien ezagutzak eta lanbide-esperientzia dituela eraginpeko langileak.
- Dagokion lanpostuko segurtasunari buruzko prestakuntza berriki areagotuta izatea. Hegazti-influenzaren inguruko arriskuei buruzkoak ulertu dituela. Oro har, eta hegazti-gripearen susmopeko eta fokuren batek eragindako emergentziazko kasuetan, hartu behar diren neurri berezien inguruko informazioa eta prestakuntza jaso dituela.
- Norberaren babeserako ekipamenduak, behar bezala eta/edo fabrikatzailearen jarraibideen arabera, jantzen eta erabiltzen irakatsi diotela eta saiakuntzak egin dituela.

Garratzi berezia, arnasketa-babeslea atxikitzeko moduari eman behar zaio.

- Lanpostu honen inguruko osasun-zaintza jaso duela, eta bereziki, arnasketa-babesleak jartzeko gaitasuna egiaztatu dela.

c) Babes-neurri pertsonalak:

Ondorengo babes pertsonaleko ekipoak izan beharko ditu enpresaburuak, behar adina, eta baita horiez hornitzen dituztenen zerrenda bat:

- Aerosolak iragazten dituzten (gutxienez ere, FFP2 babesa) erabili eta botatzeko arnasketa-babesleak. Ariketa fisiko handia edo luze erabiltzea eskatzen duten jardueretan, hobe arnasa ateratzen duen balbulaz hornitutako gailua erabiltzea, honelako maskarak nabarmen erosoago baitira.
- Hauts eta zipriztinez babesteko betaurrekoak. Frogatu arnasketa-babeslearekin batera erabil daitezkeen.
- Eraso mekanikoen (ebaketa, urratua, zulaketa) apurtzen ez diren babes-eskularru estankoak. Eskuak eraso mekanikoen aske dauden jardueretan, nahikoa izango da erabilera bakarreko babes-eskularru estankoak erabiltzea.
- Erabilera bakarreko babes-jantzi txanodunak (5. edo 6. motatakoak). Txanodunak izan ezean, erabilera bakarreko txano edo kapela eraman beharko da. Berriz erabil daitezkeen arropa arrunta erabiltzerik badago ere, erabili eta botatzeko jantziak gomendatzen dira, lehengo horiek baldintza jakinetan garbitu behar direlako eta langileek ez dituztelako inoiz etxera garbitzera eraman behar.
- Bota estankoak.

NBEak, ordena honi jarraituz kentzea komeni da:

- Botak kendu, ur-zorrotatik pasatu ostean (kontuz: ez erabili presiozko zorrotadarik).
- Garbitu eskuak eskularruak jantzita (batik bat berriro erabil daitezkeen eskularruak badira) eta, ondoren, kendu eskularruak.
- Babes-jantzia kendu (saihestu norbere arropa eta ilea ukitzen, ez kutsatzeko).
- Eskuak ur eta xaboi ugariz garbitu.
- Betaurrekoak kendu.
- Arnasketa-babeslea kendu (gomazko lokailuetatik helduz, inoiz ez aurrealdetik).
- Eskuak eta aurpegia ur eta xaboi ugariz garbitu.

NBEak erabili ostean botatzeko edukiontzi bat (zabor-poltsa izan daiteke, baina hauskaitza eta itxituraduna) egon beharko da. Edukiontziak itxitura izango du eta "arrisku biologikoa" adierazten duen triangelu horiaz eta honelako oharrak edo antzekoz seinaleztatuta egon: "*Erabilitako ekipoak. Infekzio-arriskua.*"

Berrero erabili ahal diren ekipamenduak (betaurrekoak, botak, ...) , lehenago aipatu legez, hegaztien esparruaren eta gainerako ustiategiaren arteko "bitarteko eremuan" garbitu eta desinfektatu egin beharko dira.

4.2 Natur ingurunean diharduten langileak dituzten enpresetan arriskua murriztea

Lanleku zehatz baten jarduten ez diren eta hegaztiekin noizbehinka eta ezustean kontaktua izaten duten langileak barne har daitezke atal honetan: basozainak, ehiza eta arrantza jagoleak, bideak eta basoak garbitzen dituzten langile-taldeak.

Horien antolaketari dagokionez, herri-administrazioen menpeko langileak izango dira, edo bestela, horiek azpikontrataturako baso-zerbitzuetako enpresetakoak. Langile hauek berebiziko laguntza bidera dezakete, basa-hegaztien heriotza susmagarriaz azkar ohartzeko.

Honelako jardueran, birusarekin harremanetan egoteko modu bakarra, infektaturako animaliarekiko zuzeneko eta nahi izandako kontaktu bidezkoa dela uste da.

Ondorioz:

Honako hau da langile hauek jaso behar duten funtsezko agindua: ez ukitu hildako basa-hegazti gorpuak

Nolanahi ere, biztanleria babesteko arrazoiak direla-eta, komenigarria litzateke langile horiek hilda aurkitutako hegazti horiek jasotzea. Honela, ez dira biztanleen eskura egongo, ezta horiek arriskupean ere.

Horiek eramateko, langile hauek ez lituzkete hegaztiak jasotzeko beharrezkoak diren manipulazioak baino egin behar, eta hori guztia, gainera, enpresaburuak emandako babes, prestakuntza eta informazio neurriak hartuta.

Laginak laborategian hartu behar dira eta langile gaituek egin behar dute.

Horiek horrela, hegazti-gripea eragiten duen birusarekin kutsatzeko arrisku biologiko hau jaso beharko du enpresaburuak arriskuen ebaluazioan. Horretarako, azken hori eguneratzeaz gain, taldeko eta banakako prebentzio-neurriak hartu eta informazioa/prestakuntza bideratu beharko die langileei. Honelako informazio/prestakuntza helaraziko die:

a) Aholku orokorrak:

- Hegaztiak kutsatuta egon daitezke, eta baita beren produktuak eta hondakinak ere: gorozkiak, lumak, arrautzak, eta abar...
- Iristea zaila izatekotan, ez bereganatu arrisku gehiago.
- Bizirik baina kutsatuta dauden hegaztiak, hildakoak baino arriskutsuagoak dira, kutsatutako fluidoak sortu eta heda ditzaketelako, hegoei eragitean partikula gehiago zabal dezaketelako, erasoz gero urradurak eta zauriak eragin ditzaketelako, ...
- Kontuz egiten bada, jaso ahal da hildako hegazti bat, betiere, eskularruak jantzita eta, ondoren, eskuak ur eta xaboiak garbituz.
- Bizirik dagoen hegazti bat, honela baino ez litzateke harrapatu eta eraman behar izango: eskularru iragazgaitz eta hauskaitzak, maskara (FFP2 motakoa, esaterako) eta begiak babesteko betaurrekoak jantzita..
- Zalantzarik izatekotan, hegaztiekin kontaktua izan duen oro hartu birusak kutsatutakotzat: eskularruak, poltsak, ontziak, botak, ...
- Erabili eta botatzeko elementuak gorde ondo-ondo itxitako poltsa batean, eta eraman, jasotako hegaztiekin batera, higie-baldintzetan suntsi dezaten.
- Berrito erabili daitezkeen elementuak desinfektatu ur eta lixibaz edo, jasotako hegaztiez arduratuko den erakundeak gomendatutakoa produktuaz.
- Eutsi lan-jardunean erabili ohi diren higie-arau arruntak: ahal bada, ez jan, edan edo erre lanean, garbitu ondo-ondo eskuak ur eta xaboiak otorduen aurretik, atse-denaldietan eta lana amaitzean.

b) Hilik aurkitutako basa-hegaztiak jasotzeko baldintzak:

- Honelakorik aurkitzekotan, dagokion Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio:
 - Araba: **945.181.818**
 - Bizkaia: **944.066.832**
 - Gipuzkoa: **943.000.420**
- Ezin bada harremanetan jarri, deitu SOS-Deiak **(112)** zerbitzura.

Deitzerakoan, saiatu hilda aurkitutako hegaztiak non aurkitu diren, zein espezieetakoak diren eta kopurua zehaztasunez adierazten, eta berehala jasotzeko asmoa dagoen, ala alderantziz, horretarako behar direnak ez izategatik.

Deiak dirauen bitartean, galdetu zein erakunde arduratu den hegaztiak jasotzeaz eta non entregatu behar diren.

- Jantzi babes-eskularruak.
- Hartu arretaz hildako hegaztiak eta sartu honelako ontziren batean:
 - Zabor-poltsa batean. Erabili eta botatzekoa baina ixten denetarikoa. Ondo-ondo itxi garraiatzeko.
 - Edukiontzi zurrun batean. Berriro erabiltzekoa izango da, eta ongi itxi beharko da garraiatzeko. Ondoren, desinfektatu egin beharko da.
- Sartu ontzi hori ibilgailu batean garraiatu eta entregatzeko.
- Erabilitako eskularruak kutsatutzat jo:
 - Kendu eskularruak ibilgailuan sartu baino lehen.
 - Bota poltsa batean eta itxi. Ez sartu erabili gabeko eskularruen poltsan.
 - Erabili eta botatzeko eskularruak izanez gero, entregatu erabilitako eskularruen poltsa jasotako hegaztien ontziarekin batera.
 - Berriro erabil daitezkeen eskularruak izatekotan, desinfektatu.
- Garbitu ur eta xaboi ugariz (edozein detergentek akabo dezake birusa, horren azal lipidikoari erasotzen diolako). Utzi xaboiari berea egiten, uretan eragin eta lehortu paperaz (erabili eta botatzekoa).

4.3 Abereak eta/edo abere-produktuak eta –hondakinak garraiatzen dituzten enpresetan arriskua murriztea

Bi dira enpresa prebenitu beharreko arrisku nagusiak:

- Kutsatuta dauden jakin gabe, kamioi-gidari batek abere edo abere-produktuekin izan dezakeen **kontaktua**.
- Ibilgailu kutsatu batek birusa **barreia dezake**.

Erne! Gogoratu birusa barreiatzeko arrisku handiagoa dagoela bizirik dagoen hegaztiekin, hildako edo hegaztikiekin baino.

Kamioia kargatu/deskargatzeko baldintzak

- Hegazti-ustiategi batera sartu behar izatekotan, kamioiak gurpilak garbitu eta desinfektatzeko putzu batetik igaro beharko da, sartzera koan eta irteterakoan.
- Kamioia kargatu/deskargatzeko gidariak kanpoan egon behar ez badu, kabina barruan geratuko da.
- Kamioia kargatu/deskargatzeko gidariak kanpoan egon behar batu:
 - Kabinatik irten eta itxi egin beharko du.
 - Eragiketarako erabili beharreko ekipo guztiak jantzi beharko ditu: erabili eta botatzeko lohihartzekoa, FFP2 maskara, zipriztinen kontrako betaurrekoak, eskularruak (eraso mekanikoen kontrakoak ala ez, egin beharreko jardueraren arabera).
 - Zamaketa lana burutu.
 - NBEak kendu (aurreko atalean adierazitako ordenari jarraituz).
 - Kabinan sartu.
 - Irteeran, kamioarekin gurpilak garbitzeko putzutik iragan.

Instalazio finkoak dituen garraio-enpresa izatekotan (garajeak, tailerrak, etab.), kamioiak garbitu/desinfektatzeko neurri gehigarriak hartu beharko liriateke. Ahal bada, erabili beti kamioi berberak abereak eta/edo horien hondakinak garraiatzeko, eta ibilgailu horiek sakonago garbitu. Garbiketan, presio handiko zorrotadak saihestuko dira eta garbitzailea, jantzi eta oinetako iragazgaitzez, eskularruez, zipriztinen aurkako betaurreko edo bisoreaz eta FFP2 maskaraz babestu beharko da.

Enpresaburuak honako hauek bermatu beharko ditu, langile horiei (gidariak eta garbitzaileak) dagokienez:

- Bere egitekoak segurtasun osoz garatzea ahalbidetuko dizkien ezagutzak eta lanbide-esperientzia dituela eraginpeko langileak.
- Dagokion lanpostuko segurtasunari buruzko prestakuntza berriki areagotuta izatea. Hegazti-influenzaren inguruko arriskuei buruzkoak ulertu dituela. Oro har, eta

hegazti-gripearen susmopeko eta fokuren batek eragindako emergentziazko kasuetan, hartu behar diren neurri berezien inguruko informazioa eta prestakuntza jaso dituela.

- Norberaren babeserako ekipamendua, behar bezala eta/edo fabrikatzailearen jarraibideen arabera, janzten eta erabiltzen irakatsi diotela eta saiakuntzak egin dituela. Garratzi berezia, arnasketa-babeslea atxikitzeke moduari eman behar zaio.

4.4 Hiltegiak

Kontuan hartutako honelako egoera batean (susmorik edo fokurik eza), ez dira hiltegieta **aurreikusi eta aplikatuta** egon behar duten ohizko babes-neurriak ez diren neurri berezi edo gehigarririk gomendatzen.

4.5. Aireko garraioa

Osasun eta Kontsumo Ministerioaren Osasun Publikoko Zuzendaritzak jarduteko landu dituen hainbat gomendio *zehazten* dira atala honetan. Jarduera-protokoloak eta bestelako informazioak, aipatutako Ministerioaren web orrian daude eskura:

<http://www.msc.es/ciudadanos/enfLesiones/enfTransmisibles/pandemia/home.htm>

Protokolo hau "4. fasean" eta hurrengoetan aplikatuko da erabat.

Kontuan hartzen bada hegazkin-konpainia batek:

- Hegazti-gripearen kasuak izan dituzten herrialdeetatik datozen hegazkinetan, datuak biltzeko fitxaren (aipatutako web orrian eskura daitezkeenak) behar beste ale izan behar dituela, behar izatekotan, bidaiariak eta tripulazioak hegaldian zehar bete dezaten.
- Eraginpeko eremu horietatik datozen hegazkinetan, kirurgia-motako maskarak, FFP2 motako maskarak, erabilera bakarreko latexezko eskularruak eta mantalak, daudela bermatu behar duela, tripulazioak edo bidaiariak, beharrezkoa izatekotan erabil ditzaten).
- Gaixotasuna izan dezakeela susmopeko pertsona batentzako eremu mugatu batean, ahal bada, eserleku bat izan behar duela.
- Beharrezkoa izatekotan, osasun-taldeari, kontrola egiteko eskatzen duenean, bidaiarien zerrenda eman behar diola.
- Aireontzia, beharrezkoa balitza, desinfektatu beharko duela.

Tripulazioarentzako gomendioak:

- Hegaztia › gizakia kutsatzeko aukera ahalik eta txikiena izateko, hegaztiakiko eta horien gorozkiekiko kontaktu zuen, jarraitu eta gertukoak ekidin behar dira.
- Oilasko edo hegaztien produktuak ondo-ondo kuzinatuta jatea gomendatzen da betiere. Hozteak edo izozteak ez dute birusaren kontzentrazioa edo birulentzia behar beste gutxitzen.
- Oso garrantzitsua da higie pertsonala uneorokoa izatea, horretarako, sarritan, eskuak ur eta xaboiak garbituz (edo alkoholaz)..
- Eztul edo usin egiterakoan sudurra eta ahoa estaltzea.

Eta, azkenik, aireontziko komandanteak gripe-infekzioaren sintomak agertzen dituen pertsona bat dagoela egiaztatzen badu:

- Aireko Kontrolaren bitartez, hegazkinean gaixotasuna izan dezakeen pertsona bat dagoela jakinaraziko die Aireportuko Aginteei hegaldian zehar, osasun-agintariak jarduketa-protokoloari hasiera eman diezaioten.
- Gaixotasun izan dezakeen pertsona, hegaldian, honako baldintza hauetan bidaiatzea aginduko du:
 - Isolatutako eserleku batera eraman dezatela, gainerako bidaiariengandik aparte.
 - Maskara bat eman diezaiotela.
 - Komun bat gaixoarentzat bakarrik gorde dezatela.
 - Dagokion Autonomia Erkidegoko osasun-agintariak, hegaldia heltzerakoan, gaixoa lekualdatu eta, beharrezkoa izatekotan, erreferentziatzeko osasun-zentroan ospitaleratzeko behar beste baliabideak eskura dituztela egiaztatzea diezaiotela.
- Pertsona gaixoa artatuko dutenek, eskularruak, "CE" eta "FFP2" markadun maskara eta erabili eta botatzeko mantala eraman beharko dituzte.
- Hegaldiaren gainerako tartean, lekualdatzeak ahalik eta gehien murriztuko ditu.
- Honako hauen berri emango die bidaiariei:
 - Hegazkin barruan ahalik eta gutxien mugitu beharko direla.
 - Tripulazioak emandako *datu-bilketarako fitxa* behar bezala beteta eraman beharko dutela, ezinbestez, hegaldiaren osteko 10 egunetan non egongo diren eta leku horietako telefono-zenbakia idatzi beharko dutelarik.

- Hegazkina jomugara heltzean, osasun-aginteez bidaiariei eta tripulazioari osasun-kontrola egingo dietela.
- Datuen fitxak osasun-agintariei entregatzeko, eta ondoren, maletak hartu eta bidaiarekin normal-normal jarraitu ahal izango dutela.
- Hurrengo egunetan sintomarik sumatzekotan, osasun-aginteez zer egin behar duten adieraziko dietela.

4.6. Itsas garraioa

Aurreko atalean bezalaxe, Osasun eta Kontsumo Ministerioaren Osasun Publikoko Zuzendaritzak jarduteko landu dituen hainbat gomendio *zehazten* dira atala honetan ere. Jarduera-protokoloak eta bestelako informazioak, aipatutako Ministerioaren web orrian daude eskura:

<http://www.msc.es/ciudadanos/enfLesiones/enfTransmisibles/pandemia/home.htm>

Protokolo hau "4. fasean" eta hurrengoetan aplikatuko da erabat.

Konpainia kontsignatarioek honakoak egin behar dituzte:

- Hegazti-gripearen kasuak izan dituzten herrialdeetatik datozen ontzietan, datuak biltzeko fitxaren (aipatutako web orrian eskura daitezkeenak) behar beste ale izan behar dituzte, eta behar izatekotan, bidaiariak eta tripulazioak zehar bete dezaten.
- Eraginpeko eremu horietatik datozen ontzietan, kirurgia-motako maskarak, FFP2 motako maskarak, erabilera bakarreko latexezko eskularruak eta mantalak, dardela bermatu behar dute, tripulazioak edo bidaiariak, beharrezkoa izatekotan, erabil ditzaten.
- Ahal den heinean, isolatutako eserleku edo tela bat izan behar dute, pertsonaren batek gaixotasuna izan dezakeelako susmoa dagoenean erabiltzeko.
- Ontziko Kapitainari hartu beharreko neurriei buruzko jarraibideak helarazi behar zaizkio.
- Beharrezkoa izatekotan, osasun-taldeari, kontrola egiteko eskatzen duenean, bidaiarien zerrenda eman behar diola.
- Hala badagokio, ontzia desinfektatu.

Tripulazioarentzako gomendioak:

- Hegaztia › gizakia kutsatzeko aukera ahalik eta txikiena izateko, hegaztiakiko eta horien gorozkiekiko kontaktu zuen, jarraitu eta gertukoak ekidin behar dira.


- Oilasko edo hegaztien produktuak ondo-ondo kuzinatuta jatea gomendatzen da betiere. Hozteak edo izozteak ez dute birusaren kontzentrazioa edo birulentzia behar beste gutxitzen.
- Oso garrantzitsua da higie pertsonala uneorokoa izatea, horretarako, sarritan, eskuak ur eta xaboiak garbituz (edo alkoholaz)..
- Eztul edo usin egiterakoan sudurra eta ahoa estaltzea.

Eta, azkenean, itsasontziko kapitailak gripe-infekzioaren sintomak agertzen dituen pertsona bat dagoela egiaztatzen badu:

- Konpainia kontsignatarioaren bitartez, itsasontzian gaixotasuna izan dezakeen pertsona bat dagoela jakinaraziko die Osasun Agintaritzari portura heldu baino lehen, osasun-agintariak jarduketa-protokoloari hasiera eman diezaioten.
- Gaixotasuna izan dezakeen pertsonekin honakoak egiteko aginduko du:
 - Isolatutako eserleku edo gela batera eraman dezatela, gainerako bidaiariengandik aparte.
 - Maskara bat eman diezaiotela.
 - Komun bat gaixoarentzat bakarrik gorde dezatela.
 - Dagokion Autonomia Erkidegoko osasun-agintariak, hegaldia heltzerakoan, gaixoa lekualdatu eta, beharrezkoa izatekotan, erreferentziazko osasun-zentroan ospitaleratzeko behar beste baliabideak eskura dutela egiaztatu diezaiotela.
- Pertsona gaixoa artatuko dutenek, eskularruak, "CE" eta "FFP2" markadun maskara eta erabili eta botatzeko mantala eraman beharko ditu.
- Itsasaldiaren gainerako tartean, ahalik eta gehien murriztuko ditu lekualdatzeak itsasontzian.
- Honako hauen berri emango die bidaiariei:
 - Itsasontzi barruan ahalik eta gutxien mugitu beharko direla
 - Tripulazioak datuak biltzeko emandako fitxa behar bezala beteta eraman beharko dutela, ezinbestez, itsasaldiaren osteko 7 egunetan non egongo diren eta leku horietako telefono-zenbakia idatzi beharko dutelarik
 - Itsasontzia portura heltzean, osasun-aginteei bidaiariei eta tripulazioari osasun-kontrola egingo dietela

- Datuen fitxak osasun-agintariei entregatzeko, eta ondoren, ontzia laga edo bertan jarraitu eta bidaiarekin normal-normal jarraitu ahal izango dutela
- Hurrengo egunetan sintomarik sumatzekotan, osasun-aginteeek zer egin behar duten adieraziko dietela.

5. Osasun-arloko zaintza-neurriak



[1. oharra: Gogorazi nahi dugu, Eskuliburu honetan, itxuraz normalak diren egoeraz ari garela beti, kasu susmagarririk gabekoa, alegia].

[2. oharra: Neurri hauek, aurreko atalean zehazten eta arriskuaren eragina murrizteko diren neurriekin batera aplikatu eta mantentzen dira].

5.1 Abereek sintomarik duten zaintzea

Enpresaburuek eta langileek litezkeen gertakarien aurrean etengabeko kontrola burutu ahal izateko, hegaztien sintomei buruzko xehetasunak, foku baten aurrean egotearen susmoa eragin dezaketen sintomen artean (pentsu gutxiago jatea, heriotza-tasa areagotzea, eta beste sintoma kliniko batzuk) arriskutsuak "Albaitari Klinika" atalean (17. or.) azaldu dira. Ezaugarri horiek azaltzekotan, "Hegazti-ustiategietako arduradunentzako zein eremu-albaitarientzako jardueragidaliburua" delakoan aurreikusitako jakinarazpena egin beharko da, jakinarazpen hori Foru Aldundietako Nekazaritza Sailak Abeltzaintza Zerbitzuetara hel dadin, eta "Hegazti Influenza Zaindu eta Prebenitzeko eta horren aurrean Azkar Jarduteko Plana - Gidaliburua" izenekoan aurreikusitako jakinarazpen-kateari hasiera emateko. Horren bitartez, kontaktuak aurkitu eta jarraitu egin ahal izango baitira.

Sistema honen bitartez, aurreikusitako jakinarazpen-kopuruaren arabera, ELIKAREN Nekazaritzako Elikagaien Alerta Unitateak emango luke alerta honen berri.

5.2 Langileek sintomarik duten zaintzea

Langileek (eta senitartekoez, batik bat, horiek ustiategian bizi badira) izan ditzaketen sintomen aurrean, "Jarduketa Protokoloa hegazti-gripe (H5N1) kasuaren edo bere kontaktuaren aurrean" deritzon kasu susmagarri bat definitzerakoan, azalduko izan beharko da kon-tuan, hau da, sukerra (tenperatura $\geq 38^{\circ}\text{C}$) edo arnas koadro bat sukarrarekin (eztula, arnasa hartzeko zailtasuna) edo azalpenik gabeko arnas eritasun baten ondoriozko heriotza, eta doku-mentu¹⁴ horretan bertan emandako epidemiologia-irizpideak¹⁵ (sintomak hasi aurreko 7 egune-tan eremuren batera bidaiatu izana, hurbileko kontaktua...).

3. faseko egoeratzat hartzen denez, ez datza, ikuspegi kliniko zorrotz batetik, osasun-zaintza batean baizik, norberak bere sintomak (38°C tik gorako tenperatura, konjuntibitis neurritsua, arnasa hartzeko zailtasunak, ondoez orokorra,...) ezagututa, azkarrago egin ahal izango baita osasun-azterketa egokia. Delako azterketa hori, "1. Diagrama. Kasu susmagarri bat jakinaraztea" delako protokoloan aurreikusi du Osasun Sailak, horretan, pertsona guztiak zein sortzen den informazio dena barne hartzen direlarik.

14) Aipatutako dokumentuaren 2006ko otsailaren 14ko bertsioa, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egindakoa.

15) Ikusi ondorengo helbidean honako agiri hau: "A gripearean birusak (H5N1) gizakien artean eragindako kasuen aurreko jarrera klinikoari buruz, OMEk aldi baterako emandako jarraibideak" http://www.who.int/csr/disease/avian_influenza/guidelines/avianfluclinicalmanagosp.pdf
Honen 2. eranskinean, gizakiak infekzioa harrapatzeak ekar ditzakeenak zehazten dira.

Lanean sorburu izan duen kasu baten berri izaten denean, EAEko LAPean eskumena duen organoak informazio hori jaso beharko du.

Gainera, eta agente biologikoen¹⁶ inguruko Berriazko Osasun-Zaintzarako Protokoloa betez, baita kontingentzia profesionalerako aurreikusitako arreta espezializatuko zerbitzuari¹⁷ ere.

Ezin dugu ahaztu, kontingentzia hau indarrean dagoen araudiak barne hartzen duela, zehazki, Gizarte Segurantzako sistemaren gaixotasun profesionalen laukiko¹⁸ honako atal bi hauetan: 3BO1 "Abereek, abere-produktuek edo gorpuek gizakia kutsa dezaketen infekzio- eta parasitogaixotasunak" eta 3A01 "Infekzio-arriskua egiaztatuta duten prebentzio, osasun-zaintza eta jardueretan lan egiten duten langileengan sortutako gaixotasun infekziosoak".

Gaixotasun profesionalaren kontzeptu horrek berak¹⁹, lanpostu hauek²⁰ beteko duten langileak onartu ahal izateko, aldeztu aurretik sendagileak azterketa egitea eskatzen die enpresei, gaixotasun profesionalak izateko duten arriskua jakiteko. Nola nahi ere, eta Eskuliburu honetan erabiltzeko, egokiagoa deritzogu Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 4.3. artikuluan jasotako definizioa, hau da: <<"Laneko kaltetzat" hartuko dira, lanean izandako edo bertan jarduteagatik sortutako gaixotasunak, patologiak edo lesioak", horrela, horien barruan beste langile batzuk ere hartzen baititu, esate baterako, autonomiak edo kooperatibetako langileak, horiei ere behar bezalako prebentzioa eskaini behar baitzaie.

16) Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Batzordeak 2001eko abenduan onartutako zaintza-protokoloa. Osasun eta Kontsumo Ministerioaren web orrian kontsulta daiteke:
<http://msc.es/ciudadanos/saludAmbLaboral/saludLaboral/vigiTrabajadores/protocolos.htm>

17) Enpresa hori lan-istripuetarako eta gaixotasun profesionaletarako Gizarte Segurantzako Mutualitateak estaltzen duena da zerbitzu hau.

18) Gaixotasun profesionalen zerranda eta horiek sor ditzaketen jarduera nagusiak jasotzen dituen maiatzaren 12ko 1995/1978 Errege Dekretuan (Osasun eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, abuztuaren 25eko BOE) ezarritakoak.

19) Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onartzekoa den, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuko 116. artikuluan xedatutakoaren arabera:

"Gaixotasun profesionaltzat hartuko da, Lege hau aplikatu eta garatzeko ezarriko diren xedapenek onartuko duten laukian zehaztutako jardueretan besteren kontura egindako lanean harrapatutakoa, betiere, gaixotasun profesional bakoitzerako adierazitako laukian barne hartutako elementu edo substantzien eraginaren ondorioz sortu badira.

Laukietan egon gabe, gaixotasun profesional berriak barne hartu behar direla uste izatekotan, xedapen horien bitartez ezarriko da prozedura. Nolanahi ere, delako prozedura horretan, ezinbestez, Osasun eta Kontsumo Ministerioaren txostena barne hartu beharko da."

20) Ikusi lehen aipatutako 1/1994 LEDko 196. artikuluan xedatutakoa:

"Gaixotasun profesionalen inguruko arau bereziak.

1. Gaixotasun profesionalen arriskupeko lanpostuak dituzten enpresa guztiek, langileak onartu baino lehen, halaber, azterketa medikoak egin beharko dizkiete izangaiei, eta baita, gaixotasun profesional bakoitzerako ezarritako aldizkako azterketa egin ere, eta horiek, Lan eta Gizarte Galetako Ministerioak horretarako emango dituen arauetan ezarritakoaren arabera.

2. Azterketak enpresaren kargura egingo dira eta derrigorrezkoak izango dira langileentzat, eta horrek sor ditzakeen, hala badagokio, joan-etorrien gastuak eta, horren ondorioz gal dezakeen soldata-zati oso-oso ordaindu beharko ditu enpresak.

3. Enpresa horiek ezingo dituzte, azterketa medikoetan enpresa horretako lanpostuak betetzeko gaitzat jo ez diren langileak kontratatu. Ondorengo azterketa medikoetan lanpostuan jarraitzeko gaitasuna bertan behera gelditzeotan ere, debekatuta dago langile horrek lanpostu horretan jarrai dezala.

4. Aplikatu eta garatzeko xedapenek ezarriko dute zein kasu berezitan, eta kontratazioak horrela eskatzen duelako, egin ahal izango diren azterketa mediko horiek, lanean hasi eta ondorengo epearen barruan"

Aurreko paragrafoan aipatutakoarekin jarraituz, bakar-bakarrik gaineratu behar da, aipatutako protokolo berezi horretako 3. eta 4. kapituluak (eta azalpen honen bukaera aldean), jarraitu beharreko gidaliburuaren laburpena (Gidaliburu osoa nahi izatekotan, Osasun eta Kontsumo Ministerioaren web orrira²¹ jo, eta pdf formatuan dagoen protokoloa jaitsi ondoren, 49tik 63ra bitarteko orriak kontsultatu baino ez du egin behar), eta griperako ezarritako berariazko fitxaren laburpena eransten direla.

Osasun arloko zaintza-neurriek, birusak errazago eragitea ekar dezaketen faktoreak izan beharko dira kontuan, gidaliburu honetako 1. kapituluaz azaldu eta berriro ere gogoraraziko ditugunak: 65 urtetik gorakoak dira errazen kutsatu ahal direnak (lehenengo sektorean –nekazaritza eta abeltzaintza- ez da arraroa, adin horretatik gorakoek lanean jarraitzea); arnasketa-aparatuko edo bihotzeko patologia kronikoak dituzten edozein adinetako pertsonak; edo honakoren bat duneak: diabetesa, nefropatiak, hemoglobinopatiak eta immunodepresio nabarmenak. Beraz, pertsona horiek infekzio-iturrietatik aldendu beharko dira, lanpostu horietarako ez gaitzat joaz, hau da, dagokigun influenzabirusaren eraginpekoak izan daitezkeen lanpostuetarako.

Hasiera batean, honako hauek hartzen dituzten lanpostuak izan dezakete arriskua²², pandemiaren fasearen arabera:

- Hegazti-ustiagategiak edo etxe-hegaztiak prozesatzeko plantak;
- Hegazti-hiltegiak;
- Animalia bizien merkatuak;
- Hegaztiak harrapatzeaz, ontziratzeaz edo garraiatzeaz arduratzen diren langileak betetzen dituztenak (hegaztien despopulazioaz, harrapaketa zein hildako hegaztiak suntsitzeaz arduratzen direnak barne);
- Ustiatzearen garbiketa edo desinfektatze lanetan diharduten ekipoak;
- Garraiolariak;
- Epizootia endemikotzat hartuta dagoen herrialdeetatik datozen salgaien aduana-iraganbidean edo aduana-kontrollean behar egiten duten langileak;
- Albaitari-osasunaren arloko teknikariak (laborategiko langileak barne);

21) <http://msc.es/ciudadanos/saludAmbLaboral/saludLaboral/vigiTrabajadores/protocolos.htm>

22) 2004ko otsailaren 20an "Gripearean birusak A(H5N1) gizakien artean eragindako kasuen aurreko jarrera klinikoari buruz, OMEk aldi baterako emandako jarraibideak" izenburupean argitaratu zen agiriko 2. eranskinean, "Gripearean birusak A(H5N1) gizakiak infektatzea ekar dezaketen egoerak" delakoan, aipatutakoak, zein FAOren Abere Ekoizpen eta Osasun Zuzendaritzaren "Abere-osasuna, txosten berezia. Hegazti gripea – segurtasun-neurriak" izenekoa jasotzen direnak azaltzen dira. Azken hau FAOren web orrian kontsulta daiteke: http://www.fao.org/ag/againfo/subjects/es/health/diseases-cards/avian_safety.html

- Konpainiako hegaztien merkataritza,
- Patogenotasun-maila handiko H5N1 influenza birusarekin infektatuta egon daitezkeen pertsonak artatzen dituzten osasun-zaintzako langileak

Ez da gehiegikeria, nolahi ere, osasun-protokolo horren lege-oinarriak aipatzea, hau da:

- Azaroaren 8ko 31/1995 Legearen, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoaren 22. artikulua;
- Urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzeko izan zenaren 37.3.c. artikulua;
- Eta maiatzaren 12ko 664/1997 Errege Dekretuaren, langileak lanean agente biologikoen eraginpean egotearekin zerikusirik duten arriskuen aurka babestekoaren artikulua guztiak, eta bereziki, 8. artikulua.

Osasun-agiriei (goian aipatutako 8. artikuluan, langileentzat aurreikusitako osasun-zaintza-
ren ondorioz sorturiko osasun-historia) dagokienez, gaineratu behar da, derrigorrezko zaintza-
aldiaren ondoren enpresa ez bada horretaz arduratzen, osasun-historia horiek ez direla suntsitu
behar, lan-arloko aginteei helarazi baizik. Azken honek, kopiarik gorde gabe, osasun-agintariei
igorriko die, eta horrek, datu horien konfidentzialtasuna bermatuko du.

[ERANSKINA]

(Berariazko Osasun Zaintzarako Protokoloa: "Agente Biologikoak")

3. KAPITULUA. OSASUN PROTOKOLOA

OHAR OROKORRAK

Zaindu beharreko litezkeen eraginen arabera egindako fitxa ezberdinetako edukiak erabili ahal izango dituzten historia kliniko-laboralaren ereduak erantsi zaio protokolo honi. Osasun-zerbitzu ezberdinen ezaugarri eta lan egiteko era ezberdinetara egokitu ahal izango da historia kliniko-laboralaren ereduak –eta ondorioz, proposatutakoaren ezberdina-, baldin eta protokolo honetako edukiak kontuan hartzen badira.

Langileak lanean hasi behar duenean, langilea dagokion lanpostura egokitzeko irizpideak izango ditu kontuan osasun-zaintzak, eta honako hauen arabera izango da:

- Immunoeskasia izatea edo infekzioa errazago harrapatzeko aukera eragin dezakeen gaixotasunen bat duen aztertzea. Halaber, haurdun edo edoskitzaroan egoteagatik ematen diren sentiberatasun-egoera bereziak.
- Dagokion jardueran identifikatutako agente biologikoen aurrean, langileak duen immunitate-egoera. Zentzu honetan, txerto eraginkorrik dagoenean, 664/97 EDko 8. artikuluan ezartzen dena betez, jarri egin beharko da. Immunitate-egoera hori baloratzeko markadoreak badira, agentearen eta txertaketa-kontrol egokiaren (betiere, txertaketa-motak gomendatzen badu) arabera erabili beharko dira.

Aldizkako azterketetan, goian aipatutako bi puntu horiez gain, honako hauek izan beharko dira kontuan: gaixotasun infekzioso azpiklinikoaren diagnostiko goiztiarra egitea, langilea zein agente biologikoren eraginpean egon den bereiztea, eta azken hori jarraituz eta agentearen ezaugarrien arabera (airetikoa transmisioa...), jarduera-mota, babes-neurriak, etab, eta mikroorganismoak zuzenean edo zeharka identifikatzeko markadore biologikoak edo metodoak erabiliko dira.

Azkenik, istripu edo gertakari baten ondorioz ematen diren eragin-egoeretan, adibidez, kutsatutako materialarekin ustekabea ziztatzean, euspen-sistemen huts egitean (segurtasun biologikodun kabinaren edo presio negatibodun gelaren huts egitea) edo, edukiontzia zehatz bateko edukia barreiatzerakoan, eta abarretan, istripua gertatu eta berehala hartuko dira kontrol-neurriak, arriskuaren iturriari, immunitatearen balorazioari eta ezarritako profilaxi-motari buruzko informazioa bilduko da eta, gertakari edo istripu horren jarraipena egingo da.

OSASUN AZTERKETA OROKORRETARAKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK

Agente biologikoen eraginpean jarduten diren langileen osasun-zaintza burutzeko, honako alderdi hauek izango dira kontuan:

- a) Mikroorganismoak, exo edo endotoxinak maneiatzearen ondoriozko arriskuak.
- b) Mikroorganismoen eraginpean jakin gabe egotearen ondoriozko arriskuak.
- c) Alergenoen ondoriozko arriskuak.
- d) Historia Kliniko-laboralean anamnesia eta miaketa zehatza barne hartuko da, zein immunizazio-mota hartu eta horiek noiz hartu diren jaso beharko delarik.
- e) Diagnostikoa egiteko, beharrezkoa izango da mikroorganismoa zuzenean edo zeharka identifikatzea.
- f) Hor dirauen edo iragandako infekzioa baten markadorerik egotekotan, jarraipenean eta berriro laneratzeko erabiltzea gomendatzen da.

3.1. Lan Historia

Honakoen inguruko informazioa izan beharko da:

- Aurreko eragin-egoerak (arriskupeko lanpostuak eta horietan zenbat denbora eman den)
- Oraingo lanpostua
- Eraginpean egoteko arriskua
- Arrisku biologikodun lan-istripuak

Jatorri biologikoko gaixotasun profesionalak

3.2. Historia klinikoa

ANAMNESIA

Langile bate gaixotasun infekzioso bat jasan edo transmititzeko baldintza egokiak zeintzuk diren jasoko dugu.

- Gaixotasun infekziosoaren aurrekariak.
- Hautzaroan eta heldutasunean hartutako txertoak.
- Aldez aurretik profilaxi kimikorik jaso den.

- Bihotzeko gaixotasun kronikoaren aurrekariak: bakterioak edo birusak eragindako beheko arnasbideetako infekzioa izateko arrisku handiagoa dute (influenza, pneumokoko, VSR).
- Birikietako gaixotasun buxatzaile baten aurrekariak (asma, enfisema, etab.): arnasbideetako infekzio gehiago izateko arriskua dakar berarekin.
- Azaleko gaixotasun kronikoa (ekzema, dermatitis kronikoa, etab.): bereziki, Staphylococcus Aureus, Streptococcus Pyogenes, Herpes, etab bezalako germenen bitartez infektatzeko arriskua.
- Odoleko gaixotasunak (igitai-formako zelulen anemia, anemia autoimmuneak, etab.), Salmonella, Haemophilus, Neumococo eta horrelakoek eragindako infekzioak erraztasun bereziz harrapatzen dituzte.
- Kateterrak eta balbula-inplanteak (bentrikulu-peritonekoak, dialisia, etab.) daramatzatenak. Langile hauek, gainera, immunoeskazia izaten dute, eta kateterra sartzen den lekutik, batik bat, Staphylococcus Aureus, Staphylococcus Epidermidis, Candida bidezko infekzioak bereganatzeko arrisku handia.
- Immunokonprometituak: neoplasiak, neutropeniak, trasplanteak, GIB, esteroideen edo immunogutzitzeko terapia dituzten langileak dira. Honelako langileak duten florak edo ospitaleko ingurumeneko germenek kutsa ditzakete. Denboraren poderioz, larruazaleko, sudur-faringeko edo urdail-hesteetako flora arrunta aldatu eta lantokian kokatutako germen bilaka daitezke. Candidak, Staphylococcus odolbatzaile negatiboez, Staphylococcus Aureusez eta bazilo enteriko Gram-negatiboez eragindakoak izaten dira ospitaletan harrapatutako infekzioak.
- Haurdun egon daitezkeen langileak. Oro har, infekzioak prebenitzeko gomendioak behar bezala betetzen dituen osasun-langile haurdun batek, haur-eskolako irakasle batek edo eguneko harrera-zentro bateko langile batek beste arrisku duela onartzen da. Hona hemen haurdun batentzat arriskutsuenak diren germeneak: Citomegalovirus, Errubeola, Elgorria, Hazizurriak, Barizela-zoster, TBC, Gripea, E Hepatitisa, B19 Parbobirusa.
- Haurrez arduratzen diren osasun-langileak (bereziki, urtetik beherakoa hurrekin). Langilea immunizatu gabeko mikroorganismo patogenoen edo immunizazioa partziala edo iragankorra denen aurrean, horiek infekzio larria edo sintomarik gabeko eramailearen egoera sor ditzakete langilearengan, eta germen hori senitartekoei erraz kutsatzeko aukera dago. Dagozkigun hauen inguruan, honako hauek aipa daitezke: Gripearean birusa, tosferina, arnasbideetako birus sintzitala, errotabirusa eta TBC.

MIAKETA FISIKOA

Infekzioa transmititzeko aukera edo horren aurrean ahultasun berezia areago ditzaketen egoerak detektatzeko helburuarekin. Etorkizuneko arazoren bat lanarekin zerikusirik duen ezartzeko oinarritzat ere har daiteke. Hala ere, ez dago daturik infekzioak kontrolatzeko mediku-azterketa osoa beharrezkoa dela arrazoitzeko.

PROBA OSAGARRIAK

- a) a) Berariazkoak: langilearen immunitate-egoera egiaztatzeko (VHB, Errubeola, Mantoux, etab), mikroorganismoa aurkitzeko eta diagnostikoa lortzeko edo AB jakin baten eraginaren sumoa egiaztatzeko erabiliko dira.
- b) Orokorrak: ez dago, lan egiten hasi aurretik ohiko laborategiko analisiak (hemograma, BK, gernu-analisi arrunta, Rx, etab.) edo patogeno enterikoen bilaketa egitea, errentagarria dela edo arriskuen prebentziorako erabil daitezkeela arrazoitzen duen daturik.

BALORAZIO IRIZPIDEAK

Protokoloa bete ostean, infekzioa bereganatzeko duten arriskuaren arabera sailkatuko ditugu langileak:

Babestutako langilea: ez da infekzioa harrapatzeko aukera gehiago eman diezaiokeen faktoreen jabe, behar bezala immunizatuta dago, eta oinarritzko higie-ne-arauak betetzen ditu. Ez du infekzioa harrapatzeko arrisku berezirik erakusten. Ez zaio lan-murrizketarik ezarri behar.

Langile minberak: infekzioa errazago harrapatzea ahalbidetzen dioten faktoreak ditu edo behar bezalako immunizazioa izatea galarazten diotenak. Oro har, langile hauek higie-ne-praktika egokiak jarraitzen badituzte ere, oso eragin-egoera arriskutsuetan burutu beharreko jardueretan murrizketak izan behar dituzte.

4. KAPITULUA. DEKTEKTATUTAKO ARAZOEN ARABERAKO JARRAIBIDEAK

Lanean agente biologiko baten eraginpean egotearen ondoriozko koadro nosologiko susmagarri baten aurrean, edozein langilerekin, dagokion protokoloa burutu eta Laneko Istripu eta Gaixotasun Profesionalekin zerikusirik duen kontingentzia estaltzeko aurreikusitako arretazerbitzu espezializatura eraman behar da gaixoa.

Lanean arrisku biologikoen eraginpean egoteari loturiko arriskuen aurrean langileak babesteko, maiatzaren 12ko 664/1997 EDak ezartzen duen bezala, lanean agente biologikoen era

ginpean egotearen ondoriozko arrisku bat edo gehiago identifikatzekotan, saihesterik egon ez den kasuetarako, langileak eraginpean izan dituen arriskuaren izaera, maila eta iraupena ezarri beharko dira.

Lanean hasi, alta, baino lehen, beste osasun-azterketa bat egin behar da eta, egoeraren arabera lanpostuz aldatzea beharrezkoa den aztertu beharko da.

Era berean, arriskuaren azterketa berri bat egingo da, langile batengan, lantokian agente biologikoen eraginpean egotearen ondorioz sortutako infekzio edo gaixotasun susmagarri bat detektatzen denean.

Agerraldirik ematekotan, Autonomia Erkidegoko osasun-aginteeekin harremanetan jarriko da kasu jakin hori ahalik eta ondoen azter dezaten, zioak edo langilearen gaixotasuna aztertzeke helburuarekin.

Dena den, elikagaien infekzio toxikoen agerraldiak saihesteko, instalazio eta materialen higiene-baldintzak hobetu, eta elikagaiak behar bezala maneiatu eta arretaz kontserbatzeko osasun-hezkuntza helaraziko da.

Protokoloan jarri beharrezko datuen gida-puntuak:

- Langilearen eta enpresaren identifikazioa.
- Lan-historia, egungo lanpostuan eta aurreko lanpostuetan (eta enpresetan).
- Historia klinikoa, honako hauek barne hartuko dituela: anamnesia, miaketa, proba osagarriak eta ondorioak, beharrezkoak izanez gero, lanposturako egokitzapenak eta hurrengo osasun-azterketen datak adieraziz.

Eranskinak

[I. eranskina: "Balizko kasua" HEGAZTIENGAN: Emergentziazko neurriak]

[88-94]

[II. eranskina: "Balizko kasua" GIZAKIENGAN: Emergentziazko neurriak]

[95-106]

[III. eranskina: Hegazti-ustiategi berri eta beste instalazio batzuen diseinuari buruzko LAP arloko betekizunak]

[107-134]

I. eranskina

“Balizko kasua” HEGAZTIENGAN: Emergentziazko neurriak

[1. oharra: Kontuan izan behar da balizko kasu bat aurreikusten bada, emergentziazko neurriei egun gutxi batzuetan eutsi beharko zaizkiela, NEIKERrek, analisiaz arduratuko den laborategiak kasua baieztatu edo ezeztatu arte].

[2. oharra: Eranskin honetan azaltzen dien jarduketak, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak, hiru lurraldeetako Foru Aldundiek, Neiker Laborategiak eta ELIKA Fundazioak egindako “Hegazti-influenzaren susmoen aurrean hegazti-ustiategietako eremu-albaitari zein arduradunentzako gidalibura” deritzonoko 4. kapitulutik atera dira. Kontsultatu eguneraketak ondorengo web orrian: www.elika.net].

Langile edo senitarteko bat kutsatu baino lehen, aukera gehiago dago lehen kasu susmagarria ustiategiko animalien artean ematea.

Hegaztien sintomak

Hegazti-gripearen birusa eremu batean lehen aldiz azaltzen denean, hegaztiak ez dute horren aurkako inolako immunitate-babesik izaten, eta ondorioz, eragindako ustiategietako hegaztien %80-100 bitartean hil egiten dira.

Heriotza-tasa azkar eta masibo hori eman ezean, badago infekzioaren sintoma adierazgarriak sumatzerik. Birusak gehien kutsatzen dituen hegaztien artean (oilaskoak eta indioilarrak), adibidez, honako sintomak ematen dira, banaka zein elkarrekin:

- Depresio larria, jateko gogorik eza.
- Askoz arrautza gutxiago errutea.
- Arnasa hartzeko zailtasunak, sinusitisa.

- Aurpegiko edema eta gehiegizko negar-jarioa.
- Gangar beluri edo urdinxkak eta eroriak.
- Odol-jarioa hanketan.
- Beherakoa.
- Bat-bateko heriotza, eta beste sintoma batzuk.



Odol-jarioa hanketan



Aurpegiko edema



Gangar beluri eta eroria

Hegazti-ustiategi batean 24 ordutan hegaztien %20a hiltzen bada, askoz arrautza gutxiago erruten badira eta/edo nabarmen gutxiago jaten badute, gorago aipatutako sintomak izan ala izan gabe, edo ingurune hurbilean 5 bao-hegazti hil baino gehiago aurkitzen badira, ondorengo **jarduera hauek** gauzatu beharko dira (*aginteei jakinarazi eta ustiategian biosegurtasun-neurriak ezartzea*):

Jakinarazpena

Indarrean dagoen araudia izan beharko da kontuan jakinarazpena egiterakoan:

- Animalien Osasunaren gaineko 8/2003 Legearen 5. artikulua ezartzen duenez (2003ko apirilaren 25eko 99. BOE), "pertsona fisiko edo juridiko orok, fisikoak zein pribatuak, berehala, eta xede horretarako zehaztutako moduan eta epean, jakinarazi beharko dizkio erakunde eskudunari izaera epizootikoko gaixotasun guztien gainean ezagutzen dituen fokua; edo oso birulentoak izateagatik, oso larriak izateagatik edo oso azkar barreiatzeagatik animaliak (etxeakoak zein baso-koak) kutsatu ahal dituen gaixotasunak edo osasun publikoan arriskutsuak izan ahal direnak (...). Indarrean dagoen legedian gaixotasunak jakinarazteko eperik zehaztu ezean, gehienez 24 ordukoa izango da (ezinbestez jakinarazi behar gaixotasunetarako. 89.

- Prozesu patologiko guztiak ere jakinarazi behar dira. Prozesu horiek gorago adierazitako baldintzarik bete ez arren, ezinbestez jakinarazi beharreko gaixotasunen zerrendan egon litekeela uste badugu, horren berri eman beharko dugu.

Gaixotasun kontrolatzeko neurriak lehenbailehen abian jartzea dugu helburu. *Erantzun hori, hein handi batean, ustiategiko titularraren eta albitari klinikoaren esku egongo da.*

Hegazti-ustiategiko titularrak zerbait arraroa antzematen badu (diagnosi klinikoan azalduko sintomaren bat: heriotza, jateko gogorik eza, etab.) albitari klinikoari jakinaraziko dio (eremukoari). Albitari klinikoak gaixotasunaren susmoa izaten badu, berehala jakinarazi beharko du dagokion Foru Aldundiaren Abeltzaintza Zerbitzuan.

Foru Aldundien Nekazaritza Saisetako Abeltzaintza Zerbitzuak:

	<i>Telefonoa</i>	<i>Faxa</i>
Araba:	945 18 18 18	945 18 18 34
Bizkaia:	944 06 68 32	944 06 68 21
Gipuzkoa:	943 00 04 20	943 42 91 49

Foru Aldundien Nekazaritza Saisetako Abeltzaintza Zerbitzuek ezarritako protokoloa hasiko dute eta laginak hartzeaz eta bidaltzeaz arduratuko dira. Bidalketa, Euskal Autonomia Erkidegoko Neiker-Derio laborategi ofizialera eramango dira, hemen analisisa egin dezaten.

BIOSEGURTASUN NEURRIAK

Birusa zabaltzea saihesteko, hainbat neurri izan behar dira kontuan.

Biosegurtasuna: alde batetik, ustiategietako estruktura-neurri multzoa da; eta bestetik, gaixotasun infektibo-kutsakorrak ustiategietan ez sartzeko, eta ondorioz, ez zabaltzeko, eta animaliak babesteko neurriak. Gaixotasunaren gaineko susmorik egonez gero, biosegurtasun neurriak ezartzeak, gaixotasuna zabaltzea saihestu ahal izango du.

Neurri hauek hiru motatakoak izan daitezke: isolamendu-neurriak, mugimenduen kontrola eta desinfekzioa.

Gidaliburu honetan agertuko diren kasuetan, eta praktikotasuna kontuan izanik, beharrezkoa izango da sen ona izatea, bai eta arrisku erlatiboa gogoan hartzea ere. Hegazti-gripea zabaltzeko arriskua oso altua denez, neurriak ahalik eta zuhurtzia handienarekin ezarriko dira.

1. Isolamendu-neurriak

- Abeletxe susmagarria bisitatu baino lehen, arropa, oinetakoak eta txanoa erabili behar izango direla aurreikusi **beharko** da. Arropa hori guztia, abeletxean geratuko da. Abeletxean ez da ezer sartuko, ondoren elementu horiek desinfektatzea oso zaila baldin bada (argazki-makina, paperak, sakelako telefonoa, agenda, etab.)
- Autoa ustiategitik kanpo utziko da.
- Ustiategietako langileek arropa, oinetakoak eta txanoa erabiliko dituzte, baina arropa hori ez dute ustiategitik aterako. Arroba garbiarekiko kontaktua saihesteko, posible balitz, arropa garbirako aldagela eta arropa zikinerakoa egon beharko litza-teke ustiategian.
- Abeletxea guztiz itxita egon beharko da, hegaztirik edo karraskaririk sar ez dadin. Barruan hegaztirik izanez gero, irten daitezela saihestu beharko da.
- Abeletxetik irten baino lehen, albaitariak sudurra garbitu beharko du (behin eta berriro zintz eginez), birusa leku batetik bestera ez eramateko.
- Abeletxearen irteeran oinetakoak garbitzeko gune bat jarri beharko da, desinfektatzaile egokiak erabiliz.
- Abeletxe bat bisitatu ondoren, albaitaria ezin izango da inongo abeletxetan sartu hurrengo hiru egunetan.

2. Mugimenduen kontrola

- Abeltzainak honako hauek saihestu beharko ditu, erakunde eskudunen agindu berriak izan arte (lurraldeko Abeltzaintza Zerbitzuak): abeletxean pentsua sartzea, kontsumorako edo inkubatzeko arrautzak, olio-zirina edo bestelako produktuak ateratzea).
- Abeletxerako sarbideak erabat itxita egongo dira. Eta abeltzainaren baimena izan ezean, abeletxera ezin izango da autorik edo pertsonarik hurbildu. Une guztietan, abeletxeko ate guztiak itxita egongo dira.
- Abeltzainak ez du abeletxerik bisitatu behar eta, behin betiko emaitzak izan arte, hegazti-hazkuntzarekin harremanetan dagoen jendearekin ez egotea gomendatuko zaio.

- Abeletxean oilategiko hegaztiak egonez gero, leku itxian egongo dira zaintzapean, behin tegiko emaitzak izan arte.

3. Desinfekzioa

- Egoera susmagarrietan, hurrengo desinfektatzaileak izango dira beharrezkoak:

	Desinfektatzaileak	Erabilera eta arreta-neurriak
Materialak	Sodio hipoklorittoa (lixiba), kloro aktiboaren disoluzioa %2	Kloro-disoluzioak ez dira nahastu behar amoniakoa duten garbiketa-produktuekin
Fumigazioa	Formalina + potasio permanganatua	40 ml. de formalina, 1 m ³ fumigatzeko

Proportzioan nahastu beharko da (formalinaren 3 zati eta permanganatoaren 2 zati). Metalezko ontzietan formola jarri BAINO LEHEN jarriko dugu potasio permanganatua. EZ DA PLASTIKOZKO EDO POLIETILENOZKO ONTZIRIK ERABILIKO.

- Bisita baten ostean, ustiategitik **atera beharreko elementu guztiak** sailkatuko dira, aldez aurretik desinfektatzerik dagoen kontuan arturik:
 - Arropa poltsa barruan aterako da, eta lixibarekin desinfektatuko da.
 - Beste objektu batzuk, formaldehido gasarekin desinfektatu ahal izango dira (argazki-makina, telefonoak, material kirurgikoa).
 - Ezinbestekoak ez diren gauzak abeletxean utziko dira (boligrafoak).
- Laborategira bidali beharreko lagin-kutxa ondo itxi eta desinfektatu beharko da.
- Abeletxetik irten baino lehen, ibilgailu guztiak desinfektatu behar dira (birusen aurkako desinfektatzaile aktiboak erabiliz).

4. Ustiategietako langileentzako segurtasun eta higiene neurriak

Hegazti-gripearen birusa dela-eta, oso arraroa da gizakiak kutsatzea, baina aukera egon badago. Sintomen artean konjuntibitis moderatua izan ahal da, eta gripearenak bezalako sintomak ere agertu ahal dira.


I. eranskina: "Balizko kasua" HEGAZTIENGAN: Emergentziazko neurriak

Horrexegatik, higiene neurri orokorretaz gain, hurrengo aholku hauek izan beharko dira kon-tuan:

- Norberaren higiena oso zorrotza izango da, material kutsakorra arnastu edo aho-ratzea saihesteko. Xaboi desinfektatzaileak erabiliko dira, eta ustiategitik alde egin baino lehen, garbitu ondo-ondo sudurra (behin eta berriro zintz eginez).
- Giro kutsatuan ahalik eta denbora-tarterik laburrena emango da: animalien lagi-nak hartzeko bestekoa.

Ustiategi susmagarrian gaixotasuna egiaztatzekotan, ustiategiko langile guztiak zein albaita-ria osasun-zentrora joango dira horren gaineko xehetasun guztiak emateko; eta medikuak biru-saren kontrako tratamendu profilaktikoa aginduko die, beharrezkotzat joz gero.

Bestalde, eta hezgati-ustiategiko jabearentzat erabilgarri izan dadin, hona nola jardun behar-ko den Administrazioak *susmoa dagoela abistzekotan*:



NAES AA Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko Alerta Arduraduna
 FFAA AA Foru Aldundietako Alerta Arduraduna
 OPAA Osasun Publikoko Alerta Arduraduna
 NAEM Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa
 ELIKA AE ELIKAKo Alerta Unitatea

Ondoren, eta ahalik eta epe laburrenean, ustiategi susmagarritik **gertu dauden hegazti-ustiategien erregistroa egin** beharko da, honelako irizpide hauei jarraituz:

- Ustiategi susmagarriaren **kilometro 1eko** inguruan dauden ustiategiak zein, horrekiko trazabilitate-harreman zuzena dituztenak **ibilgetu**, erroldan sartu eta, horietan azterketa klinikoa egitea.
- Abeletxe susmagarriaren inguruko **3 km-ko (Babes Eremua)** eta 10 km-ko **(Zaintza Eremua)** radioan dagoen ustiategi-kopurua balioetsi eta erregistroan sartzea.

Ahal den neurrian, azken asteetan (1-3 aste) ustiategitik atera diren material, animalia eta pertsonak identifikatu eta aurkitzea proposatzen da, elikagaiak kontsumo-katetik kentzeko, beste material batzuk desinfektatu edo suntsitzeko eta, ustiategikoak ez diren pertsoneri (garbitzaileak, albitariak, saltzaileak, bisitariak,...) ohartarazteko.

II. eranskina

"Balizko kasua" GIZAKIENGAN: Emergentziazko neurriak

Esan bezala, gizakiak kutsatzeko dagoen arriskua txikia bada ere, osasun-sektoreko langilei (asistentzia-zerbitzuetakoei zein laneko arriskuen prebentzio-zerbitzuetakoei), ondoren azaltzen den protokoloa, "Jarduketa protokoloa hegazti-gripe (H5N1) kasuaren edo bere kontaktua-aren aurrean" izenekoa, helaraztea nahi du OSALANek, ezagutu dezaten

Jatorrizko protokoloa, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Osasun Publikoko Zaintza Epidemiologikoko Zerbitzuek egin dute eta eztabaidatua izan ondoren, Osasun Saileko Gripearean Jarraipena eta Asistentzia Sanitaria egiten duen Batzordeak onartu egin zuen

Bere aplikazioa ezinbestekoa da EAEko asistentzia-sare publiko eta pribatu guztirako

OMEk agindutako alerta pandemikoaren 3. fasean zehar eta bere asmoa honako helburu hau betetzea da

Alerta Pandemikoaren aldi honetan zehar EAEn agertzen diren A/H5 gripearean birusak infektatutako kasuen detekzioa, diagnostikoa, dagokion jakinarazpena eta euspina bermatzea.

Europar Batasunak "Technical guidance document on procedure for communication to Member States and the Commission About Influenza A/H5 events" izeneko bere agirian eman-dako arauak izan ditu kontuan protokoloak.

Protokolo hau etengabe eguneratzen da Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren WEB orrian: <http://www.osanet.net>, eta gaur egun, honako atal honetan:

› profesionalak › zainketa epidemiologikoak › hegazti-gripea

JARDUKETA PROTOKOLOA HEGAZTI GRIPE (H5N1) KASUAREN EDO BERE KONTAKTUAREN AURREAN

(Alerta Pandemikoaren jarduketa 3. fasean)

[Ikusi hurrengo orrialdean OMEren faseen taula]

Erreferentziazko protokoloa ez da transkribatu, gaixotasunari buruzko ezagutza tekniko-sanitarioen egoren bilakaeraren eta aurrerapenaren arabera, OMEk emandako jarraibideen bitartez aldatu egin ahal delako. Nolanahi ere, osasun-langileek protokolo horren eduki materiala ezagutzea komeni da (kontsultatu protokolo eguneratu osoa lehen aipatutako web orrian, horretan, besteak beste, honako hauek aurkitu ahal dituztelako:

- › Gaixotasunaren deskripzioa;
- › Protokoloaren helburua,
- › hegazti gripe (H5N1) kasu baten definizioak;
- › Hegazti gripe kasu baten nahitaezko jakinarazpena; jarduteko jarraibideak
- › Lehen mailako arretan eta ospitalez kanpoko larrialdi-egoeretan nola jardun behar den;
- › Jarduketa ospitaleetan;
- › Laborategira laginak bidaltzea;
- › Jarduketak etxeko berrogeialdian dauden susmopeko kasuetan; pazienteen lekualdaketa;
- › Hileta osasuna.

Eranskin gisa, protokoloak honako hauek ere jasotzen ditu:

- › OMEren gripe-pandemiaren faseak;
- › Norbera babesteko ekipamendua (NBE);
- › Arnas higiena;
- › Garbiketari, desinfekzioari eta birziklatzeari buruzko gomendioak;
- › Eraginpean dagoen pertsonal sanitarioa; Birusaren kontrakoak;
- › A/H5 gripe-kasuak jakinarazteko inprimakia;
- › NBEa janzteko sekuentzia;
- › NBEa eranzteko sekuentzia; eta
- › Hegazti-gripea eta bere kontaktuen kasuak maneiatzeko algoritmoa.

Gripe-pandemiaren faseak. OME 2005	
Pandemia arteko Aldia	Oinarrizko helburuak osasun publikoan
<p>1. fasea</p> <p>Ez da gripe-birusaren azpimota berririk¹ detektatu pertsonengan.</p> <p>Animalietan, aldeztu aurretik pertsonengan infekzioa eragin duen birusaren azpimotaren bat detekta daiteke. Hala ere, pertsonentzako gaixotasun edo infekzio-arriskua² baxua dela uste da.</p>	<p>Pandemiaren aurrean prestaketa indartzea, mundu-, eskualde, nazio- eta azpinazio-mailan.</p>
<p>2. fasea</p> <p>Ez da gripe-birusaren azpimota berririk detektatu pertsonengan. Hala ere, animalietan hedatutako gripe-birusaren azpimota batek pertsonentzat kontuan hartzeko gaixotasuna-arriskua² adierazten du.</p>	<p>Pertsonengan transmisio-arriskua ahalik eta gehien murriztea; aipatutako transmisioa gertatuko balitz, detektatu eta berehala jakinarazi.</p>
Alerta Pandemikoaren Aldia	
<p>3. fasea (Gaur egun fase honetan aurkitzen gara)</p> <p>Giza infekzioa(k) gripe-birusaren azpimota berriarekin, baina pertsonatik pertsonara gertatutako transmisiorik gabe, edo asko jota transmisio-kasu arraroren bat kontaktu hurbileko bati.</p>	<p>Birusaren azpimota berriaren karakterizazio azkarra eta kasu gehigarrien detekzioa eta jakinarazpen goiztiarra ziurtatzea.</p>
<p>4. fasea</p> <p>Pertsonatik pertsonara murriztutako transmisio-kasuen talde txikiak. Transmisioa oso mugatua dago; hortaz, birusa ez dago gizakiei ondo moldatua³.</p>	<p>Birus berriaren transmisioa geldiaraztea mugatutako guneen barruan edo hedapena atzeratzea, erantzuteko neurriak ezartzeko denbora irabazteko asmoz.</p>
<p>5. fasea</p> <p>Kasuen talde handiagoak, pertsonatik pertsonarako transmisioa mugatua izaten jarraitu arren; hortaz, birusaren gizakienganako moldatzeak gora egin du, baina oraindik ez da guztiz transmitigarria (kontuan hartzeko pandemia-arriskua)³.</p>	<p>Hedapena geldiarazteko edo atzeratzeko ahaleginak maximizatzea, pandemia eragozteko eta pandemiaren aurrean erantzuteko neurriak ezartzeko denbora irabazteko.</p>
Aldi Pandemikoa	
<p>6. fasea</p> <p>Fase pandemikoa. Transmisio altua eta eutsia oro har biztanlerian.</p>	<p>Pandemiaren eragina ahalik eta gehien murriztea.</p>
Pandemiaren ondoko Aldia	
<p>Pandemia arteko aldira itzultzea</p>	<p>Pandemia arteko aldira itzultzea</p>

1) Horrela definitzen da azpimota berria: zenbait hamarkadetan gizakiengan hedatu ez den azpimota bat, biztanle gehienak horren aurrean babesik gabe daudelarik.

2) 1. fasea eta 2. fasearen arteko ezberdintasunak, animalien artean hedatzen ari den anduiak sortutako gaixotasun- edo infekzio-arriskuarekin zerikusia dauka. Bien arteko ezberdintasuna, zenbait faktore eta gaur egungo ezagutza zientifikoan oinarrituta bakoitzaren garrantzia erlatiboaren ondorio da. Barne har daitezkeen faktoreen artean ditugu: patogenotasuna animalien eta pertsonengan, etxeko animalien edo abereen artean edo bakarrik animalia basatietan kasuen existentzia; geografikoki kokatua edo hedatua dagoen eta birusa enzootikoa edo epizootikoa den. Esandakoaz gain, birusaren genomari eta beste informazio zientifiko batzuei buruzko informazioa kontuan hartu behar da.

3) 3., 4. eta 5. faseen arteko bereizketak arriskuaren ebaluazioarekin zerikusia dauka. Zenbait faktore eta gaur egungo ezagutza zientifikoan oinarritutako bakoitzaren garrantzia erlatiboa kontuan hartu beharko dira. Kontuan hartzeko faktoreen artean honako hauek ditugu: transmisio-tasa, kokapen geografikoa eta hedapena, gaixotasunaren larritasuna, giza anduietatik datozen geneen presentzia. Esandakoaz gain, birusaren genomari eta beste informazio zientifiko batzuei buruzko informazioa kontuan hartu behar da.

OSALANek, prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileek protokoloaren hainbat alderdi ezagutzea nahi duenez, ondoren, hainbat definizio eta jarraibide interesgarri zerrendatzen dira:

- › Gaixotasunaren deskribapena eta kasu susmagarriaren definizioa.
- › Ezinbesteko jakinarazpena. Datuen inprimakia.
- › Jarraibideak (3. fasea). NBEak jantzi eta kentzea.

edozein kasutan, ahaztu gabe, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren WEB orrian argitara daitezkeen eguneraketak ere kontsultatu beharko liratekeela, hots: <http://www.osanet.net> .

GAIXOTASUNAREN DESKRIPZIOA ETA KASU SUSMAGARRIAREN DEFINIZIOA

Kasu gehienetan, badirudi gizakiengan hegazti-gripea horrela hasten dela: arnas koadro akutu bat sukarrarekin (temperatura $\geq 38^{\circ}\text{C}$), eztularekin, arnas zailtasunarekin eta ondoez orokorarekin. Gero koadro larri batean bilakatzen dira, bigarren mailako arnas "distress" delakotik espezifikoa ez diren alterazio erradiologikoak dituen pneumonia biriko batera.

Paziente batzuek, esandakoaz gain, beherakoa, gorakoak, pleurako mina eta epistaxisa eta oien odolustea ere izan zuten. Odol gabeko eta hanturazko aldaketarik gabeko beherako likidoa, gripe arruntean baino sarriago gertatzen dela dirudi eta arnas sintomen aurretik gerta daiteke. Maiz gertatzen dira takipnea eta krepitazioak, batzuetan hemoptisia eta birika-gutxiegitasun progresiboa, oxigenoterapiarekin sendatzen ez dena. Ia paziente guztiek pneumonia kliniko bat ageriarazten dute. Anomalia erradiologikoak, sukarra hasten denetik 7 egunetako batez bestekoa-rekin agertzen dira. Honako hauek sarritan gertatu dira: hutsegite multiorganikoa, giltzurruneko disfuntzio zeinuekin eta batzuetan bihotzeko erasana, bihotzeko dilatazioarekin eta bentrakulu gaindiko takiarritmiekin.

Laborategian askotan aurkitu zen leukopenia, batez ere linfopenia, eta aminotransferasaren maila nahiko altuak. Hipergluzemia markatu bat ere aurkitu zen, eta beharbada kortikoideen eta kreatinina-maila altuen erabilerarekin zerikusia dauka.

Ospitaleratutako pazienteen artean hilkortasun-tasa altua izan da (%33 eta %100aren artekoa), Asiako hego-ekialdeko herrialdeetan. Hildako paziente gehienek, arnas hutsegite progresiboa izan zuten eta heriotza 6tik 30 eguneko tartean gertatu zen. Inkubazio-aldiari dagokionez, kasu gehienetan hegaztien eraginpean egon ondoren 2-4 egunetan gertatu zen, 2-8 egunetako tartearekin.

Hegazti gripearen (H5N1) susmopeko kasu baten definizioa

Aurkezpen klinikoa:

Sukarra ($\geq 38^{\circ}\text{C}$) EDO sukar-historia ETA arnas sintomak (eztula, arnas zailtasuna).

EDO

Heriotza, azaldu gabeko arnas gaixotasunagatik

Irizpide epidemiologikoak

Honako ingururen batera egindako bidaiak baten aurrekariak, sintomen hasieraren aurreko 7 egunetan: Kanbodia, Txina (Tibet eta Hong Kong barne), Kroazia, Indonesia, Irak, Kazakhstan, Laos, Mongolia, Nigeria (Kaduna), Errumania, Errusia (Novosibirsk), Thailandia, Turkia, Ukraina eta Vietnam

ETA

hilda edo bizirik dauden etxeko hegaztiekin, hegazti basatiekin edo edozein establezimenduko edozein txerri-aziendarekin, hegazti-merkatuak barne, kontaktu hurbila (≤ 1 metro).

EDO

hautetako egoeraren **bat**

- Kontaktu hurbila (ukitzeko edo hitz egiteko distantzia) arnas gaixotasun larria duten beste kasu batzuekin, edo egoera berberengatiko azaldu gabeko heriotza-kasuekin.
- Azaldu gabeko arnas gaixotasun larri bat duten osasun-langileen talde batekoa izatea.
- A(H5N1) gripe-birusaren esposizio posiblea duen laborategiko langilea)

ERNE: Hegazti-gripe kasu baten nahitaezko jakinarazpena

Gripe pandemikoaren susmopeko kasu bat (ikus susmopeko edo egiaztatutako kasuaren definizioa) begiratzen dagoen medikuak, NAHITAEZ ETA BEREHALA Lurralde bakoitzeko Zaintza Epidemiologikoko Unitateei horren berri emango die.

- **Arabako** Zaintza Epidemiologikoa. Tlfnoa.: **945-017171 edo 945-017156** Faxe: **945-017198**
- **Bizkaiko** Zaintza Epidemiologikoa Tlfnoa.: **94-4031500 edo 94-4031552** Faxe: **94-4031568**
- **Gipuzkoako** Zaintza Epidemiologikoa Tlfnoa.: **943-022700 edo 943-022753** Faxe: **943-022750**

Lanez kanpoko eta jaiegunetako ordutegian, kasuaren berri emango da EAEko Lurralde Historiko bakoitzeko Osasun Publikoko Zuzendariordetzen larrialdietarako honako telenofoen bidez:

- **Arabako** Osasun Publikoko Zuzendariordetza. Tlfnoa.: **615 770 650**
- **Bizkaiko** Osasun Publikoko Zuzendariordetza Tlfnoa.: **615 770 602**
- **Gipuzkoako** Osasun Publikoko Zuzendariordetza Tlfnoa.: **615 777 000 edo 615 777 001**

**TELEFONO ZERRENDA WWW.OSANET.NET ORRIAN ARGITARATUTAKO PROTOKOLO EGUNERATUAN
KONTSULTA DAITEKE**

Jakinarazpena ondorengo inprimakian jasotako datuen arabera egingo da:

Protokoloaren VII. eranskina: A/H5 gripe-kasuak jakinarazteko inprimakia

Jakinarazpen-eguna: ____/____/____ Autonomia Erkidegoa: _____

JAKINARAZPENA EGITEN DUENAREN DATUAK

Jakinarazpena egiten duen medikua: _____ Telefonoa: _____

Zentro Sanitarioa: _____

Helbidea: _____

PAZIENTEAREN DATUAK

Pazientearen izena: _____ 1. abizena: _____ 2. abizena: _____

Jaioteguna: ____/____/____ (adina: ____) Sexua: Gizonezkoa [] Emakumezkoa []

Udalerrria eta egoitza-probintzia: _____ Telefonoa: _____

KLINIKA

Sintomen hasierako data: ____/____/____

Aurretiazko patologia: _____

Temperatura: ____° C Eztula: Bai [] Ez [] Ezezaguna []

Mialgiak: Bai [] Ez [] Ezezaguna [] Arnas Distressa: Bai [] Ez [] Ezezaguna []

Koriza: Bai [] Ez [] Ezezaguna [] Biriketako infiltratua XI: Bai [] Ez [] Ezezaguna []

Beste sintoma batzuk: _____

Ospitalizatua: Bai [] Ez [] Ezezaguna []

Ospitaleratze-eguna: ____/____/____

Ospitalea: _____

Alta-eguna: ____/____/____

Hil egin da: Bai [] Ez [] Heriotza-eguna: ____/____/____

Denboraldi honetan gripearen kontrako urtaroko txertoa jarri duzu? Bai [] Ez [] Ezezaguna []

AURREKARI EPIDEMIOLOGIKOAK

A) ARRISKU-GUNEETARA JOATEAGATIKO BIDAIA-AURREKARIAK¹

Sintomak hasi aurreko 7 egunetan bisitatu duzun/dituzun herrialde/herrialdeak:

Bisitaturako herrialdea/gunea:

		Noiztik	Noiz arte
1 _____	Egonaldiaren iraupena:	___/___/_____	___/___/_____
2 _____	Egonaldiaren iraupena:	___/___/_____	___/___/_____

Espainiara itzultitako data: ___/___/_____

Hegaztiekin kontakturen bat izan zenuen?: Bai [] Ez [] Ezezaguna []

Baietz erantzuten bada, zehaztu:

a) Bizirik dauden etxeko hegaztiak: Bai [] Ez [] Ezezaguna []

b) Hildako etxeko hegaztiak: Bai [] Ez [] Ezezaguna []

c) Bizirik dauden hegazti basatiak: Bai [] Ez [] Ezezaguna []

d) Hildako hegazti basatiak: Bai [] Ez [] Ezezaguna []

e) Beste batzuk: _____

Kontaktu-mota:

a) Abeletxera, instalazioetara, azokara, hegaztiak dituzten etxeetara egindako bisitak, manipulazio zuzenik gabe:

Bai [] Ez [] Ezezaguna []

b) Hegaztien manipulazio zuzena: Bai [] Ez [] Ezezaguna []

c) Hegaztietatik eratorritako produktuen manipulazioa: Bai [] Ez [] Ezezaguna []

d) Beste batzuk: _____

Bidaian egiaztatutako giza kasuren batekin kontaktua izan zenuen? Bai [] Ez [] Ezezaguna []

Kontaktu-mota _____

Kontaktuaren eguna _____

Itzulerako bidaian sintomarik izan duzu?

Bai [] Ez [] Ezezaguna [] Zehaztu: _____

Sintomak hasi aurreko 7 egunetan eta Espainian zaudela, ohiko bizilekutik kanpo bizi izan zara?

Baietz erantzuten bada, zehaztu

B) LANEKO ESPOSIZIOAREN AURREKARIAK

Sintomak hasi aurreko 7 egunetan,

Arrisku-animaliekin kontaktu dagoen lanpostu batean lan egin al duzu?

Bai [] Ez [] Ezezaguna []

Kontaktu-mota _____

Kontaktuaren eguna _____

Kontaktuaren tokia _____

1) A/H5 kasuak hegaztiengan, gizakiengan eta beste iturri batzuetan egiaztatu diren herrialdeak.

Laborategian A/H5 gripe-birusaren ustekabeko eraginpean egon al zara?

Bai [] Ez [] Ezezaguna []

Langile sanitario gisa zereginen bat egin al duzu?

Bai [] Ez [] Ezezaguna [] Zehaztu _____

Gomendatutako babes-neurri indibidualak jarraitu dituzu?

Bai [] Ez [] Ezezaguna []

C) GIZA KASUEN ERAGINPEAN EGOTEA

Sintomak hasi aurreko 7 egunetan, ukitzeko edo hitz egiteko distantzian kontakturik izan al duzu, hauekin:

- A/H5 gripearen egiaztatutako giza kasu batekin? Bai [] Ez [] Ezezaguna []

- A/H5 gripearen susmopeko kasu batekin? Bai [] Ez [] Ezezaguna []

- Ondoren hil egin zen arnas gaixotasun akutua zuen pertsona batekin? Bai [] Ez [] Ezezaguna []

Kontaktu-mota _____

Kontaktuaren eguna _____

Kontaktuaren tokia _____

GRIPEAREN KONTRAKO PROFILAXIA

Sintomak hasi aurreko 7 egunetan, birusaren kontrako botikaren bat (oseltamivir, zanamivir, amantadina, rimantadina) hartu al zenuen?:

Bai [] Ez [] Ezezaguna []

BAI erantzuten bada: Botikaren izena _____

Dosia _____

Hartzen hasi ___/___/_____ (uuuu/hh/ee)

Noiz arte ___/___/_____ (uuuu/hh/ee)

ERREFERENTZIAKO ZENTRORA BIDALITAKO LAGINAK

	Bai	Ez	Bidalketa-eguna
Exudatu edo sudurreko aspiratua	[]	[]	_____
Exudatu edo aspiratu faringeoa	[]	[]	_____
Seruma fase akutuan	[]	[]	_____
Seruma eriondoko fasean	[]	[]	_____
Beste batzuk (zehaztu: _____)	[]	[]	_____

Azalpen Osagarriak

JARDUTEKO JARRAIBIDEAK (3. Fasea)

Birusa, batez ere, honela transmititzen da:

- **Tanten bidez (>5 mikra).**
- **Kontaktu zuzenaren bidez** pazientearen sekreziokin edo eskreziokin, eta beharbada zeharkako kontaktua dela-eta, kutsatuta dauden fomite edo objektuen bitartez, edo autoinokulazioa dela-eta goiko arnas traktuan edo konjuntiboan kutsatutako eskuekin.
- **Posible da airetik aerosolen bitartez (< 5 mikra) izandako transmisioa,** baina ez dirudi gripearen transmisio-mekanismo nagusia denik.

Kasu susmagarri baten aurrean, honela jardungo da:

- Pazienteari bere egoeraren berri emango zaio eta ahoa eta sudurra estaltzeko maskara kirurgiko bat emango zaio. Posible ez bada; pazienteari irakatsiko zaio, bere ahoa eta sudurra ez tul eta doministiku egiterakoan paperezko musuzapiekin babesteko (ikus III. eranskina). Ahal den neurrian, susmopeko kasua eta bere senideak bereizitako gune, bulego edo itxarongela batean mantenduko dira.
- Pertsonal sanitarioa maskara kirurgikoekin, eskularruekin eta betaurrekoekin babestu beharko da.
- *Zaintza Epidemiologikoko Zerbitzuari jakinaraztea, dagokion erreferentzia-zentro-ra (Arabako Txagorritxu Ospitalea, Bizkaiko Gurutzeta eta Basurtoko Ospitaleak eta Gipuzkoako Donostia Ospitalea) kasuaren lekualdaketa antolatzeko.*
- Medikuak edo pertsonal sanitarioak pazientearekin itxarongo du, pazientearen erreferentziako ospitalera eraman arte.
- Pertsona, Ospitalez Kanpoko Larrialdietan edo Etengabeko Atentzio Sanitarioan artatzen bada, Zaintza Epidemiologikokoei edo Osasun Publikokoei egin behar zaien jakinarazpena Emergentzietako Zentro Koordinatzailetik egingo da.
- Ez egin diagnostikorako proba osagarriarik anbulatorioan.
- Lagundu azterketa epidemiologikoan eta kontaktuen azterketan.
- Gripe pandemikoaren susmopeko kasua egon den tokia aireztatu eta hala balegokio, 1.000 ppm klororen baliokidea den %0,1 diluitutako lixiba erabiliko da (20 edo 25 cc lixiba, 1.000 cc uretan) gainazalak desinfektatzeko eta garbitzeko. Odolaz edo materia organikoaz kutsadura balego, lixibaren kontzentrazioa gehitzea beharrezkoa izango litzateke.

[Oharra: Lehenago esandakoa kontuan hartu arren, azpimarratu behar da gaur egungo Alerta Pandemikoaren 3. fasean giza-kien artean EZ direla H5N1 hegazti-gripearen transmisio-kasurik dokumentatu].

Anbulantzian eta Osasun Publikoak ontzat eman ondoren lekualdatuko da kasu susmagarria. Ondorengo hauek dira, lekualdaketa honetarako ezarritako baldintzak:

- Honetarako erabiltzen diren anbulantzietan, gidariarentzako kabina eta bidaiari-lekua behar bezala isolatuta egongo dira.
- Kasu susmagarriak dagokion maskara kirurgikoa eraman beharko du lekualdatzerakoan, osasun-langileei kutsatzeko arriskua murrizteko.
- Anbulantziako langileek honako hauek eramango dituzte gaixoa edo kasu susmagarria dagoen lekuan sartzen direnetik: FFP2 arnagailua, eskularruak eta betaurrekoak. Gainera, gaixoari edo kasu susmagarriari, artean ez badarama, maskara kirurgikoa jarriko diote, eta ibilbide osoan zehar jarrita eraman beharko du.
- Anbulantzian ez dira senitartekoak edo laguntzaileak bidaiatuko; dagozkion langileak baino ez.
- Anbulantzietan kutsatutako materiala ospitaletako ohiko zirkuituetan deuseztatuko da.

Protokoloaren VIII. eranskina: BPE jantzeko sekuentzia

Babes Pertsonaleko Ekipoa jantzeko sekuentzia (BPE)

1. MANTALA

- Estal ezazu mantalarekin gorputz-enbor osoa, lepotik belaunetara, besoetatik eskumuturretara eta toles ezazu bizkarraren inguruan.
- Atzetik lotu, lepoaren eta gerriaren parean.



2. MASKARA EDO ARNASGAILUA

- Jar itzazu zintak edo banda elastikoa buruaren erdialdean eta lepoan.
- Estutu banda malgua sudurraren zubian.
- Ipin ezazu aurpegian, kokotsa hartzen duela.
- Egiazta ezazu arnasmailuaren doitzea.




3. BETAURREKO BABESLEAK EDO MOZORROAK

- Jar itzazu aurpegian eta begietan eta estutu.



4. ESKULARRUAK

- Luza itzazu eskularruak, isolamenduko mantalaren eskumutur-aldea estal dezaten.



ERABIL ITZAZU ZU ZEU BABESTEKO SEGURUAK DIREN ETA
KUTSADURAREN HEDAPENA MUGATZEN DUTEN LAN-PRAKTIKAK

- Eskuak aurpegitik urrun mantendu.
- Gainazalak ukitzea mugatu.
- Alda itzazu eskularruak apurtzen direnean edo kutsatuegi daudenean.
- Eskuak ondo garbitu.

Protokoloaren IX. eranskina: BPE kentzeko sekuentzia

Babes Pertsonalerako Ekipoa (BPE) erantzeko sekuentzia

Arnasgailua izan ezik, ken ezazu BPE delakoa gelaren sarreran edo gelaurrean.
Kendu arnasgailua gelatik irten eta atea itxi ondoren.

1. ESKULARRUAK

- Eskularruen kanpoaldea kutsatuta dago!
- Oratu eskularruaren kanpoaldeari beste eskuarekin eta eskularrua erantzi.
- Eutsi kendutako eskularruari beste eskularrua daukan eskuarekin.
- Eskularrurik gabeko atzamarrak, oraindik erantzi ez duzun beste eskularruaren azpitik sartu, esku-muturraren paretik.
- Erantzi eskularru hori kendutakoa estaliz.
- Bota eskularruak hondakin ontzira.



2. BETAURREKO BABESLEAK EDO MOZORROAK

- Betaurreko babesleen edo mozorroaren kanpoaldea kutsatuta dago!
- Haiek kentzeko, buruko bandatik edo belarrietan dauden zatietatik oratu.
- Utz itzazu desegindako materialak dauden edo materialak berriro prozesatzeko erabiltzen den ontzian.



3. MANTALA

- Mantalaren aurrealdea eta mahukak kutsatuta daude!
- Askatu zintak.
- Mantalaren barrualdea ukituz, pasatu mantala lepo eta sorbalda gaineratik.
- Mantala barrukoz kanpora erantzi.
- Mantala tolestu edo kiribildu eta bota.



4. MASKARA EDO ARNASGAILUA

- Maskararen edo arnasgailuaren aurrealdea kutsatuta dago — EZ UKITU!
- Lehenengo eta behin oratu behealdeari; gero goiko kordelei edo banda elastikoari; azkenik, kendu maskara edo arnasgailua.
- Bota ezazu hondakin-ontzira.



BABES PERTSONALEKO EDOZEIN
EKIPO ERANTZI BEZAIN LASTER
ESKUAK ONDO GARBITU

III. eranskina

Hegazti-ustiategi berri eta beste instalazio batzuen diseinuari buruzko LAP arloko betekizunak

Hegazti-gripeak eragindako litekeen pandemiak eta, bereziki, gero eta pertsona infektatu gehiago agertzen ari direla-eta sortzen ari den alarmak, ekarri duen mundu-egoeraren ondorioz, Eskuliburuaren eranskin honetan, etorkizuneko abeletxeak, abereak eta beren hondakinak aztertzeke laborategiak zein, osasun-sare publikoko isolamendu- eta tratamendu-unitateak baimentzeko, instalazio jakin batzuen eraikuntzaren diseinuari eta ezaugarriei buruzko hainbat eskakizun ezartzeko bide ematen du.

Eskuliburuaren azken atal honetan egiten den planteamenduak, LAP arloko 31/1995 Legea Azaltzeko Arrazoiekin du zerikusi zuzena, izan ere, delako horren 5 atalak honela dio hitzez hitz:

(...) "Enpresaburuak dituen eginkizun eta zereginak, asko ala gutxi izan, betetzeaz gain, areago joan behar du enpresak, langilea laneko arriskuen aurrean babesteko eta, gainera, azaltzen diren arrisku-egoerak zuzentze hutsetik baino haratago. Legeak planteatzen duen laneko arriskuen prebentzioaren ikuspegi berriaren oinarritzko elementuak honako hauek dira: enpresa-proiektua diseinatzen den une beretik prebentzioaren plangintza egitea, lanari datxezkion arriskuen hasierako ebaluazioa eta baldintza aldatu ahala eguneratzea, antzemandako arriskuen izaeraren arabera prebentzio-ekintzaren neurri-multzo koherente eta orokorrak antolatzea eta neurri horiek behar bezala kontrolatzea. Eta, horrekin batera, jakina, langileei lanpostuaren arriskuen egiazko tamainari buruzko, eta horiek prebenitu eta ekiditeko informazio eta prestakuntza bideratu beharko da, delako horiek, lantoki bakoitzeko lanpostuen ezaugarrien, pertsona bakoitzak betetzen duen lanpostuaren ezaugarrien eta burutzen duen jarduera zehatzaren ezaugarrien arabera izango delarik." (..)

Hegazti-gripearen berezitasunak aztertu ondoren eta, fokuari susmoa eta/edo egiaztapena oso denbora-tarte laburrean eman daitekeenez eta, *denbora-tarte horretan ezarri ezin diren* hainbat instalazio, ekipamendu eta berariazko neurri hartzea eskatzen duenez eta, dirudienez, hegazti-gripea gizakiarengan oso hilkorra denez eta kutsatutako pertsonengan oso ondorio larriak eragiten dituenaz, Autonomia Erkidegoen eskumen-eremuan, abeletxeak, laborategiak eta osasun-zaintzako unitate bereziak eraikitzeko arauak ezartzea komeni dela dirudi, eta horien bitartez, ustiategia abiarazi baino lehen, enpresaburuak honakoak betetzen direla egiaztatzea behartuko duten arauak: hegaztiarekin kanpotiko kontakturik galarazten dela, hegaztien artean eta hegaztiak gizakiari kutsatzeko arriskua murrizten dela eta, azken batez, birusa isolamendu-eremutik irten eta barreiatzea saihesten dela.

Zentzu honetan, agente biologikoen eraginpeko egoerari loturiko arriskuen aurrean langileak babesteko 664/1997 Errege Dekretuaren 10. artikulua, delako baimen horiek emateko jardunbideak ezartzen ditu Administrazioarentzat.

Izen ere, delako artikulua horretan, 2., 3. eta 4. taldeko agente biologikoak lehen aldiz erabili behar direnean, eta horiekin lanean hasi baino gutxienez hogeita hamar egun lehenago, lan-arloko aginteei jakinarazi behar zaiela ezartzen da. Gauza bera egin behar da, 3. eta 4. taldeei, aldi batez, loturiko agenteekin.

Oso patogena den birusak eragindako hegazti-influenzaren kasuan, gorago aipatu legez, II. eranskinean, 2. taldeko agenteen artean barne hartzen den agente biologikoa da baina sailkapen horren ondoren izan diren ezagutzak direla-eta, nahikoa arrazoi dago, aldi baterako behintzat, 3. taldean, edo 4.ean txertatzeko.

Komenigarria litzateke, bizirik edo hildako animaliak eta/edo horien hondakinak egoteagatik eraginda egon daitezkeen instalazioak bete beharreko eskakizunak ezarriko lituzkeen araudiren bat izatea.

Artikulu hori betez, honakoak hartu beharko lituzke aipatutako jakinarazpen horrek:

- Enpresaren edo lanlekuaren izena eta helbidea.
- Laneko arriskuen prebentzioaren inguruan erantzukizunak dituen/dituzten pertsona edo pertsonen izena eta prestakuntza.
- Arriskuen ebaluazioaren emaitza.
- Aurreikusitako prebentzio-neurriak.

Azken horietan oinarritu daiteke, lantoki batek irekitzeko eta jarduten hasteko baimena eskuratzeko ezinbestekoak diren neurriak zehaztuko dituen araua. Honela, oinarritzko babes-neurriak bete ezean, lan- eta osasun-arloko aginteek ez lukete lantokia irekitzeko eta jarduten hasteko baimenik emango.

Zentzu honetan, jardueren ezaugarrien, langileentzat izan ahal den arriskuaren ebaluazioaren eta dagokion agente biologikoaren ezaugarrien araberako neurri batzuk ezartzen ditu 664/1997 Errege Dekretuak, "*Euspen-neurri eta -mailei buruzko jarraibideak*" izenburupeko IV. eranskinean.

Oso patogeno den birusak eragindako hegazti-influenzaren kasuan, abeletxeen eta gaixotasunak diagnostikatzeko laborategi espezializatuen kasuan, oro har, honako hauek dira hartu beharko izango diren neurriak:

1. Eraikinean garatzen den beste edozein jardueratik bereizirik egongo da lanlekua.
2. Lanlekura edo lanlekutik sartu edo ateratzen den airea, aireko partikulen eraginkortasun handiko iragazkien (HEPA) edo antzekoen bidez iragaziko da.
3. Izendatutako langileak baino ezingo dira sartu.
4. Lanlekua zigilatze modukoa izango da, desinfektatu ahal izateko.
5. Desinfektatzeko prozedura bereziak.
6. Lanlekua presio negatiboan mantenduko da, presio atmosferikoaren arabera.
7. Bektoreak eraginkortasunez kontrolatuko dira, adibidez, marraskariak eta intsektuak.
8. Urarekiko azalera iragazgaitzak eta erraz garbitzeko modukoak.
9. Azidoek, alkalinoek, disolbatzaileek eta desinfektatzaileek urra ezinezko azalera.
10. Agente biologikoen segurtasunezko biltegiak.
11. Behatzeko leihatila edo antzekoa jarriko da eremuetan, sartu gabe barrukoak ikusterik egon dadin.
12. Ekipo propioa laborategia.
13. Infektatutako materiala, abereak barne, segurtasun biologikoko kabina edo isolamendu- zein euspen-eremu egoki batean maneiatuko da.
14. Hildako animaliak ezerezteko erraustegia.

Euspen-neurri hauek generikoak dira eta, adierazitako faktoreen arabera instalazio bakoitzaren berariazko ezaugarrietara egokitu beharko liriateke. Bera, ez dira aplikatzen neurri berberak hegazti-etxalde batean edo erraustegi batean, analisisien laborategi batean edo kutsatuta egon daitezkeen langileentzako osasun-arretarako zentro batean.

Eskuliburu honetan, hegazti-etxalde baterako eta haztegi, laborategi eta osasun-zentro baterako neurriak *proposatzen* dira. Adibide gisara landutako proposamena da, zehatzegia ez dena.

Gainera, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legean jasotako prebentzio-ekintzaren Printzipioei jarraiki, hainbat taldetan ezarri beharreko neurriak bateratu beharko liriateke:

- Instalazioa diseinatzeko neurriak.
- Instalazio osagarriak.
- Higiene-neurri orokorrak.
- Higiene-neurri pertsonalak.
- Jarduera-protokoloak.
- Norberaren babeserako ekipamenduak.

III. gehigarria Hegazti-ustiategi berri eta beste instalazio batzuen diseinuari buruzko LAP arloko betekizunak

NEURRI MOTA	INSTALAZIO MOTA	
	HEGAZTI USTIATEGIA	LABORATEGIA
Diseinu-neurriak	Eraikinean garatzen den beste edozein jardueratik bereizita egongo da lanlekua.	Bai
	Ustiategia , sarbidea segurtasunezko ate batez hornitutako hesi batek inguratuko du. Sarreran, baimenik gabe ezin dela sartu ohartaraziko duen kartela jarriko da.	Bakarrik baimendutako pertsonak sartzeko kontrola egongo da sarreran.
	Urarekiko azalera iragazgaitzak eta erraz garbitzeko modukoak.	Bai
	Azidoek, alkalinoek, disolbatzaileek eta desinfektatzaileek urra ezinezko azalera.	Bai
	Oilategietan eta elikagaiak edo arrautzak biltegitzeko lokaletan ez da parasitorik egongo, eta ezingo dira basa-hegaztiak sartu.	Hildako abereak, hondakinak edo laginak biltegitzeko lokaletan ez da parasito, marraskari zein bestelakorik egongo.
	Etxe-abereak ezingo dira oilategietan sartu.	Ez zaie, inola ere, etxe-abereei laborategietan sartzen utziko.
	Lanlekua zigilatze modukoa izango da, desinfektatu ahal izateko.	Bai
	Infektatuta egon daitezkeen abere guztiak zein susmagarriak direnak isolatzeko eremu bat izatea.	Hildako abereak, hondakinak, laginak, etab. isolatzeko eremuak.
	Agente biologikoak edo litezkeen agente biologikoak biltegitzeko eremuak (hildako hegaztiak, susmopekoak, abereen hondakinak, toailak, erabili eta botatzeko NBEak, etab)	Agente biologikoak edo litezkeen agente biologikoak biltegitzeko eremuak (laginak, hegaztiak etab.). Erabilera bakarreko garbigailuak, erabili eta botatzeko NBEak eta desinfektatzeko jantziak, etab.
	Leihatila baten bitartez bananduko dira hegaztiak eta langileak.	Leihatila baten bitartez bananduko dira hegaztiekin eta kutsatutako hondakinekin kontaktuta duten langileak eta gainerakoak.
	Hildako abereak eta kutsatutako materialak desagerrarazteko erraustegia.	Hildako abereak, hondakinak eta kutsatutako materialak desagerrarazteko erraustegia
	Abeletxetik kanpoko hegaztiengandik babestutako ur-biltegiak eta aletegiak.	Ez da beharrezkoa
Pabiloiak edo pertsonak garbitzeko erabilitako urak kolektore batean bildu behar dira, ibai edo estolderiara isuri baino lehen desinfektatzeko.	Laborategiko gelak edo pertsonak garbitzeko erabilitako urak kolektore batean bildu behar dira, ibai edo estolderiara isuri baino lehen desinfektatzeko.	

OSALAN - LAP Hegazti Gripearean Aurrean - Eskuliburua

NEURRI MOTA	INSTALAZIO MOTA	
	HEGAZTI USTIATEGIA	LABORATEGIA
Instalazio osagarriak	Lanlekura/tik sartu edo irteten den airea iragazteko sistemak.	Bai
	Lanlekua presio negatiboan mantenduko da, presio atmosferikoaren arabera.	Bai
	Ekipo propiodun laborategia	Bai
	Kaleko jantzietarako eta babes pertsonaleko jantzi eta ekipoetarako aparteko aldagela.	Bai
	Sareko ura duten dutxak eta konketak.	Bai
	Kalitate onargarrizko uraz hornituko dira oilategiak.	Bai
Higiene-neurri orokorrak	Sartu eta ateratzen diren ibilgailuen gurpilak desinfektatzeko putzuak.	Kontuan hartu beharrekoa
	Sartu eta ateratzen diren langileen oinetakoak desinfektatzeko putzuak.	Bai
Higiene-neurri pertsonalak	Ura, xaboia eta erabilera bakarreko lehor-materiala.	Bai
Jarduera-protokoloak	Infektatuta egon daitezkeen eremuetara sartuko diren langileak izendatzea.	Bai
	Langileak prestatzea.	Bai
	Adierazitako desinfektatze-prozedurak.	Bai
	Oilategi edo ustiategi bat hutsi geratzean, simaur dena atera eta lokala garbitu eta desinfektatuko da. Desinfekzio-tekniken eraginkortasun bakteriologikoa aztertze gomentatzen da. Beharrezkoa izatekotan, marraskari eta intsektuen aurkako neurriak hartuko dira.	Aldizka, laborategiko aretoak desinfektatuko dira. Horregatik, eremu batzuk desinfektatzen ari diren bitartean, isolatutako beste eremu batzuk egon beharko dira lan egiteko. Beharrezkoa izatekotan, marraskari eta intsektuen aurkako neurriak hartuko dira.

III. gehigarria Hegazti-ustiategi berri eta beste instalazio batzuen diseinuari buruzko LAP arloko betekizunak

NEURRI MOTA	INSTALAZIO MOTA	
	HEGAZTI USTIATEGIA	LABORATEGIA
Jarduera protokoloak	Lehenbailehen aterako dira oilategietatik hildako edo gaixotutako hegaztiak eta, suntsitzeko prozedura eraginkor eta seguruak aplikatuko dira.	Lehenbailehen aterako dira analisisietarako erabilitako hegaztien hondakinak, gorpuzkiak eta langinak eta, suntsitzeko prozedura eraginkor eta seguruak aplikatuko dira.
	Hildako abereen, diagnostikatutako gaixotasunen eta ustiategian burututako tratamendu eta txertaketen erregistroa jasoko da. Delako erregistro horiek, erraz kontsultatzeko modukoak izango dira.	Ez da beharrezkoa
	Oilategietan eta hegazti-ustiategietan erabilitako elikagai guztietan salmonelosi dagoen kontrolatu beharko da. Elikagai pikortatuak edo salmonelosi kentzeko prozedurak iragan dituzten bestelako elikagaiak erabiltzea gomendatzen da. Elikagaiak ontzi garbi eta itxietan gordeko dira.	Ez da beharrezkoa
Babes Pertsonaleko Ekipoak	6 edo 7 motako lan-jantziak Txanoak Gutxienez, FFP2 motako maskarak Betaurrekoak edo pantaila Botak Eskularruak	6 edo 7 motako lan-jantziak Txanoak Gutxienez, FFP2 motako maskarak Betaurrekoak edo pantaila Oinetako-babeslea edo erabili eta botatzeko oinetakoak Eskularruak

Euskadin aplikatu beharreko araudia

Zehatz-mehatz ez bada ere, Euskadiko hegazti-etxaldeetan aplikatu behar diren indarreko xedapen batzuk jaso dira ondoren

1.- 141/2004 DEKRETUA, uztailaren 6koa, abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituena.

2.- 165/1999 DEKRETUA, martxoaren 9koa, otsailaren 27ko 3/1998 Legean, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra, jasotzen den jarduerarako lizentzia eskuratzetik salbuetsitako jardueren zerrenda finkatzen duena.

1.- 141/2004 DEKRETUA, uztailaren 6koa, abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituena

1. artikulua.- Xedea.

1. Dekretu honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko abeltzaintzako ustiategi berriek edo lehenagokoek jarduera-lizentzia eskuratzeko bete behar dituzten arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzea; lizentzia hori Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legean aurreikusita dago. Horrek ez du salbuesten, ordea, arloko gainerako arau bereziak, higieniko-sanitarioak, ingurumenekoak, hirigintzakoak edo aplikagarri diren bestelakoak betetzetik.
2. Martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuaren arabera jarduera-lizentziarik behar ez duten abeltzaintzako ustiategiei ez zaizkie aplikatuko dekretu honetan ezarritako arauak, dekretu hartan xedatutakoaren indarrez jardungo baitute.

2. artikulua.- Abeltzaintzako ustiategi motak.

Dekretu honen ondorioei begira, hiru abeltzaintzako ustiategi mota bereizten dira:

- a) Abeltzaintzako ustiategi berriak.
- b) 1.000 biztanletik gorako herriguneetan dauden lehenagoko ustiategiak eta nekazaritza-abeltzaintza ekoizpenerako joera garbia ez duten 1.000 biztanletik beherako herriguneetan dauden ustiategiak.
- c) Nekazaritza-abeltzaintza ekoizpenerako joera garbia duten 1.000 biztanletik beherako herriguneetan dauden lehenagoko ustiategiak.

3. artikulua. – Definizioak.

Dekretu honen ondorioei begira, definizio hauek ezartzen dira:

a) ALU (Azienda Larri Unitatea): behi- edo zaldi-azienda buru baten baliokidea.

Hona hemen baliokidetasun-taula:

(...)

b) b) NLU (Nekazaritzako lan-unitatea): nekazaritzako lanetan urtebetean egun osoz pertsona batek egiten duen lana (Lehentasunezko nekazaritza ustiategiei buruzko 168/1997 Dekretua).

c) Nekazaritza-abeltzaintza ekoizpenerako joera garbia: herrigune batek ekoizpenerako joera hori dauka baldin betekizun hauetakoren bat konplitzen badu:

- Herrigunean nekazaritzako langile aktiboak %20tik gora izatea.

- Herrigunea kokatuta dagoen udalerrian langile aktiboak %10etik gora izatea.

- Herrigunea kokatuta dagoen udalerrian nekazaritzako BPG (barne-produktu gordina) %10etik gorakoa izatea.

Dekretu honen aplikazioa errazteko, aurreko paragrafoaren arabera nekazaritza-abeltzaintza ekoizpenerako joera garbia duten herriguneen zerrenda III. eranskinean agertzen da.

d) Ekoizpen-ahalmena handitzea: handitzen edo berregokitzen den ustiategiak %15etik gora ALU gehiago hazteko edo gobernatzeko ahalmena irabazten duenean jotzen da ekoizpena ahalmena handitu duela; baita ere handitzen edo berregokitzen den ustiategiak bere jardunerako LNU gehiago behar dituztenean ere.

e) Ustiategia osatzen duten pertsonak: familia-ustiategien kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan titular edo titularkide edo "familialaguntza" gisa agertzen direnak; elkarte moduan eraturako ustiategien kasuan, dagokion erregistroan bazkide gisa ageri direnak.

(...)

I. ERANSKINA. Uztailaren 6ko 141/2004 Dekretua ABELTZAINZAKO USTIATEGIEI APLIKAGARRIAK ZAIZKIEN ARAU TEKNIKOAK

1. KAPITULUA – PROIEKTU TEKNIKOA

Instalazio eta obren proiektu teknikoa egin beharko da, zeina alor horretan eskumena duen teknikari batek erredaktatu eta dagokion Elkargo Ofizialak bisatu beharko baitu. Honako agiri hauek jasoko ditu, sailkatutako jarduera denaren izapideak egin ahal izateko:

1.- Obra zibilaren memoria.

- Helburua, kokalekua eta aurrekariak.
- Materialen, eraikinen eta instalazioen deskribapena. Behar diren tresnak emango dira aditzera, horiek CV-tan edo kW-tan duten potentzia adieraziz.
- Instalazioen deskribapena: instalazio elektrikoa, berogailua, hozteko instalazioak, GLP biltegia, gasolioa eta abar. Instalazio horien ezaugarri teknikoak eta Segurtasun Industrialeko Arautegi aplikagarria betetzea.
- Hondakin organikoak biltegitratzeko sistemaren eraiketa kalkuluak (sastegia eta/edo minda-hobia). Dimentsionatuaren justifikazio teknikoa.
- Dekretu honetan eta indarrean dagoen ordenazio alorrekoak finkatutako sanitate azpiegitura.
- Produktu kimikoak (zoo eta fitosanitarioak) biltegitratzeko sistema. Sistema horrek, abeltzaintzako ustiategiak izan ohi dituen beharrezanek nahitaez behar dutenari egokitzeaz gain, arautegi aplikagarria —segurtasuneko eta higieniko sanitarioa— beteko ditu.
- Suteetatik babesteko sistema: kasu bakoitzean aplikagarria den arautegian, neurrien justifikazioan eta instalazioak babesteko aurreikusitako babes ekipoetan oinarrituta; kontuan izanik, halaber, hirugarrenei egin dakiekeen kaltea.
- Instalazio higienikoak: garbiketarako eta aldageletarako aurreikusitako instalazioak, Laneko Segurtasun- eta Osasun-Arautegiaren arabera.

2. Jardueraren ezaugarrien deskribapen memoria.

Jardueraren ezaugarriak, ingurumen sanitatean izan dezakeen eragina eta ezarri nahiko lira-tekeen neurri babesleak —eraginkortasun maila eta segurtasun bermea adieraziz— deskribatuko dira. Honako hauek jasoko dituzte, batik bat:

- Jardueraren helburua: jarduera eta ustiategiaren ekoizpen ezaugarriak deskribatuko dira, ekoizpenaldi bakoitzak benetan duen kapazitatea (abere kopurua edo plaza kopurua) adieraziz. Jardueran zuzeneko esku-lana eginez dihardutenen kopurua ere adieraziko da.
- Kokalekua: jasota utziko da ea indarrean dagoen ala ez hirigintzako udal instrumenturik. Ez badago planeamendurik ez eta hiri-lurraren zedarrizterik, aditzera eman beharko da egoera hori. Horrelakoetan probintzia mailako Udal Planeamenduko Arau Subsidiario eta osagarrietako aginduei egokitu beharko zaizkio beren-beregi.
- Kokalekurako aukeratutako aldean aplikagarriak diren udal-arauak eta -ordenantzak aipatuko dira.
- Kokalekuari buruzko arau orokorreari dagokienez, 2. kapituluan xedatutakoa beteko da.
- Jarduerak sanitatean eta ingurumenean duen eragina: gai honi buruz 3/1998 Legean zehazten duena aintzat hartuz, batez ere honako datu hauek garatu beharko dira:
 - Jarduerarako behar den ura, m³-tan adierazia; eta nondik hartutakoa den.
 - Jarduerak eragiten dituen hondakin urei dagokienez, euren osaera, bolumena eta aurreikusitako tratamendua emango dira aditzera. Isurketa-lekua; eta esku-mena duen agintaritzak baimena identifikazioa eta tramitazioarekin hastea.
 - Sorturako hondakin organikoak (solidoak eta likidoak). Jarduera erabileraren arabera honako hauek emango dira aditzera: izaera, sortutako kopuruaren aurreikuspena eta aurreikusitako jasotze eta biltegitratze sistema, harik eta soroetara bota arte edo tratatu arte. Soroak ongarrizteko erabiltzen badira, lurrak zeintzuk diren eta duten azalera adierazi beharko dira, eta halaber: poligonoa, partzela, kultibo alternatiba eta Ha-ko eta urteko aplikatu beharreko dosia, hain zuzen ere Eranskin honetako 3. kapituluko 6. puntuan adierazitakoaren arabera. Lurrak erabilgarri daudela erakusten duten agiriak aurkeztu beharko dira.
 - Hildako abereak eliminatzeko sistema zehaztuko da, aplikagarri den arautegia oinarri hartuz..
 - Ustiategian sortutako beste era bateko hondakinak (garbiketa hondarrak, bilgarrak, izaera kimikoko hondakinak, eta abar). Hondakin mota, zenbatekoak, behin-behineko biltegitratzea eta azken destinoa adieraziko dira beti.
 - Legedia: alorrean aplikagarria den arautegia betetzen dela adieraziko da kasu bakoitzean.

3. Planoak.

Honako plano hauek jasoko dira:

- 1:5.000 eskalako plano edo krokisa, ustiategiaren kokalekua eta horren inguruko 1.000 metroko erradio-gunea adieraziko dituen, non azalduko baitira abeltzaintzako beste instalazio batzuk, nekazaritza-abeltzaintzako industriak, herriguneak, isolatutako eraikinak, ur-bilketak, deposituak eta putzuak, ubide naturalak eta ureztatzeko erretanak, errepideak eta lurraldearen beste elementu aipagarri batzuk, alegia, eranskin honetako 2. kapituluko 1. eta 2. paragrafoetan zehaztutakoak.
- Gorotzak hartzen dituzten partzelak kokatuta daudenean lurren 1:5.000 eskalako plano topografikoa, non inguruetako ubideak, putzuak eta iturburuak agertuko baitira.
- Ustiategiaren instalazio guztiak jaso eta kokalekua zehaztuko dituen 1:100 eskalako —gutxienez— oin-planoa.

4. Baldintza plegua.

Baldintza teknikoak (materialak eta exekuzioa), ekonomikoak, fakultatiboak (obra zuzendaritza) eta legalak jaso eta zehaztuko ditu.

5. Aurrekontua.

Aurrekontuaren agiriak, obra zibileko unitatez gain, azpiegitura sanitarioko kostuak eta proiektatutako sistema eta neurri zuzentzaileen kostuak jasoko ditu.

2. KAPITULUA – KOKAPEN ARAUAK

Plano horizontalean proiektatutakoak joko dira ezarritako gutxienezko distantzia legetxe. Lurraren profilaren gainean distantziak planoko neurketak baino %30 handiagoak badira eta, horretaz gain, muga naturalak edo lurraren eragozpenak badaude, lur profilaren gainean egindako neurketarako baimena eman daiteke.

Instalazioen (eraikina, minda-hobia, sastegiak, eta abar) azpiegitura sanitarioaren gune sentikorrek erreferentzia puntu modura hartuta neurtuko dira distantziak.

1.- Herriguneekiko distantziak.

Abeltzaintzako ustiategietatik herriguneetako hiri-lur mugarainoko, etxebizitzatarako lur urbanizagarriarainoko edo landa-guneko lur ez urbanizagarriarainoko distantziak ustiategi mota kontuan hartuz finkatuko dira, honako hauek izango dira behintzat.

Abere espeziea Distantzia (metrotan)

(...)

Hegazti-azienda 150

2.- Lurraldeko beste elementu batzuekiko distantzia.

Honen ondoren adierazitakoak izango dira lurraldeko beste elementu garrantzitsu batzuekiko gutxienezko distantziak, beste arautegi berezi batzuen indarrez aplikagarriak izan daitezkeenak aintzat hartuz.

(...)

3.- Abeltzaintzako ustiategien arteko distantziak.

Isolatutako ustiategien arteko distantziak edo lur libreetan dauden distantziak:

Ustiategi motak Distantzia (m)

(...)

Hegaztiak (1) 300

(1) Inkubagailuei dagokienez, beste baterako distantzia 1.000 metrotik gorakoa izango da.

3. KAPITULUA – ARAU HIGIENIKO SANITARIOA ETA INGURUMENAREKIKOAK

1.- Eraikuntzak eta ekipamenduak.

Abeltzaintzako instalazioek menpetasun eta proportzio harreman egokia izango dute ustiategian dauden abereekiko. Espezie bakoitzak exijitutako beharrianak bete beharko dira honako gai hauetan: okupatutako azalera, giro-tenperatura, haizeztatpena, hezetasuna, eta abar; eta hori, abereen, elikagaien eta gorotzen erabilera funtzionalari begira.

Espeziea, ustiategi mota eta ekoizpen sistema kontuan hartuta, abereen arautegi higieniko-sanitarioa, ingurumenarekikoa eta babesari buruzkoa —aplikagarria zaiena— bete beharko dituzte. Eranskin honetako 4. kapituluaren ustiategiek bete behar dituzten gutxienezko baldintzak zehazten dira.

Aurrean aipatutakoez gain, honako hauek ere bete beharko dituzte:

- Eraikinek, instalazioek, tresnek, ekipoek eta garraiobideek, garbi, desinfektatuta, insektugabetuta eta arratoigabetuta egon beharko dute beti; eta eraikuntzan erabiliko materialak ez dira izango kaltegarriak abereentzat.
- Ukuiluak eta eranskinak eraikitzerakoan eta mantentzean kontuan izan beharko da ertz zorrotzik edo irtenik ez egotea, zauriak egin baitiezazkiekete abereei.
- Ukuiluetako eta abereen ariketa barletako zoruak iragazgaitzak izango dira. Gainazala ez da labaingarria izango, nahiz eta betekizun ez izan beharrezkoa ardi-aziendetarako. Iragazgaitasuna material hauskaitzen bidez bermatuko da. Iragazgaitza dela joko da baldin eta ura edo beste jariakin batzuk ezin badira sartu.
- Dependentsia guztiak egongo dira urez hornituta, bai abereen egarria asetzeko, bai aldizka dependentsiok garbitzeko.
- Eraikinak isolatzean, haizeztatzean eta berotzean bermatu egin beharko da airearen zirkulazioa, hauts kopurua, temperatura eta aireko hezetasun erlatiboa eta gasaren kontzentrazioak abereentzat kaltegarriak ez diren neurrien barruan egotea.
- Abereen osasuna eta ongizatea behartutako haizeztapen sistemaren menpe badaude, larrialdi sistema beren-beregikoa aurreikusiko da, zeinak abereen osasuna eta ongizatea babestuko dituen aire berritze nahikoa bermatuko baitu sistemak huts egiterakoan. Alarma sistema bat ere izan beharko da, matxurarik balego abisua emango lukeena. Alarma sistema hori erregulartasunez egiaztatu beharko da.
- Usaina botatzen duten guneak identifikatuta egongo dira. Hala behar izanez gero, aurreikusitako arazketa- edo gutxitze-sistemak deskribatuko dira.
- Leku berezian eta egoki haizeztatukoan biltegitratuko dira produktu fito eta zoosanitarioak.

2.- Siloen ezaugarriak.

Abereen elikagaiak kontserbatzeko diren obra-siloek, honako baldintza hauek beteko dituzte:

- Abeltzaintzako instalazioen inguruan egongo dira kokatuta; eta beti jardueraren eraikin nagusia dagoen partzelaren perimetroaren barruan. Siloen kopurua eta gehieneko bolumena ustiatzean dauden abere kopuruari, erabilerari eta biltegitratu behar diren pentsu eta bazka zenbatekoari egokituko zaizkie.
- Zoruak iragazgaitzak izango dira eta estankotasun egoera ezin hobean iraun beharko dute, zertarako eta biltegitratutako produktuak euri-urekin kontakturik ez

izateko. Iragazgaitza izateari eusteko material hauskaitzak erabili behar dira. Iragazgaitza dela joko da ura edo beste jariakin batzuk ezin badira sartu.

- Zoruek %2ko gutxienezko aldapa izango dute, siloratzean eragindako jariakinak ez estankatzeko eta adierazitako biltegitarte hobietara —edo minda hobietara— ahalik arinen husteko. Paretak ere iragazgaitzak izango dira metro batean gorantz. Iragazgaitza dela joko da ura edo beste jariakin batzuk sartu ezin badira.
- Jariakinak ustiategiko gainerako hondakin urak bezala hartu eta tratatuko dira.

3.- Abereen osasuna eta ongizatea

Arau orokor modura, honen ondoren zehazten direnak bete beharko dira, ustiategi mota bakoitzeko arau bereziak bete beharraz gain. Honako hauek, hain zuzen ere:

- Hazkuntza prozedura natural edo artifizialik ez da erabili beharko, baldin eta eragindako abereei oinazea edo zauriak eragin badiezaieke.
- Ustiategia urez edo elikagaiez hornitzeko ekipoak halako moduz sortu, eraiki, instalatu eta mantenduko dira, ezen abereentzako elikagaiak eta ura kutsatzeko arriskua ahalik murriztena izango baita.
- Abereen osasuna eta ongizatea babesteko beharrezkoak diren ekipo automatiko edo mekaniko guztiak egunean behin —behintzat— gainbegiratu behar dira. Hutsuneak antzematen badira, berehala zuzenduko dira, eta abereen osasuna eta ongizatea babesteko behar diren neurriak hartuko dira.
- Abereak ezingo dira etengabe ilunetan egon. Argizatze sistema naturala edo artifiziala jarriko da. Artifiziala izanez gero, ustiategiko alde horretan 09:00etatik 17:00etara bitartean dagoen argizatze naturalak beste iraungo du. Bestalde, beren-beregiko argizatzea (finkoa eta mugikorra) izango da, nahiko intentsitateko izango duena abereak edozein unetan behatu ahal izateko.
- Gaitasun profesional egokia duen pertsonal nahikok zainduko ditu abereak.
- Haztegietan mantendutako abereak, baldin eta horien ongizateak giza zaintza etengabekoa behar badu, egunean behin behatu beharko dira behintzat. Beste sistema batzuetan mantentzen badira, sarri behatu beharko dira oinazerik izan ez dezaten.
- Gaixotasun edo zauriren bat izan dezan abereak tratamendu egokia izango du berehala. Abereak ez badie zaintza horiei erantzuten, al baitariarengana joko da lehenbailehen. Hala behar izanez gero, abere gaixotuak edo zaurituak leku aproposetan gordeko dira.

- Abereen jabeak edo hazleak erregistro bat izango du, non adieraziko baititu emandako tratamendu medikua eta behaketa bakoitzeko abere hildakoak. Erregistro horiek gutxienez bost urtez gordeko dira.
- Abereei elikagai osasuntsuak emango zaizkie, euren adinak eta espezieak eskatzen dutena hain zuzen ere. Kopurua ere orekatsua izango da osasun egoera onari eusteko eta dituzten nutrizio beharrianak asetzeko.
- Abere guztiek izan beharko dute elikagaietarako aukera, dituzten beharriaz ekoiztutako tarteka izan ere. Kalitate oneko ur kopuru nahikoa ere izan beharko dute edo, bestela, beste era batera asebate beharko dituzte euren ur-premiak.
- Abereei ez zaie emango beste era bateko substantziarik, ez badira helburu terapeutiko edo profilaktikoekin emandakoak, edo tratamendu zooteknikorako emandakoak.

4.- Hildako abereak eliminatzea.

Ustiatégian hildako abereak eliminatzea halako moduz egingo da, ezen bete egin beharko direla alor horretan unean-unean indarrean egon daitezen xedapenak.

5.- Sastegiak eta mindak biltzeko hobiak.

Ustiatégian sortzen diren hondakin organikoak bildu, ustiatégiaz kanpo jasan dezaketen eragina ahalik murrizten izateko moduan bilduko dira, harik eta kudeatu arte. Baldintzak zenbait faktoreren arabera izango dira, hots: ustiatégi mota, erabilera, kokalekua, hondakin horietarako aurreikusitako alternatibak, eta beste batzuk. Horri dagokionez, edozein dela ere emandakion irtenbide teknikoak, modu egokian justifikatu beharko ditu faktore guztiok. Erreferentzia orokor legetxe, honako hau planteatzen da: ustiategiak –denbora osoz diharduela— hiru hileko jardunean sortutako abere-hondakinak biltzeko gutxienezko kapazitatea.

Hondakin solidoak (satsak) aterpeko sastegian bilduko dira, abereak dauden instalazioetatik bereizita. Sastegiaren zorua iragazgaitza izango da, eta likidoak irristatu ahal izateko besteko aldapa izango du. Likidook biltze-hobira bideratuko dira. Iragazgaitza dela joko da ura edo beste jariakin batzuk ezin badira sartu.

Hiru hileko jarduerarako justifikatu behar den biltze edukiera, honako erreferentzia hauen arabera izango da:

(...)

- Hegaztiak eta untziak: 0,03 m³/buruko

(...)

Deiekzioak modu likidoan (mindak) erabiltzen badira, hobi estankoa edukiko da jaso eta biltegitratzeko. Txerri- eta behi-aziendak badira, minda-hobiak eraikitzeke honako erreferentzia zifrak erabiliko dira.

Bai sastegiak, bai mindak biltzeko hobiak abeltzaintzako instalazioen inguruetan kokatuko dira eta, beti, ustiategiko eraikin nagusiaren perimetro barruan.

6.- Satsak eta mindak ongarri modura erabiltzea.

Azalera erabilgarri gutxienekoa: sortutako satsa eta mindak ongarri legetxe erabiltzen badira finketan, abeltzaintza ustiategiko titularrak nahiko nekazaritza lur —berea edo errentan— izan beharko du. Gutxienezko azalera erabilgarria: 1 ha/n.u.a.u.

Espezie bakoitzaren n.u.a.u (nekazaritza ureztaketarako azienda unitatea):

(...)

– 250 oilo.

– 250 eper, galeper edo faisai

Nekazaritzako lurretan satsak edo mindak aplikatzeko baldintzak: lurlean zabaltzeko orduan, lurraren beraren baldintzak eta baldintza klimatologikoak hartuko dira kontuan. Honako distantzia gutxienezko hauek errespetatu beharko dira:

– 50 m, errepide nagusiko, nazionaleko, eskualdeko edo udalerriko komunikazio bideetatik.

– 50 m, bizilagunak dituen eraikinetatik, ez badira granjak edo nekazaritzako biltegiak. Salbuespenak: 12 ordu baino lehenago lurperatzen bada, 25 m-ko distantzia aplika daiteke; mindak tratamendu usain-kengarria izan badu, 25 m-ko tratamendua aplika daiteke, betiere 24 ordu baino lehenago lurperatzen bada; zuzenean lurrera injektatzeko aukera ematen duen tratamendua aplikatu bada, eta berehala lur-lanen bat gauzatu bada, 10 m-koa izan daiteke distantzia.

– 200 m, giza-kontsumorako ura edo jertzitegietan erabiltzen den ura duen iturri, putzu edo zulaketatik.

– 200 m, bainu gune tradizionaletatik edo kontsolidatuetatik.

– Ubideen inguruko lurretan:

- Kanoia erabiliz: ongarritu barik utziko da 5 metrotik 10era arteko lur-zerrenda, edo ubidean kokatuta finkarako norabidea emango zaio.
 - Ihinztigailuak erabiliz: ongarritu barik utziko da 3 metrotik 5era arteko lur-zerrenda, eta haizearen eraginez ubiderako norabidea ez dezala hartu bermatu beharko da.
 - Ongarritzeko makinak, zipriztingailuak edo sats banatzaileak erabiliz: gutxienez 3 m-ko lur-zerrenda utziko da ongarritu barik.
- Txerri ustiategietako satsa bada, gutxienezko banaketa distantzia 100 m-koa izango da lehenengo taldeko beste instalazio batzuekiko, eta 200 m-koa gainerako taldeetako instalazioekiko eta herriguneekiko.
- Ustiategi mota bakoitzerako zehaztutako arauetan adieraz daitezzen distantziak.

Deiekzio likidoak aplikatu eta gero, lurperatu egingo dira 24 orduko gehienezko epean, baldin eta kultiboaren egoerak horretarako aukera ematen badu. Sats solidoen kasuan 48 ordukoa izango da lurra xurgatzeko epea.

Ustiategi bateko azalerak ez badu onartzen ustiategian bertan sortutako sats eta minda karga guztia, baimena duen kudeatzaile baten bitartez gestionatuko da gaindikina. Hala ere, ustiategiko arduradunak berak kudea dezake gaindikin hori, bai kontratuen bidez, bai beste nekazari batzuei zesioa eginez. Edozein modutan ere erreziboak gorde beharko dituzte.

7.- Satsak eta mindak kudeatzeko modu gehiago.

Beste modu batzuetara ere kudeatu ahal izango dira satsak eta mindak, betiere indarrean dauden legeek errespetatzen badituzte.

Biogasa lortu eta ondorengo balorazio energetikorako erabili ahal izango dira. Arazketa prozesuak ere jasan ditzakete, amaierako jariakinak ubidera edo kolektore batera —kasuaren arabera— isurtzeko behar diren ezaugarriak betetzen baditu. Prozesuok ustiategiak berak dituen instalazioetan edo zeregin horretarako baimena duten enpresa kudeatzaileen bitartez gauza daitezke.

Kasu bakoitzerako aurreikusitako kudeaketa azaldu beharko da proiektu teknikoetan, eragin daitezken egokitzapen teknikoak ere jasoz.

Hondakinen amaierako kudeaketa baimena duten enpresa kudeatzaileen bitartez gauzatzen bada, agirien bidez justifikatu beharko da (hondakinak onartzea eta erretiratzeko konpromisoa).

8.- Euri urak eta hondakin urak, deiekzioetakoak ez direnak.

Euri urak besteetatik bereizita hustuko dira, hau da, ez dute kontakturik izango hondakin urekin, satsekin eta mindekin.

Hondakin urak modu egokian kudeatuko dira. Beharrezkoa izango balitz, erabiliko den arazketa sistema aurkeztuko da, dagokion mantentze programa eta arazitako uren eta hondakinen destinoa zehaztuz. Kondukzio sistemak itxiak eta iragazgaitzak izango dira. Iragazgaitza dela joko da baldin eta ura edo beste jariakin batzuk ezin badira sartu.

Parasitokontrako bainuetako hondakin likidoak era bereizian jaso eta kudeatuko ditu hondakin arriskutsuak kudeatzen dituen enpresa behar bezala baimendutako batek.

Estabulazio askean isurketa urak bideratu eta jasotzeko sistema bat aurreikusiko da, urak estalperik gabeko gunetik sats-hobira eramango dituena. Urok kontuan izanik diseinatuko da sistema hori. Estalperik gabeko gune horrek zoru iragazgaitza izango du akuiferoak oso bulneragarriak diren lekuetan. Iragazgaitza dela joko da baldin eta ura edo beste jariakin batzuk ezin badira sartu.

9.- Ustiategiko beste hondakin batzuk.

Hondakin solido ez organikoak biltzerakoan ez da kutsadura arriskurik edo ingurumenarekiko kalterik eragingo

Hondakinok ezabatzea indarrean dauden arauekin bat etorritz egingo da, eta ezingo dira erre aire librean.

Parasitokontrako bainuetako hondakin likidoak era bereiztuan jaso eta kudeatuko ditu hondakin arriskutsuak kudeatzeko behar bezalako baimena duen enpresak.

10.- Programa sanitarioak.

Instalazio, tresna eta ekipoak aldizka garbituko dira. Behar den guztietan desinfektatu, insek-tugabetu eta arratoigabetuko dira ustiategiko instalazioak.

Ustiategi guztiek landuko dute —albaitariak ikuskatuta— dena delako espezieko gaixotasun nagusien kontrako programa sanitarioa, eta indarrean dauden arau sanitarioak beteko dituzte.

4. KAPITULUA – USTIATEGIEK BETE BEHAR DITUZTEN BERARIAZKO BALDINTZAK

(...)

2.- Hegazti-azienden ustiategiak.

Arrautzak ekoizten dituzten hegazti-azienden ustiategiak, arau orokorrez gain, arrautzatarako oiloak babesteari buruzko neurriak —ondoren adieraziko direnak— bete beharko dituzte. Baldintza horiek ez zaizkie aplikatuko arrautzatarako 350 oilo baino gutxiagoko establezimenduei.

Betebehar orokorrak:

- Ahalik eta zarata gutxien egingo da. Zarata iraunkorrak edo bat batekoak saihestu egingo dira. Haizeztapen sistemak, elikatze mekanismoak eta gainerako aparailuak eraiki, muntatu, mantendu eta erabiliko dira ahalik eta zarata gutxien egiteko erara.
- Eraikin guztiek nahiko argitsuak izango dira, oiloek elkar ondo ikusi dezaten, eurak ikusiak izan daitezten, ingurua ikusi ahal dezaten eta euren jarduerak era normal batean gara ditzaten. Argia naturala bada, argiari sartzen uzten dioten zuloek posible egingo dute instalazio guztia aldi berean argituta egotea.
- Egokitzapen aldiko lehenengo egunak igaro ondoren jarriko den argiztapen erregimenak saihestu egin beharko ditu arazo sanitarioak eta portaerari buruzkoak. Beraz, hogeita lau orduko erritmoa izango du eta etengabeko iluntze-aldi nahikoa —egunaren herena gutxi gora-behera— oiloek atsedena har dezaten eta immuno-depresioaren eta begiko anomalien antzeko arazorik izan ez dezaten. Argia gutxitzen den aldiko ilunantzaren iraupena ere oiloak perturbazio edo zauririk gabe lotaratzeko modukoa izango da.
- Oiloek ukitu ditzaketan lokalak, ekipoak eta tresnak maiz garbitu eta desinfektatu beharko dira; eta beti: hustuketa sanitarioa egiten denean eta oilo lote berria ekarri aurretik. Oilategiak okupatuta dauden bitartean, azalera eta instalazio guztiek nahiko garbi egon beharko dute.
- Behar den guztietan kenduko zaizkie gorotzak. Hildako oiloak egunero erretiratu-ko dira.
- Hazkuntzako sistemak behar bezala egokituta egongo dira, oiloek alde egin ez dezaten.
- Zenbait maila dituzten instalazioek dispositiboak eta neurri egokiak izango dituzte, zeintzuk maila guztiak zuzenean eta eragozpenik gabe ikuskatzeko aukera emango baitute, eta oiloak ateratzeko zailtasunik ez baitute izango.

- Kaiolen diseinua eta irekidura neurriak nahikoak izan beharko dute bertatik oilo heldu bat oinaze eta zauririk gabe atera ahal izateko.
- Mutilazioak galarazita daude. Hala ere, lumen pikatua eta kanibalismoa eragozteko, hegaztien mokoa moztu ahal izango da, betiere eragiketa horiek pertsonal kualifikatuak egiten baditu, eta bakarrik hamar egun baino gutxiagoko arrautzatarako oilandei egiten bazaie.

Baldintzak egokiak ez dituzten kaioletako hazkuntza:

Ezingo da egokitu gabeko kaiolarik eraiki edo zerbitzuan jarri lehenengo bider. Hazkuntza sistema hori galarazi egingo da 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera. Ordura arte, honako baldintza hauek bete beharko dituzte zerbitzuan dauden kaiolak:

- Arrautzatarako oiloek kaiolako azalera guztiaren 550 cm² izan beharko dituzte oiloko, eta murriztapen barik erabili ahal izango du azalera hori, batik bat hondakinen aurkako ertz deflektoreak —azalera mugatu dezaketenak— jartzea aintzat hartu barik; eta plano horizontalean neurtuta.
- Bazkalekua jarriko da, murriztapenik gabe erabili ahal izango dena. 10 cm-ko luzera izango du behintzat, kaiolako oilo kopuruaz biderkatuta.
- Ura edateko kikararik edo pitarik ez badago, kaiola guztiek izango dute bazkalekuaren luzera duen uraska jarraitua. Loturarik gabeko uraskak izanez gero, pita edo kikara bi kaiolatik hurbil egongo dira, baliatzeko moduan.
- Kaiolen altuera gutxienez 40 cm-koa izango da kaiolako azaleraren %65ean, eta 35 cm-koa behintzat kaiola guztian.
- Kaiolen zorua eraikitzerakoan kontuan izan beharko da hanka bakoitzeko aurre behatzari egokiro eusten diola. Malda ez da izango %14tik edo 8 gradutik gorakoa. Alanbre sare angeluzuzenez besteko materiala erabiltzen duten zoruetan, eskumena duen agintaritzak aldapa handiagoak onar ditzake.
- Azazkalak mozteko dispositibo egokiak egongo dira kaioletan.

Kaiola egokituetako hazkuntza:

Honako baldintzak beteko dituzte kaiola guztiek:

- Arrautzatarako oiloei dagokienez:
 - Kaiolaren azaleraren gutxienez 750 cm oiloko, horietatik 600 cm² erabilgarriak izango dira, betiere kaiolaren altuera —azalera erabilgarriaren gainetik dagoenaz gain— gutxienez 20 cm-koa bada kaiola osoan eta kaiolaren azalera guztia gutxienez 2.000 cm²-koa bada.

- Habia.
 - Mokoka egiteko eta aztarrika egiteko ohantzea.
 - Kota egokiak, 15 cm-ko azalera izango dutenak oiloko.
- Murriztapen barik erabiltzeko bazkalekua aurreikusiko da. Gutxienez 12 cm-ko luzera izango du, kaiolako oilo kopuruaz biderkatuta.
- Kaiola guztiek izango dute edateko leku aproposa, batez ere taldearen neurria kontuan izanik. Loturak dituzten edontziak badira, oilo guztiek izango dituzte bi pita edo bi kikara eskura.
- Abereen ikuskaritza, instalazioa eta erretiratzea errazteko, kaiola errenkadak gutxienez 90 cm-ko korridorez bereiztuko dira, eta gutxienez 35 cm-ko gunea egongo da establezimenduko zoruaren eta beheko errenkadetako kaiolen artean.
- Azkazalak mozteko dispositibo egokiz hornitua egongo dira kaiolak.

Sistema alternatiboen bidezko hazkuntza:

- Instalazioak hornitzailekoan, honako ekipo hauek izango ditu arrautzatarako oilo bakoitzak:
- Luzetarako bazkalekuak, gutxienez 10 cm-ko luzera dutenak hegaztiko; edo bazkaleku zirkularrak, gutxienez 4 cm-ko luzera dutenak hegaztiko.
 - Edontzi jarraituak, 2,5 cm-ko luzera dutenak oiloko; edo edontzi zirkularrak, 1 cm-ko luzera dutenak oiloko.
 - Edontziak pita edo kikarak izanez gero, gutxienez bat egongo da 10 oiloko. Loturak dituzten edontziak badira, oilo bakoitzak pita edo kikara bi erabil ditzake gutxienez.
 - Gutxienez habia bat izango dute zazpi oiloko. Talde-hobiak izanez gero, gutxienez metro karratu bateko azalera aurreikusi beharko da 120 oiloko, goitik jota.
 - Kota egokiak, ertz altzairuzkorik gabe, eta gutxienez 15 cm-ko gunea izanik oiloko. Kotak ezingo dira jarri ohantzearen gainean, eta koten arteko distantzia horizontala 30 cm-koa izango da, eta gutxienez 20 cm-koa kota eta paretaren artekoa.
 - Ohantze azaleraren 250 cm², gutxienez, oiloko; ohantzeak zoru azaleraren gutxienez herena hartuko du.
- Instalazioen zoruak modu egokian eutsi beharko ditu hanka bakoitzeko aurrebehatz guztiak.

- Arrautzetarako oiloei mailen artean modu librean mugitzeko aukera ematen dieten sistemei dagokienez:
 - Gainjarritako mailak 4 izango dira.
 - Mailen arteko altuera gutxienez 45 cm-koa izango da.
 - Oilo guztiek aukera berdinak izango dituzte bazkalekuetan eta edontzietan.
 - Mailak kokatzerakoan eragotzi egin beharko da gorotzak beheko mailletara jaustea.
- Arrautzatarako oiloek kanpoaldera ateratzeko aukera izanez goero:
 - Irteteko zenbait tranpol artez kanpoaldera zuzenduta egongo dira. Gutxienez 35 cm-ko altuera eta 40 cm-ko zabalera izango dute. Eraikinaren azalera guztitik egongo dira. 2 metroko zabalera duen irekigune bat beti egongo da erabilgarri 1.000 oiloko.
 - Kanpoaldean ezaugarriak:
- Bertan egongo diren oiloen dentsitatea eta zoruaren izaera kontuan izanik, azalera egokia izan beharko dute, edozein eratako kutsadura saihesteko.
- Estalpeak eta harraparietatik babesteko lekuak izatea; eta, hala behar izanez gero, edontzi egokiak izatea.
- Azalera erabilgarriko metro karratuko ezingo da arrautzatarako bederatzi oilo baino gehiago egon.
- Azalera erabilgarria eta baliagarria bat datozenean, metro karratu baliagarriko hamabi oiloko dentsitatea egon daiteke —2011ko abenduaren 31ra arte— sistema hau 1999ko abuztuaren 3an aplikatu zuten establezimenduetan.

2.-165/1999 DEKRETUA, martxoaren 9koa, otsailaren 27ko 3/1998 Legean, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra, jasotzen den jarduerarako lizentzia eskuratzetik salbuetsitako jardueren zerrenda finkatzen duena.

1. artikulua

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra, 56. atalean jasotzen den jarduerarako lizentzia eskuratzetik salbuetsita daude dekretu honen I., II. eta III. eranskinetan adierazten diren jarduerak. Hurrengo ataletan finkatzen diren betekizunei egokitu beharko zaizkie horiek.

2. artikulua

1.- I., II. eta III. eranskinetan adierazten diren jarduerak aplikagarri diren arloko araudietan (ingurugiro, osasun, industri segurtasun... arlokoak) eskatzen diren betekizunak bete beharko dituzte eta, hala badagokio eta jardunean hasi aurretik, bertan jasotzen diren baimen eta jardunean hasteko aktak eduki beharko dituzte.

2.- Era berean, III. eranskinean jasotzen diren jarduerak ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuan beraientzat oharrekin diren baldintzei egokitu beharko zaizkie. Dekretu horrek egoitzarako hiri lurrian finkatu beharreko jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei oro har aplikagarri zaizkien arau teknikoak onesten ditu.

3. artikulua

1.- Dekretu honen I., II. eta III. eranskinetan jasotzen diren jarduerari hasiera eman aurretik, jarduera bakoitzaren ezaugarrien arabera aplikagarri diren eta IV. eranskinetako ataletan adierazten diren agiri teknikoak aurkeztu beharko dituzte kasuan kasuko udalean titularrek.

2.- Aurreko lerroaldean aipatutako agiriak aurkeztu ondoren, udalak jakinarazpen pertsonalak helaraziko dizkie jarduerak kokatuko diren lekuen inguruko auzokoei eta 10 eguneko epea emango die alegazioak aurkez ditzaten.

3.- Udaleko zerbitzu teknikoek agiri teknikoak egiaztatutakoan eta aurkez zitezkeen alegazioei atxikiz, udalak neurri osagarriak jarri ahal izango ditu jarduerak behar bezala garatzeko.

4. artikulua

1.- Dekretu honen I., II. eta III. eranskinetan jasotzen diren jardueren titularrek jakinarazi beharko diote kasuan kasuko udalari obrei amaiera eman diela eta instalazioak aurkeztutako agiriari eta, hala behar izanez gero, eska zitezkeen neurri osagarriari egokitzen zaizkiela. Horretarako, kasuan kasuko egiaztagiriko teknikoak aurkeztu beharko dituzte, instalazio motaren arabera.

2.- Era berean, udaleko zerbitzu teknikoek ikuskaritza bisitaldiak egin beharko dituzte, jarduerak behar bezala burutzen direla bermatu eta instalazioak titularrek aurkeztutako agiri teknikoari egokitzen zaizkiela egiaztatzeko.

5. artikulua

Dekretu honetan jasotzen den jardueraren batek bere jardunean gaindituko balitu horientzat I., II. eta III. eranskinetan finkatzen diren mugak, otsailaren 27ko 3/1998 Legearen, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra, 56. eta hurrengo ataletan oharmandako jarduerarako lizentzia erregimena aplikatuko zaio.

II. ERANSKINA LURZORU EZ-URBANIZAGARRIAN BURUTZEN DIREN JARDUERAK

1.- Etxeko eskortak edo abeltzaintzako ustiategi txikiak, gehienez 20 behi-azienda buru dutenak (ustiategia espezie bakarrekoa bada), edo horren baliokideak, ondoren ematen diren portzioetan (dekretu honetan ezarritakoaren ondorioetarako soilik):

behi-azienda buru 1 = zaldi-azienda buru 1 = umetarako txerrama 1 = gizentzeko 4 txerri = 10 ardi- edo ahuntz-azienda buru = 10 untxiama = 40 hegazti.

(...) IV. ERANSKINA AURKEZTU BEHARREKO AGIRI TEKNIKOAK

1.- Jardueraren helburua.

Garatu beharreko jardueraren deskripzioa, jarduera berria den edo lehendik zegoen jarduera baten handitzea, lekualdaketa, eraberritzea edo legeztatzea den zehaztuz.

2.- Kokapena.

Lurzoruaren hirigintza-kalifikazioa adierazi beharko da, alboko lokal edo instalazioen erabilera zehaztuz. Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera izanez gero, biztanledun eraikin hurbilenera dagoen distantzia adierazi beharko da, bai eta kontsumo publikoko ur-hartuneetara, deposituetara, horniketa-sareetara, iturburuetara eta ur-korranteetara dagoena ere.

3.- Jarduera bera.

3.1.- Lokalaren deskripzioa: azalera osoa eta zatikako azalerak (produkzio-prozesuaren alde desberdinei dagozkienak, biltegiak, bulegoak, garbigelak eta aldagelak).

3.2.- Produkzio-prozesuaren eta tarteko prozesuen deskripzioa; lehengaien eta produktu bukatuen deskripzioa, horien ezaugarri fisiko-kimikoak, biltegira daitekeen gehienezko stocka eta biltegitratzeko baldintzak adieraziz, bai eta urteko kontsumoa eta produkzioa ere.

3.3.- Lanean zenbat pertsonak jardungo duten.

3.4.- Makineria eta instalazioak: jarduera burutzeko aurreikusten diren makina eta instalazioen zerrenda, horietako bakoitzaren potentzia elektrikoa eta/edo bero-potentzia zehaztuz (ZP-tan edo kW-tan). Berariazko araudiak bete behar dituzten instalazioetan (GT/BT instalazio elektrikoa, galdarak, aireztapen-sistemak ...), segurtasun industrialaren alorrean indarrean dauden arauak ezarritakoa betetzen dela justifikatu beharko da.

3.5.- Erregaiak: motak, biltegitratze-sistema, biltegitra daitekeen gehienezko stocka eta aurreikusitako urteko kontsumoa. Produktu sukoiak eta errekorrak biltegitratzeari dagokionez, segurtasun industrialaren alorrean indarrean dauden arauak ezarritakoa betetzen dela justifikatu beharko da.

3.6.- Aireztapena.- Aurreikusten diren aireztapen-sistemak. Eragindako aireztapena izanez gero, aire-berriztapenaren kopurua zehaztu beharko da, eta Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko Araudian ezarritakoa betetzen dela justifikatu, bai eta ondokoei ez diela kalterik egiten ere.

Garajeen kasuan, ekainaren 11ko 171/85 Dekretuak eta horrekin lotutako gainerako arauak ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatu beharko da.

3.7.- Instalazio higienikoak: garbigela eta aldageletarako aurreikusitako instalazioak, sexuen arabera banatuak, Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko Araudian ezarritakoari jarraituz.

7.- Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak.

Aurreko idazatietan zehatutakoaren kalterik gabe, nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren kasuan honako baldintza hauek betetzen direla berariaz justifikatu beharko da:

7.1.- Produktu fitosanitario, pestizida eta, oro har, produktu kimikoen biltegitratzea ustiategi-rako behar-beharrezkoena denera mugatuko da; horiek erabiltzeko garaian segurtasun arauak eta arau higieniko-sanitarioak bete beharko dira beti.

7.2.- Jarduerak sortzen dituen hondakin organikoak (likido eta solidoak) hobi estanko batean edo esparru itxi iragazkaitz batean bildu beharko dira, hondakin-motaren arabera,; biltegi horiek ez dute kanporako irteerarik izango, ezta ubide publikoetarako isurbide zuzenik ere. Simaurtegiko lixibiatuak hobi estanko batean jasoko dira.

7.3.- Hondakin horiek lurra ongarritzeko edo ureztatzeko erabiliz gero, era egokian jalki beharko dira, alderdi hauek kontutan hartuz: azalera unitateko eta erabilpen bakoitzeko jasan daitekeen medeagarri edo zama organikoaren gehienezko kopurua, luraren topografia eta klimatologia; edozein kasutan, erabilera hori abenduaren 22ko 390/1998 Dekretuan ezarritakoari lotuko zaio, zeinaren bidez nekazaritzatik eratorritako nitratoekin ura kutsatzeko Arriskutan dauden Inguruak izendatzeko arauak finkatu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza-lanetan Egoki Jarduteko Kodea onartzen baita. Halaber, eta irizpide orokortzat hartuta, ureztaketarako 5 azienda unitate baliokideko (u.a.u.b.) lur Ha 1 dagoela justifikatu beharko da. Finken planoak aurkeztu beharko dira eta honako baliokidetzak ezarriko dira:

U.a.u.b. 1:

(...)

250 oilo.

Hondakinak kudeatzeko beste eraren bat aukeratzekotan, behar bezala justifikatu beharko da.

7.4.- Animalia hilak desagerraraztea, bai errausketa kontrolatuaren bidez (ezarri beharreko araudia betetzen duen labe edo instalazio bat erabiliz), bai hobi estanko batean karez ehortziz, bai organo eskudunak horretarako jarritako zerbitzuek eramanda.

7.5.- Neurri higieniko-sanitarioak.

7.5.1.- Ustiategiko zolak iragazkaiztea.

7.5.2.- Aldian aldiko desinfektazioak, intsektu-kentzeak eta arratoi-garbiketak.

7.5.3.- Instalazioak aldian-aldian errazago garbitzeko iturriko ura edukitzea.

7.5.4.- Intsektuak kanpora atera daitezzen eragozteko sistema edo instalazioak, batez ere ondoan instalazioak edo etxebizitzak egonez gero.

8.- Planoak.

8.1.- Jardueraren kokapen-planoa; nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren kasuan, lursail propioak, ondoko finak eta bide publikoak zehaztuko dira. Biztanledun gunetara, ubideetara, horniketa-putzuetara, iturburuetara, horniketa-sareetara, etab. etara dauden distantziak adieraziko dira (1:5000 eskalako planoak edo antzekoak).

8.2.- Instalazioaren kokapen-planoa, ondoko etxebizitza eta pabilioiak sartuz eta horien erabilera zehaztuz (1:500 eskalako planoak edo antzekoak).

8.3.- Instalazioen oin-planoak, honakoak adieraziz: makinak eta berariazko instalazioen kokapena, keen kanporaketa, saneamendu-sarea, suteen aurkako babesa, larrialdietarako irteerak, e.a. Lehengaiak, produktu bukatuak eta hondakinak biltegitratzeko aldeak ere adierazi beharko dira (1:100 eskalako planoak edo antzekoak).

8.4.- Altxaera-planoak eta sekzioenak, 1:100 eskalan edo antzekoan.



Informazio iturriak

- Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa:
<http://www.elika.net/home.asp>
- Euskadiko nekazaritzaren ataria:
<http://www.nekanet.net/>
- Euskadiko osasun ataria:
<http://www.osanet.net/>
- Hegazti-gripeari buruzko Espainia, Frantzia eta Portugaleko atariak:
<http://www.gripeaviar.es>
<http://www.grippeaviaire.gouv.fr>
<http://www.gripedasaves.pt>
- Europako beste atari batzuk
http://europa.eu.int/comm/dgs/health_consumer/dyna/influenza/country_en.htm
- Osasunaren Munduko Erakundea:
<http://www.who.int/es/index.html>
- Abere Osasunaren Munduko Erakundea:
http://www.oie.int/esp/es_index.htm
- Elikadura eta Nekazaritzako Nazio Batuen Erakundea:
http://www.fao.org/index_es.htm
- OIEren eta FAOren hegazti-gripeari buruzko ataria:
<http://www.offlu.net/>
- Gaixotasunak prebentitu eta kontrolatzeko EBko zentroa:
<http://www.ecdc.eu.int/>
- Gaixotasunak prebentitu eta kontrolatzeko USAko zentroa:
<http://www.cdc.gov/spanish/>

